

# DERRIGORREZKO ESKOLALDIRAKO IKASTOLEN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNA

BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENA  
(2008KO MAIATZA)





## PROIEKTUAREKIN BAT EGITEN DUTEN HEZKUNTZA ERAKUNDE ETA SEKTOREAK

AICE, Ikastetxeen Elkarte Independientea  
AIF, Arabako Ikastolen Federakundea  
BIDELAGUN, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeetako Gurasoen Federakuntza  
BIE, Bizkaiko Ikastolen Elkarte  
BIGA BAI, Ipar Euskal Herriko Eskola Publikoetako Gurasoen Federazioa  
CCDD, Bilboko Elizbarrutiko Ikastetxeak  
EIB, Eusko Ikastolen Batza  
ESKOLA GIRISTINOAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Girstinoak  
EUSKAL HAZIAK, Ipar Euskal Herriko Eskola Girstinoetako Guraso eta Irakasleen Elkarte  
EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa  
FAPACNE, Estatuok ez diren Ikastetxeetako Ikasleen Guraso Elkarte Arabako Federazioa  
FECAPP, Bizkaiko Guraso eta Ikasleen Federakunde Katolikoa  
FEGUIAPA, Gipuzkoako Ikasle-Gurasoen Elkarte Federakuntza Librea  
GIE, Gipuzkoako Ikastolen Elkarte  
HUIS, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
IKASGE, EAeko Publikatutako Ikastoletako Gurasoen Federazioa  
KRISTAU ESKOLA, EAeko Kristau Ikastetxeen Federazioa  
NIE, Nafarroako Ikastolen Elkarte  
SEASKA, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa  
SORTZEN-IKASBATUAZ, Euskal Eskola Publikoen Elkarte  
SORTZEN GURASOAK, Sortzen Elkarteko Gurasoen Federazioa  
UFEPA, Euskadiko Eskola Katolikoetako Guraso Elkarte Federakuntzen Batasuna

**Oharra:** "Derrigorrezko Eskolaldirako Ikastolen oinarrizko curriculum komuna", aipatzen diren erakunde eta sektoreekin batera egindako "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna" egitasmoan elkarrekin egindako lanaren egokitzapena da

### ZUZENDARITZA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa  
KRISTAU ESKOLA, EAeko Kristau Ikastetxeen Federazioa  
SORTZEN-IKASBATUAZ, Eskola Publikoen Elkarte

### FINANTZAKETA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA .....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
1.- Kontzeptuen azalpena	
2.- Lanaren esparrua eta helburua	
3.- Gaiaren garrantzia	
4.- Lanaren ezaugarriak:	
- Euskal Curriculum osoaren zatia	
- Uztargaria lekuan lekuko curriculum ofizialarekin eta ikastetxeko hezkuntza proiektuarekin	
- Proposamen irekia eta malgua	
- Euskal Herrirako oinarrizkoa eta komuna	
- Kulturartekotasunaren bidetik	
- Ibilbide baten hasiera	
5.- Ikas arloak eta curriculum diseinuaren ezaugarriak	
6.- Informazioa, baliospena eta erabakiak hartzeko prozedura eta epeak	
<b>II.- IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNAREN ARDATZAK .....</b>	<b>24</b>
1.- Oinarrizko Curriculum komunaren printzipioak	
2.- Oinarrizko hezkuntzaren xedeak	
3.- Oinarrizko konpetentziak eta hezkuntza-konpetentzia orokorrak	
4.- Hizkuntza plangintza	
<b>III. IKAS ARLOAK</b>	
<b>1.- HIZKUNTZAK ETA LITERATURA .....</b>	<b>35</b>
Sarrera	
Arlo osaren ikuspegia	
1. Euskara (B2, Hegoaldea eta Iparraldea) .....	50
2.A.- Gaztelania (B2, Hegoaldea).....	70
2.B.- Frantsesa (B2, Iparraldea) .....	88
3.- Ingelesa (B1, Hegoaldea eta Iparraldea) .....	104
4.A.- Frantsesa (A2, Hegoaldea) .....	119
4.B.- Gaztelania (A2, Iparraldea) .....	133
<b>2.- TEKNOLOGIA .....</b>	<b>147</b>
Sarrera	
Konpetentzia orokorrak	
Euskal Curriculum Espezifikoa	
<b>3.- MUSIKA ETA DANTZA.....</b>	<b>153</b>
Sarrera	
Konpetentzia orokorrak	
Euskal Curriculum Espezifikoa	
<b>4.- PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPENA .....</b>	<b>163</b>
Sarrera	
Konpetentzia orokorrak	
Euskal Curriculum Espezifikoa	
<b>5.- GORPUTZ HEZKUNTZA .....</b>	<b>172</b>
Sarrera	
Konpetentzia orokorrak	
Euskal Curriculum Espezifikoa	
<b>6.- GIZARTE ZIENTZIAK .....</b>	<b>180</b>
Sarrera	
Konpetentzia orokorrak	
Euskal Curriculum Espezifikoa	
<b>7.- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK .....</b>	<b>203</b>
Sarrera	
Konpetentzia orokorrak	
Euskal Curriculum Espezifikoa	
<b>INKESTA: Balorazio eta hobekuntza proposamenak .....</b>	<b>211</b>



## **ERANSKINA: Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum osoa**



## AURKEZPENA

“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren” proposamena unibertsitatez kanpoko Euskal Herriko edo Euskararen Herriko lurraldeetako hezkuntza sistemako hezkuntza eragileek elkarlanean egindako ekimenetik sortu da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin hitzartuta eta hark diruz lagunduta. Ekimen hau bi urratsetan garatzen ari da: lehen urratsa burututa dago eta bigarrena da burutzeke dagoena eta lan honen aztergaia dena. Atarian aipatzen diren hezkuntza erakunde eta sektoreak elkarrekin egindako lanean oinarritzen da Ikastoletarako egokitu dugun proposamen hau. Funtsean proposamena bera da, baina hezkuntza sektore bakoitzak norberaren ezaugarriak erantsi ditu.

### **1. urratsa: Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum osoa**

Lehen urratsean, “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” (2006) plazaratu zen. Curriculumaren programa horrek ohikoak diren osagaiak jasotzen ditu: hezkuntzaren xedek, hezkuntza konpetentzia orokorrak, eduki metadiziplinarrak, ikastarlotako konpetentzia orokorrak, arloetako edukiak, konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio irizpideak. Hezkuntza eragile guztien partaidetza zabala ziurtatuz, curriculum horren baliospena eta hobekuntza proposamenak egin dira eta egindako ikerketa horren emaitzak, “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculumaren baliospen eta hobekuntza proposamenak” (2007) txostenean plazaratu dira. Proposamena oso ondo baloratu da eta erabateko bertsio hobetua, hala nahi duten hezkuntza zerbitzu eta administrazioen eskura egongo da. Proposamena beti ere irekia eta borondatezkoa izaten jarraituko du.

### **2. urratsa: Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum espezifikoa eta Ikastolen oinarrizko curriculum komuna**

Bigarren urrats honetan, Euskal Curriculum osoaren zati bat aurkezten da, Euskal Curriculum espezifikoa edo berariazkoa hain zuzen ere. Aurrekoarekin alderatuz, batetik, aurrekoaren zati bat denez, laburragoa da, eta bestetik, onespina borondatezkoa izan arren, onesten dutenek indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute. Hala gertatzen bada, lehen aldia izango da Euskal Herriko ikastetxeek, euren borondatez eta euren arteko desberdintasun guztien gainetik, guztiontzako euskal kulturaren oinarrizko elementuak belaualdi batetik bestera eskolaren bidez ziurtatzeko erabakia hartuko dena.

Aurreko hori izango da Euskal Herriko ikastetxe guztiek elkarrekin partekatu duten curriculum. Ikastolek ere, beste hezkuntza sektoreekin batera, Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizko eta komuna indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko



dute. Baina Ikastolen taldeak baditu besteekiko bereizgarriak diren ezaugarri komunak, eta aurrekoarekin batera horiek ere urrats honetan aztertu eta adosteko bideak jarriko dira.

Urrats bakoitzak bere nortasun propioa du, baina bi urrats hauek batera ikusi behar dira, bata bestearen osagarri modura. Holograma batean gertatzen den antzera, Euskal Curriculumaren barnean plano desberdinak bereiz daitezke eta horietako bat da Euskal Curriculum Espezifikoa. Duela gutxi lehen urratsa aztertu eta baloratu zen eta bigarrena izango da oraingo honetan aztergai izango dena.




# I. SARRERA





## 1.- KONTZEPTUEN AZALPENA

Lanaren izenburuaren esanahia hasieratik argitzea komeni da zertaz ari garen jabetzeko. Izenburuan, bereziki bi kontzeptu argitzea komeni da: a) Zer ulertzen da “Ikastolen Curriculumaz”? b) Zer ulertzen da “oinarrizkoa eta komunaz”?



### Euskal Curriculum osoa

Munduaren ikuspegi jakin batetik, gure kasuan euskal ikuspegitik, egindako euskal prozesuen eta produktuen hautaketa. Kultur prozesu eta produktuetan, Euskal Herrian berariazkoak, bereganatu direnak eta unibertsalak sartzen dira. Edonongo curriculumean ehuneko zatirik handiena unibertsala izaten da. Euskal Curriculumean ere gauza bera gertatzen da. Alde horretatik begiratu, mendebaldeko zibilizazioaren eta mundializazioaren eraginez, Europako eta munduko curriculumen edukiak nahiko antzekoak dira. Ez ordea beti –bereziki giza-gizarte zientzietan– eduki horiek ikusteko, interpretatzeko eta adierazteko era.

### Euskal Curriculum Espezifikoa (propioa edo berariazkoa)

Euskal Herrikoak, propioak edota bereganatuak diren edukiak osatzen dute Euskal Curriculum Espezifikoa. Beste era batera esanda, beste kulturengandik bereizten gaituena da. Batasunaren eta aniztasunaren fenomeno bikoitza (partikularra eta unibertsala) ondo uztartzea garrantzi handikoa da gaurko munduan elkarrekin bizitzen asmatzeko.



## Oinarrizkoa eta komuna

Curriculumaren edukiak **“oinarrizkotzat”** hartzen dira garapen pertsonalerako, eguneroko elkarbizitzarako eta lanerako garrantzizkoak direlako edota beste ikasketa batzuk eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko oinarriak finkatzen dituztelako. Eta **“komunak”** dira, ikasle guztien arteko kohesioa eta batasuna, batetik, eta aukeren berdintasuna, bestetik, eragiteko asmoz, gazte guztiek bereganatzeko eta partekatzeko hautatzen diren edukiak.

Kontzeptuen esanahiaren aldetik “oinarrizkoa” eta “komuna” oso ondo bereizten dira, praktikan ordea gehienetan bi kontzeptuak bat egiten dute, izan ere eduki bat komuna izateko irizpidea eta baldintza oinarrizkoa izatea baita. Oinarrizko curriculum eta komuna bat etor daitezke edo ez. Bat datoz, oinarrizkoa elkarren artean partitzekoa dela pentsatzen denean, komuna alegia. Oinarrizkotzat jotzen dena definitzen da, eta oinarrizkoa eta ez besterik da guztientzako komuna dena; eta oinarrizkoa ez dena, zabalik uzten da, ikastetxe bakoitzak berearekin osa dezan. Desberdinak dira, oinarrizko curriculum eta komuna bat eta bera ez direnean; esate baterako, curriculumean oinarrizkoa dena eta ez dena batera jartzen denean, eta oinarrizkoa ez dena ere guztiok partitzeko ezartzen denean.

## Ikastolen oinarrizko curriculum komuna

Euskal Curriculum unibertsalaren eta espezifikoreen barruan garrantzi handikoak irizten diren eta ikastola guztiak partekatzeko, eta gutasuna eta berdintasuna eragiteko asmoz hautatzen diren edukiak eta konpetentziak osatzen dute Ikastolen oinarrizko curriculum komuna.

Oinarrizko curriculum	Curriculum komuna
Euskal hiritar gisara bizi ahal izateko <i>ezinbestekotzat</i> jotzen ditugun euskal kulturaren osagaiak	Euskal kulturaren osagai hauek berauek, partituak direnez, Euskal Herriaren curriculum komuna osatzen dute.
Hiritar unibertsal gisara bizi ahal izateko <i>ezinbestekotzat</i> jotzen ditugun kultura unibertsalaren osagaiak	Kultura unibertsalaren osagai hauek berauek, partituak direnez, Euskal Herriaren curriculum komuna osatzen dute.

## Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna


Euskal Herrikoak, propioak edo bereganatutako edukien artean, bizitzeko garrantzi handikoak irizten diren edukiak eta konpetentziak, eta Euskal Herriko gazte guztiek partekatzeko, eta gutasuna eta berdintasuna eragiteko asmoz hautatzen diren edukiak osatzen dute Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna.



Oinarrizko curriculuma	Curriculum komuna
Euskal hiritar gisara bizi ahal izateko <i>ezinbestekotzat</i> jotzen ditugun euskal kulturaren osagaiak	Euskal kulturaren osagai hauek berauek, partituak direnez, Euskal Herriaren curriculum komuna osatzen dute.

## 2.- LANAREN ESPARRUA ETA HELBURUA

Lanaren fase honetan<sup>1</sup>, Derrigorrezko edo Oinarrizko Hezkuntzara mugatzen gara. Hezkuntzaren etapa honetan hiru zehaztapen-maila edo hiru plano bereiz daitezke: euskal curriculum osoa, Ikastolen oinarrizko curriculum komuna euskal curriculum oinarrizkoa eta komuna eta euskal curriculum espezifiko oinarrizkoa eta komuna.



Aurreko azalpenen arabera, “Euskal Curriculum osoa” da guztien artean zabalena; jarraian, “Ikastolen oinarrizko curriculum komuna”; eta hestuen, “Euskal Curriculum Espezifiko oinarrizkoa eta komuna”. Azkeneko biak dira lan honen esparrua. Euskal Curriculum osoan, euskal curriculum ez espezifiko (unibertsala) eta espezifiko jasotzen dira. Unibertsala den kultur ondarea, burututa dagoen Euskal Curriculum osoaren proposamenaren eta Espaniako<sup>2</sup> (EAE<sup>3</sup> eta Nafarroa<sup>4</sup>) eta Frantziako<sup>5</sup> curriculum ofizialetan ere jasotzen da eta ziurtatuta dago. Berriazkoa den Euskal kultur ondarea, aldiz, ez da jasotzen Espaniako eta Frantziako curriculum ofizialetan, oso era mugatuan Nafarroako curriculumean eta era osatuagoan, baina lurralde batera mugatuz, EAEko curriculumean. Ikastolen oinarrizko curriculum komuna erabakitzea eta adostea talde horren eginkizuna da.

<sup>1</sup> Euskal Curriculumaren egitasmoaren barruan, “Euskal Curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena” plazaratu zen (2004). Proposamen hori bizitza osorako egin zen.

<sup>2</sup> Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación

<sup>3</sup> 175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko (EHAA, 2007-11-13)

<sup>4</sup> Decretos Forales 23-24-25/2007, de 19 de marzo, por el se establecen los currículos de las enseñanzas de Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria en la Comunidad Foral de Navarra (BON, 17-08-2007)

<sup>5</sup> Loi d'orientation et de programme pour l'avenir de l'école, 2005/380

MEN (2006) École et Collège: tout ce que nos enfants doivent savoir. Le socle commun des connaissances et des compétences. CNDP/xe éditions, Paris.



Euskal Curriculum osoan espezifikoa ere jasotzen den arren, ez ordea behar adinako zehaztasunarekin eta indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisorik gabe. Egoera horretan, Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komuna burutzeak lehentasuna du, batetik, hori delako bide egokiena Euskal Herri osorako proposamen komuna egiteko, eta bestetik, hori delako bidea Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna erdiesteko.

Lan honen **helburu bat** Euskal Herri osorako, nahiz eta egoera desberdinak izan (ikasleen arteko desberdintasunak, herri eta herrialde mailakoak, administrazioaren eskolak ala hitzartuak, autonomi erkidego batekoak ala besteakoak, Espainiakoak ala Frantziakoak...), euren arteko desberdintasunen gainetik, Euskal Curriculum Espezifikoaren proposamen bateratua egitea, elkarrekin daukatena eta bereziki eduki nahi dutena adostea eta indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartzea da.

Beste era zehatzago batean esanda, derrigorrezko edo oinarrizko hezkuntza Euskal Herrian bukatzen duten gazte guztiek, Euskal Curriculum Espezifikoa oinarrizkoa eta komunaz jabetzeko lortu beharko lituzketen kompetentziak, eta horiek lortzeko beharko dituzten baliabideak (esperientziak, kontzeptuak, prozedurak, jarrerak) proposatzea da, egitasmoan parte hartzen duten hezkuntza eragileek, horiek adostu ondoren, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa har dezaten.

Lan honen **beste helburua** Ikastolen oinarrizko curriculum komuna proposatzea eta hala badagokio onartzea da. Ikastolen artean ere aipatu berri ditugun desberdintasunak (herri, lurralde, administrazio, estatu...) badira eta kontuan hartzeko dira. Baina era berean, ikastolek talde moduan badute bere izaera propioa. Ikastolen sorreraren arrazoi nagusia eta izaeraren ezaugarri nabarmenena euskara eta euskal kultura ziurtatzea eta sendotzea izan da. Horretan sailtu dira eta sailatzen jarraitzen dute, baina harrizkoa bada ere, talde moduan ez dute zehaztu eta adostu zein den oinarrizko hezkuntza bukatzerakoan ikasleek lortu behar duten euskara maila eta euskal kulturaren inguruan lortu behar dituzten ezagutzak eta kompetentziak. Ikastolek, beste alde batetik, edonongo eskolen antzera, ikasleen garapen osoa lortzen laguntzeko eta bizitzarako prestatzeko funtzioa dute. Funtzio horiek betetzeko era bat baino gehiago dago, baina bidezkoa dirudi, taldea osatzen badute eta osatu nahi badute, funtzio horiek betetzeko norabide nagusiak definitzea eta adostea. Norabide nagusi horiek finkatzeko, hezkuntzaren eta oinarrizko hezkuntzaren xedeak eta hezkuntza kompetentzia orokorrak definitzea eta adostea da lan honen beste helburua.



### 3.- GAIAREN GARRANTZIA

*“Nor diren eta izaten jarraitu nahi duten herriak saiatzen dira, sortzen dituzten instituzioen bidez, eskolaren bidez, kasu, baina beste agenteen bitartekotza eta eragina ahaztu gabe (familia, gizartea, komunikabideak, erabaki politikoak, etab.), duten kultur ondarea belaunaldi batetik bestera ziurtatzen. Hizkuntza, kultura, indar politiko eta ekonomiko sendoak dituzten herriek badituzte mekanismo natural ahaltsuak, eta legearen babesa gainera, beren kultur ondarea luzatzeko. Hizkuntza eta kultura ahulagoa dituzten herriek neurri bereziak hartu behar dituzte beren hizkuntza eta kultura babesteko. Euskal Herrian ez da oraindik saio sistematizatu eta arrazoiturik egin beren curriculum propioa definitzeko”.* Ideia hori izan zen 1996. urtean Ikastolek egindako III. Batzarrean curriculum propioa garatzen hasteko abiapuntua.

Euskal Curriculumaren egitasmoa eraikitza bultzatzen gaituen gogo bikoitza da. Euskal kultur ondarearen oinarritzko adierazpenen aukera egiten dugun neurrian Euskal Herria eraikitza eta hemengo hizkuntza eta kultur komunitatea eratzeko, gorpuzteko, sendotzeko eta garatzeko bideak eraikitzen ditugu. Halaber, kultur ondare hori Euskal Herriko eskoletako ikasleek barneratzen eta konpartitzen duten neurrian, guztiok elkarrekin bizitzeko sustrai komunak sortuko ditugu. Erreferentzia komunak konpartitzeak eta horrek eragiten duen gutasun-sentimenduak elkarrekin bizitzeko gogo pizten du. Baina, aurrekoarekin batera, egitasmo honek badu beste gogo osagarri bat: hizkuntza eta kultura anitzeko gure komunitatean, guztiok bateratzen gaituen kultur ondarearekin batera, aniztasunaren eta kulturartekotasunaren planteamendua guztiz beharrezkoa dela aitortzea eta bide horretatik ekitea.

Curriculum edo kultura komun baten proposamena justifikatzen eta oinarritzen duena da kultur erkidego bat izatea eta bereziki, izaten jarraitu nahi duen kultur erkidegoa izatea. Curriculum komunaren bitartez, kasu batzuetan koesistentzia dena, elkarbizitza bilaka daiteke eta beste batzuetan, elkarrekin bizitzeko nahari eutsi geniezaioke eta indartu. Kalitatezko elkarbizitza armoniatsua lortzeko aldeko baldintzak areagotu egiten dira loturak daudenean. Zenbat eta lotura gehiago eta estuagoak izan, are handiagoa da elkarrekin modu harmoniatsuan bizitzeko aukera. Curriculumaren funtziotako bat hain zuzen ere, integrazio sozial eta kulturala da. Ikasle guztiak curriculum jakin bat partitzen duten heinean, identitate eta integrazio sozial eta kulturalerako loturak sorrarazten ari gara eta elkarbizitzarako giroa sortzen. Ikasle guztientzako komuna den kultura bermatzen ari garenean, gizarte-klase arteko desberdintasunik gabe eta pribilegiorik gabe, aukera berdintasuna sustatzen ari gara, eta honek aldi berean, integrazio soziala eta kulturala indartzen ditu.



Erreferentzia eta pertenezia mapa osatzen duten partitutako espazioak, ugariak dira, eta guztiak behar dute izan curriculum komuna osatzeko jatorri, bai eta curriculum espezifikoa ere. Euskal Herrian bizi den ikasle batek, bere norbanako ezaugarri propioak ditu, ezaugarri sozio-kultural jakin batzuk dituen familia batean txertatuta dago, ezaugarri bereziak dituen herri/hiri batean bizi da, berariazko administrazioa duen herrialde jakin batean (EAE, Nafarroako Foru Erkidegoa, Pirinio Atlantikoen departamentua), ezaugarri kulturak jakin batzuk dituen lurralde batean (Euskal Herria), estatu jakin batean (Espainia, Frantzia), Europan eta munduan. Hautako aldagai batek hartzen badu bere baitan curriculum komunak izan behar duenaren definizioaren inposaketa eta monopolioa, gainerako espazio partituak aintzat hartu gabe, baztertzailea litzateke. Euskal Curriculumak planteatzen duena, curriculumaren definizioa guztien artean egitea da, partitutako espazio guztien arteko emaitza izan dadila: Zer da guztion artean partitzen duguna eta bereziki partitu nahi duguna herri/hiri honetan eta lurralde honetan eta Euskal Herrian eta Espainian/Frantzian eta Europan eta munduan bizi garenak? Euskal Curriculum Espezifikoak egiten duen proposamena, oinarritzotzat jotzen diren euskal kulturaren hainbat erreferentzia Oinarritzko Hezkuntza bukatzen duten ikasle guztiek parti ditzatela da. Euskal Curriculum Espezifikoak, baztertzailea ez den erreferentzia eta pertenezia gunea proposatzen du, gainerako guneekin bateragarria dena.

Hauetako espazio bakoitzean identifika daitezke, aldi berean, barrurantz komunak diren osagaiak eta kanporantz desberdintzaileak direnak. Aipatutako gunek bakoitzaren baitan osagai komunak antzemateak ez ditu eragotzi behar gunek bakoitzaren baitako zein guneen arteko desberdintasunak. Adibidez, sexu, familia, herri, lurralde, nazio, estatu jakinekoak izateak, identifikazio eta desberdintasun osagaiak sortzen ditu; desberdintasun hau, gainerako pertenezien gainerako baztertzailea izan gabe.

Federico Mayor Zaragoza (2004)<sup>6</sup>, liburuaren atarian esaten duena gogoratuz: *“Meritu handikoak iruditzen zaizkit “herritik mundura eta mundutik herrira” dagoen bidea egiteko aukera ematen duten kultur ibilbideak aurkitzeko ahaleginak, eta herri eta komunitate guztiak animatuko nituzke beraien kultur ibilbidea egin dezaten, ziur bainaiz aniztasuna eta gizaki guztion etorkizun komuna uztartzen dituzten bide guztiek bake kulturara daramatela, guztiok desio dugun beste mundu posible horretara”*.

Bide horretatik doaz, eta oso ondo baloratu dira gainera, “DerrigorrezkoEskolaldirako Euskal Curriculum”aren (2006: 27) hezkuntzaren xedea. Hezkuntza prozesuaren xedea pertsona gizabanako, gizartekide eta izadi-kide gisa ahalik eta gaitasun gehien garatzea dela esaten da, eta gizartekide izateaz zer ulertzen den azaltzerakoan hauxe esaten da:

<sup>6</sup> EHIK (2004): *Euskal Curriculuma:kultur ibilbidea. Adituen ekarpena*. Ikastolen Elkarte, Eusko Jaurlaritz, Donostia.



*“Euskaldun identifikatzea da, eremu kulturalitzean. Euskara eta euskal kultura bai eta erreferentziatzeko eta berezko gainerako hizkuntzak eta kulturak onargarritzat hartuz, nork bere identitatea modu inklusiboan eraikitzeo identitate anitzetan oinarrituta eta desberdintasunekin begirunezko eta bateragarria den erreferentzia eremu komuna eraikiaz, bizikidetzak baketsua bideratze aldera”.*

#### 4.- PROPOSAMENAREN EZAUGARRIAK

Aurreko azalpenetan Euskal Curriculum Espezifikoko oinarrizkoa eta komunaren ezaugarriak zeharka aipatu dira. Jarraian era sistematikoagoan azaltzen dira.

##### **Euskal Curriculum osoaren zatia**

Euskal Curriculum Espezifikoa eta Ikastolen oinarrizko curriculum komuna Euskal Curriculum osoaren zatiak dira. Ohar hau gogoan hartzea garrantzizkoa da egiten den proposamena ondo ulertzeko. Bi proposamenak (espezifikoa eta osoa) berezitura aurkezten ditugu, espezifikoa delako une honetan aztergai dena eta horren balorazioa egin nahi dugulako, baina Euskal Curriculumaren proposamena osotasunez ulertu nahi bada, guztiak harremanetan jarri behar dira.

Euskal Curriculum osoan unibertetsala eta espezifikoa batera daude, baina espezifikoa kurtsibaz bereizten da. Hartara bien arteko osagarritasuna eta berezitasuna erraz ikus daitezke. Adibidez,

<p>3.- Adierazpen- eta komunikazio-teknikak.</p>	<p>3.1. Lexiko tekniko eta testuinguru bakoitzerako sintaxi egokia.          3.2. Administrazio-agiri komunak: eskaera-orria, emate-agiria, faktura...          3.3. Dagokion dokumentazio teknikoaren interpretatzea edo gauzatzea: prozesu-orria, planoak, grafikoak, eskemak, katalogoak, tutorialak...          3.4. Marrazketa- eta software-tresnak erabiltzea, marrazketa teknikoan laguntzeko.          3.5. Irudikapena. Bistak eta perspektiba. Zirriborroa, krokisa eta delineatua. Eskalak, akotazioa.          3.6. Dokumentuak, memoriak edo aurkezpenak egiteko ofimatika-tresnak ezagutzea eta erabiltzea.          3.7.- <i>Zientzia eta teknikarako euskararen erabilpena. Zientzia eta teknikarako euskararen ezaugarriak eta arauak ezagutu eta hizkuntzaren erabilera zuzena ziurtatu ahozko ekarpen zein idatzietan.</i>          3.8.- <i>Euskarazko ofimatika-tresnak ezagutzea eta erabiltzea proiektuetako txostenak edo memoriak idazteko eta aurkezteko orduan.</i>          3.9.- <i>Euskarazko dibulgazio tekniko-zientifikoa. Zientzia eta Teknologia gaien dibulgaziorako euskarazko aldizkariak eta web guneak ezagutzea eta erabiltzea</i></p>
--	--



Euskal Curriculum Espezifikoaren proposamena aztertzen bada, espezifikoa bere aldetik agertzen da, baina Euskal Curriculum osoaren eta espezifikoaren arteko lotura adierazteko, Arloaren konpetentzia orokorrak bietan berdinak dira. Adibidez,

**Teknologia** arloaren bidez, osotasunez hartuta, ondorengo sei konpetentziak lortu nahi dira. Konpetentzia horietatik, lehen bostak curriculum unibertsalarekin lotu daitezke, eta 6. konpetentzia euskal curriculum espezifikoarekin bereziki.

- 1.- Baliabide teknologikoen bidez konpon daitezkeen arazoak aurkitzea eta argi eta zehatz definitzea, eta hainbat iturritan lortutako informazioa bilatzea eta aztertzea, arazoa konpontzeko aukera izateko.
- 2.- Arazo edo gai tekniko bati erantzuten dioten konponbideak diseinatzea, lan talde baten barruan parte hartze aktiboa izanez, funtzionamendua imajinatuz, beharrezko baliabideak aurreikusiz eta metodikoki jokatu ezarritako irizpideen arabera konponbide egokiena hautatzeko.
- 3.- Diseinua praktikara eramatea, gai edo arazo tekniko bat garatzeko edo arrakastaz konpontzeko, ezagutza zientifikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenatuta aplikatuz eta lan taldean eginkizunen banaketa onartuz.
- 4.- Lortutako emaitza ebaluatzea, arazo teknologikoa konpondu den ala ez egiaztatzeko, horren funtzionamendua eta lortu beharreko kalitatea eta baldintzak test baten bidez neurtuz. Horrez gain, egindako lan prozesua eta aukeratutako irtenbidearen ondorioak ebaluatzea.
- 5.- Teknologia arloko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, horien funtzionamendua eta horiek erabiltzeko eta menderatzeko modurik onena zein den ulertzeko; eta horiek erabiltzeko eta fabrikatzeko arazoak eta hainbat eremutan aplika daitezkeen ezaugarriak zein diren jakitea.
- 6.- *Teknologia arloko objektuak eta sistemak Euskal Herriko produkzio prozesuetan, iraganean eta orain, lortutako emaitza esanguratsuenak metodikoki aztertzea eta inguruko herrialdekoekin alderatzea, zein arazori aurre egiten dioten identifikatuz eta emandako konponbidea, zein erabilitako prozesua bera, ebaluatuz, bildutako ezagutzek kultura teknologikoa aberasteko eta gizakiak, oro har, eta Euskal Herrikoak, bereziki, egin duen bilakaeraz jabetzeko.*

## **Uztargarria lekuan lekuko curriculum ofizialekin eta ikastetxeko hezkuntza proiektuarekin**

Euskal Herriko Ikastolen curriculum komunak, ez du eskolak ikas/irakasten duen guztia barnebiltzen, baizik eta Euskal Curriculumaren proposamen osoa erreferentziatzen harturik, uztargarria da lekuan lekuko curriculum ofizialekin, eskola-sektore bakoitzaren hezkuntza proiektuko ezaugarriekin, eta eskola bakoitzaren inguru hurbileko kultur ezaugarriekin (berriazko euskal kultura eta ukipeneko kulturak), eta, oro har, eskola bakoitzaren hezkuntza proiektuarekin. Osagai hauek guztiak eratuko dute Euskal Herriko ikastetxe bakoitzeko curriculumak.


## **Proposamen irekia eta malgua**

Proposamen hau irekia eta malgua da eta eskola sektore bakoitzaren (ikastola, kristau eskola, administrazioen eskola) esku jartzen da, dagoen horretan onar dezaten ala bakoitzaren ezaugarrien arabera osatu, moldatu edota mugatu dezaten. Kontuan hartzeko





da ez dela berdina euskal kulturaren presentzia eta atxikimendua Euskal Herriko lurralde eta eskola sektore desberdinetan. Baldintza horietan Euskal Curriculum espezifikoa proposamena era malguan ulertzea zentzuzkoa da, sektore bakoitzak bere egoeraren arabera erritmorik egokiena hautatu dezan. Bestetik, sektore bakoitzak baditu bereizgarriak diren ezaugarri komunak, hala nola bere izaera propioaren ezaugarriak eta hezkuntza proiektuan azpimarratzen dituen baloreak. Euskal Curriculumaren egitasmoaren helburua ez da homogeneotasuna lortzea, bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, Euskal Curriculum espezifikoa dagokienez oinarrizkoak diren gutxiengo elementu komunak adostea baizik. Hori lortzea aurrera pauso garrantzizkoa litzateke.



### **Euskal Herriko oinarrizkoa eta komuna**

Gure proposamena, Euskal Herriko oinarrizkoa eta komuna den Curriculum Espezifikoa zehaztea besterik ez da. Proposamen horretan Euskal Herrian bizitzeko ezinbestekoak diren kompetentziak islatzen diren heinean, oinarrizko curriculumtzat jotzen duguna osatzen ariko gara. Proposamen hau Euskal Herriko ikastetxeek partitu eta bere egiten duten heinean, aukera berdintasuna eta bizikidetzaren sustatzen ariko gara, eta hau da curriculum komunaren oinarria.


Euskal Herriko guztiontzat oinarrizkoa eta komuna izango dena, eskola sektore bakoitzak bere hautua egin ondoren jakingo da. Gerta daiteke, eta hori gertatzea aurre ikusten da, eskola sektore bakoitzak definitzen dituen oinarrizkoak eta komunak ez izatea sektore guztietan berdinak. Desiragarria da ahalik eta adostasun maila handiena lortzea, baina aurrera pauso handia litzateke oinarrizkoak diren edukien artetik gutxiengo batzuk adostea eta horiek aplikatzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartzea. Lehen aldia litzateke eta bidea egiten hasteko eta aurrera begira sendotzeko aukerak irekitzen dira.



## Kulturartekotasunaren bidetik

Antropologoek diotenez giza espezieekook oso antzeko beharrak ditugu. Adibidez, J.M. Barandiaranek (1985)<sup>7</sup> gizabanakoen eta gizataldeen beharren sailkapena egiteko zazpi ardatz bereizi zituen:

- *Nola lortuko ditut janari-edariak eta osasuna?* Oinarrizko behar horren erantzuna inguruneak eskaintzen dituen aukerei lotuta dago, batetik, eta ingurunearen eta gizakiaren elkarreaginari, bestetik; gizakiak ekoizpen ekonomikoaren, merkaturatzearen, teknologiaren eta abarren bidez, oinarrizko behar horientzako kultur irtenbide espezifikokoak aurkitzen ditu.
- *Nola babestuko naiz?* Giza taldeek etxebizitza, janzkera...moduen bidez erantzuten diete behar horiei, baita defentsa moduen bidez ere.
- *Nola lortuko dut mundua ezagutzea eta behar ditudan materialak eta indarrak nire esku jartzea?* Galdera horren erantzuna giza taldeen eta izateriaren zientzia eta teknologia garapenaren historian daude.
- *Nola lortuko dut nire parekoen laguntza eta nola antolatuko dut gizarte bizitza?* Behar horren irtenbideak sortu ditugun gizarte antolaketa adierazten dute: familia, auzoa, herria, herrialdea, estutua, nazio komunitateak, eskola, sindikatuak, alderdiak, elkarteak, etab.
- *Nola komunikatuko naiz nire kideekin?* Behar hori hizkuntzen eta komunikatzeko bitartekoen bidez betetzen da, eta hizkuntza idatzia eta ahozkoa dira komunikazio modurik garrantzitsuenak, baina ez bakarrik.
- *Nola egingo ditut atsegina eta gustokoak ditudan gauzak?* Behar hori plastikaren, musikaren, dantzaren, joku/jolas eta abarren bidez gauzatzen da.
- *Nor naiz ni, zer da gizakia, zein bere xedea?* Galdera horren erantzuna dira erlijioak, sinismenak, sinboloak, mitoak, etab, patua azaltzen, esanahia ematen eta gizakia zergatik eta zertarako bizi den galderari erantzuten saiatzen direnak.



Behar horiek gizaki eta giza talde guztiek dituzte, baina horien erantzunak historikoak eta kulturalak dira, beraz, ez uniformeak, aldakorrek baizik. Euskal Herrian, kultur adierazpen espezifikoak daude (Euskal Curriculum espezifikoa): elikadura, gastronomia, janzkera, lekutzeko moduak, teknologia, gizarte eta politika antolaketa, elkarbizitza erak, zuzenbidea, hizkuntza/euskara, ahozko eta idatzizko literatura, joku/jolas eta kirolak, jaiak, musika eta dantza, arte plastikoak, mitoak, sinboloak, erlijioa... Adierazpen horiek ere historikoak,

<sup>7</sup> BARANDIARAN, J.M. (1985): *Euskal Herria. Diapositiba bilduma*. SEIE-GIE, Donostia.



dinamikoak eta era askotakoak dira, ez besteenak baino hobeak gureak baizik. Euskal Herrira bizitzera kanpotik etorri direnak ere badituzte behar horiei erantzuteko era bereziak, ez gureak baino hobeak beraienak baizik.

Jatorri eta kultura desberdinetakoak elkarrekin bizitzeko eta etorkizuna elkarrekin eraikitzeko, kulturartekotasuna beharrezkoa da. Kulturartekotasunak, harrerako lurraldeko kultura eta etorkinen kulturak ezagutzea eta errespetatzea eskatzen du. Giza espezieko oso antzeko beharrak ditugula jakitea garrantzizkoa da, guztion arteko berdintasunaz jabetzeko. Bestetik, behar horiei erantzuteko kultura bakoitzak ematen dituen erantzunak ezagutzea, garrantzizkoa etnozentrismoaren arriskuak saihesteko eta besteen ekarpenak zureganatzeko.

Elkarbizitza erdiesteko kultur integrazio inklusiboaren bidea proposatzen dugu; hau da, batasuna eta aniztasuna uztartzen dituen bidea. Batasuna, Euskal Herrian elkarrekin bizi garen kultur talde guztien ondare komuntzat euskara eta euskal kultura hartuta, zabala eta eten gabe berritzen dena; eta aniztasuna, kulturartekotasunaren bidetik, talde bakoitzaren nortasuna errespetatzeko, ezagutzeko eta balioesteko. Oinarrizko ideia honako hau da: euskaldun sentitzeak ez du izan behar beste identitate batzuen bazterrazlea. Euskararen eta euskal kulturaren inguruan egituratutako erreferentzia komun eta partekatuaren barruan, pertsona bakoitzak eraiki behar du bere identitate propioa, indibidualizazio prozesu baten bidez, eta, prozesu horretan, hainbat identitate aukeren artean bakoitzak finkatuko ditu bere lehentasunak, baina guztiok konpartituko ditugu euskararen eta euskal kulturaren erreferentziak.

### **Ibilbide baten hasiera**

Egitasmo hau babesten duten eskolak onartzeko asmoz egiten den Euskal Curriculum Espezifikoaren proposamena, ibilbide baten hasiera da. Ibilbide hori elkarrekin egiteko konpromiso bat eskatzen da, hau da, onartzen den proposamena indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa, hain zuzen ere.

Konpromisoa hartu aurretik eskola bakoitzak proposamena ebaluatzeko eta hobetzeko aukera izango du. Baina guztien ekarpenak zintzo jasotzen saiatu arren, oso zaila edo ezinezkoa izango da denok erabat ados egotea azken proposamenaren elementu bakoitzarekin eta guztiekin. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bideratzeko edukien hautaketa eta antolaketa funtsezko gaia da, baina erantzun bakarra ezinezkoa denez, beti izango da eztabaidagarria.



Egoera horretan, batetik, egiten den proposamena indarrean jartzeko eta ebaluatzeko asmoz egiten dela argi ikustea garrantzizkoa da, baina, era berean, garrantzizkoa da ulertzea ibilbide baten abiapuntua dela eta ez bukaera. Onartzen den proposamen hori indarrean jartzen eta ebaluatzen denean, etorriko dira praktikari buruzko hausnarketak eta horren ondorioz ezinbesteko egokitzapenak eta aldaketak.

Ibilbide horretan aurre ikustekoa da erritmo desberdinetan ekitea, batzuk bizkorrago eta motelago besteak, baina garrantzizkoena guztiok norabide berean abiatzea da. Erritmoak adosteko erarik badago hobe, baina norabidearen eta helburuan zentzuan ados egotea da funtsezkoena. Guztiok elkartzen gaituenaren gainean eraikiko dugu Ikastola eta Euskal Eskola.

Egitasmoaren ezaugarri hau gogoan hartzea komeni da egiten den proposamena zorrotzegi ez hartzeko eta hartu behar den erabakia testuinguru zabalagoan kokatzeko.

## 5.- IKAS ARLOAK ETA CURRICULUM DISEINUAREN EZAUGARRIAK


“Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” osoan, hezkuntzaren xedeak, ikas arlo guztietan uztartzekoak diren hezkuntza konpetentzia orokorrak eta eduki metadiziplinarrak proposatzen dira, eta ikas arlo bakoitzaren planteamendu osoa egiten da. Curriculumaren osagai horiek ere baliagarriak direnez Euskal Curriculum espezifikorako, ez ditugu hemen errepikatuko. Ohar hori kontuan hartzea garrantzizkoa da Euskal Curriculum espezifikoa, Euskal Curriculum osoaren barnean kokatzeko.

Euskal Curriculum osorako eta espezifikorako hautatzen diren ikas arloak berdinak dira, baina ikas arlo horien artean badira berariazko euskal kulturarekin harreman gehiago ala gutxiago dutenak eta horrek aldaketa batzuk egitea eskatzen du.

Euskal Curriculum osoa	Euskal Curriculum espezifikoa
1.- Hizkuntzak eta Literatura	1.- Euskara eta Literatura
2.- Matematikak	Euskal kulturaren badaude espazioa eta denbora neurtzeko eta zenbatzeko elementu espezifikoa, baina ez ditugu oinarritzotzat hartu.
3.- Teknologia	2.- Teknologia
4.- Musika eta Dantza	3.- Musika eta Dantza
5.- Plastika eta Ikus adierazpena	4.- Plastika eta Ikus adierazpena
6.- Gorputz Hezkuntza	5.- Gorputz Hezkuntza
7.- Gizarte Zientziak	6.- Gizarte Zientziak
8.- Mundu ikuskerak eta Erligioak	Ikas arlo honen edukiak Gizarte Zientzietan uztartu ditugu
9.- Natur eta Osasun Zientziak	7.- Natur eta Osasun Zientziak
10.- Tutoretza eta Orientazioa	Ez dugu harremanik ikusten ikas arlo honen eta berariazko euskal kulturaren artean.



Euskal Curriculum espezifikoaren diseinua eta Euskal Curriculum osoarena berdinak dira.<sup>8</sup>



Hala ere, ikas arloen barne egituran badaude aldeak. Adibidez,

	<b>Euskal Curriculum osoa</b>	<b>Euskal Curriculum espezifikoa</b>
<b>Sarrera</b>	Hezkuntza kompetentzia orokorrak lortzeko arloak egiten duen ekarpena deskribatzen da	Arloak euskal kulturarekin duen lotura deskribatzen da.
<b>Arloko kompetentzia orokorrak</b>	Arlo jakin batean lan egiteko hautatzen diren eta ebaluaziorako erreferentzia izango diren kompetentziak modu sintetikoan deskribatzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Euskal Curriculum osoaren eta espezifikoaren arteko lotura hobeto ikusteko, ez da aldaketarik egin.
<b>Ikaskuntzako edukiak</b>	Ikaskuntzako edukiak multzotan aurkezten dira, eta multzoak jarrerazko, kontzeptuzko eta prozedurazko edukietan antolatzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Bi multzotan aurkezten dira: multzo batean kontzeptuak eta bestean prozedurak eta jarrerak.
<b>Arloko kompetentzia espezifikoak eta irizpideak</b>	Arloko kompetentzia espezifiko bakoitza arloko kompetentzia orokorrekin eta eduki multzoekin lotzen da, eta ebaluaziorako erreferentzia zehaztu egiten du. Arloko kompetentzia espezifiko guztiak (curriculum unibertsala eta espezifikoa) azaltzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Euskal Curriculum espezifikoarekin zer ikusia dutenak soilik azaltzen dira.

<sup>8</sup> Ikus, "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum, 22-24 or.



<b>Ebaluazio irizpideak</b>	Arloko kompetentzia espezifiko bakoitzarentzat beharrezko irizten diren adina ebaluazio irizpide definitzen dira. Curriculum espezifikoarekin lotura duena kurtsibaz azaltzen da.	Arloko kompetentzia espezifiko bakoitzarentzat beharrezko irizten diren adina ebaluazio irizpide definitzen dira.
-----------------------------	---	---

Ikas arloen barne eraketa funtsean berdina da, baina antolatzeke eran badaude aldeak. Euskal Curriculum espezifikoaren diseinuan, arloko kompetentzia espezifiko bakoitzaren inguruan, kompetentzia hori ebaluatzeko irizpideak eta ikaskuntzako edukiak batera azaltzen dira. Era honetan, kompetentzia espezifiko, ebaluazio irizpide eta ikaskuntza edukien arteko lotura argiago ikusten da.

Sarrera	
Arloko kompetentzia orokorrak	

Euskal Curriculum Espezifikoa	
Arloko kompetentzia espezifikoa 1	Ebaluazio irizpideak
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak

Arloko kompetentzia espezifikoa 2	Ebaluazio irizpideak
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak

Arloko kompetentzia espezifikoa N	Ebaluazio irizpideak
Kontzeptuak	Prozedurak eta jarrerak

## 6.- INFORMAZIOA, BALIOZTAPENA ETA ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA ETA EPEAK

- Sektore bakoitzeko eragileen esku (ikastolak, kristau eskolak, administrazioen eskolak) geratzen da txosten honetan jasotzen den Euskal Curriculum espezifikoa dagoen horretan onar dezaten ala bakoitzaren ezaugarrien arabera osatu, moldatu edota mugatu dezaten.
- Proposamenaren informazioa, kontrastea eta baliospen prozesua sektore bakoitzak bere esparruan era autonomoan egingo du, baina prozedura berdina jarraituz eta ahalik eta era adostu eta bateratuenean.
- Prozesua lau fasetan gauzatuko da: a) Zuzendaritza teknikoak aurkezten duen proposamenaren onarpena eragileen aldetik jaso; b) Informazioa eskoletan zabaltzeko eta inkestak erantzunak jaso 2008ko irailaren amaierarako (ikus inkesta eredua); c) Inkestetako erantzunak analizatu eta hobekuntza proposamenak txertatu; d) Erabateko proposamena banatu eta erabakia, "Ikastola: orain eta gero" txosteneko beste erabakiekin batera hartuko dira 2008.eko abendua amaitu aurretik.



- Prozesu horren jarraipena eta koordinazioa zuzendaritza teknikoko kideen bidez egingo da.
- Sektore bakoitzean hartzen diren erabakiak, sektore hori osatzen duten ikastetxe bakoitzak bere egingo du. Erabakiaren bermea eta bideratzeko ardura sektore bakoitzeko eragileak hartzen du.
- Sektore bakoitzak bere erabakiak hartuko ditu, baina hartzen den erabakia hartzen dela, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko da. Hartutako erabakien aplikazioa ebaluatzeko, sektore guztien arteko jarraipen batzorde bat izendatuko da.
- Sektore bakoitzeko eragileek konpromisoa hartuko dute beraien sareko ikastetxeak laguntzeko eta beharrezkoak diren baliabideak eskaintzeko (irakasleen prestakuntza, ikas materialak, ebaluazioa...). Eta, hala nahi bada, sektore desberdinen arteko koordinazio bideak gauzatuko dira.
- Prozesu honen amaieran agerpen publikoa egingo dute sektore guztiek batera (kristau eskolak, ikastolak eta administrazioen eskolak) Euskal Curriculum Espezifikoari buruz zer dugun eta zer eduki nahi dugun elkarrekin eta hori aurrera eramateko hartzen ditugun konpromisoak adierazteko.



## **II.- IKASTOLEN KOLEKTIBOAREN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNAREN ARDATZAK**





Ikastolen kolektiboaren oinarrizko curriculum komuna lau ardatzen inguruan egituratzea proposatzen dugu:

- 1.- Oinarrizko curriculumaren printzipioak
- 2.- Oinarrizko hezkuntzaren xedeak
- 3.- Oinarrizko kompetentziak eta hezkuntza kompetentzia orokorrak
- 4.- Hizkuntza plangintza

## **1.- IKASTOLA TALDEAREN OINARRIZKO CURRICULUM KOMUNAREN PRINTZIPIOAK**

Kontuan hartzen baditugu Ikastolen I. Kongresuan (1990) onartu ziren oinarrizko osagaiak, geroago (1996) III. Kongresuan erakundearen hezkuntza-helburu bezala formulatu zirenak, eta begiratzen badiegu 2006an ebaluatu zen “Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curricula” proposamenari, eta prospektibaren ikuspegitik kokatzen baditugu gaurtik 2020 urteraino, ondorengo zutabeetan sostengatzen da ikastolen oinarrizko curriculum komuna:

### **1.1.- Hezkuntza giza-eskubideen eta oinarrizko askatasunen sustatzaile**

Ikastolak bat egiten dute Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko (1948) 26. artikularekin, non pertsona orok oinarrizko ikasketak dohan egiteko duen hezkuntza-eskubidea aldarrikatzen den; bat egiten du hezkuntzaren giza nortasuna guztiz garatzeko eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzeko hezkuntza xedearekin; eta gurasoek lehentasunezko eskubidea dutela seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko eskubidearekin.

### **1.2.- Guztiontzako eskola barnehartzailea**

Ikastolak, egungo eta are gehiago etorkizuneko euskal gizartea kultur askotariko eta anitza dela eta izango dela aurre ikusiz, guztiontzako eskola inklusiboaren alde egiten dute, Euskal Herriko pentsaera eta jokaera sozial, politiko, erlijioso ezberdinak integratuz eta orekatuz, hau da maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako pertsonen irekia, aukera-berdintasuna bermatzen duena, bere ikasleek Europan txertatuta eta munduarekin lotuta dagoen euskal gizarte kohesionatua batean bizitzen ikas dezaten.

### **1.3.- Pertsonaren eta gizartearen eredia**

- Hezkuntza prozesuaren xedea, gizabanako, gizartekide eta izadikide gisa banaezinak diren pertsonaren dimentsioak, ahalik eta garapen-maila handiena eta orekatuena erdiestea da. Ikuspegi horretan oinarrituz, hezkuntzaren xedearen eta era berean bizitzaren arrakastaren lorpena ezagutzeko parametroak, pertsonak gizabanako gisa lortu di-



tuen gaitasunen garapen-maila da batetik, gizartearen bizikidetzak baldintzak eta gizartearen jarraipenaren eta garapen-maila hobetzeko egindako ekarpenak, bestetik, eta izadiaren zaintza eta iraunkortasun jasangarriaren alde egindako ekarpenak, azkenik.

-Bizitza osorako hezkuntzaren ikuspegi integral hori erdiesteko asmoz, ikastolek, “Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumean” proposatzen diren Hezkuntza konpetentzia orokorrak (ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasti eta egiten eta ekiten ikasi) sustatuko dituzte. Hezkuntza konpetentzia orokor horiek ikas arloetan eta, oro har, bizitzako egoera guztietan uzartuz, Europako Parlamentuak gomendatzen dituen, pertsona guztiek beren asebetetze eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratua egoteko eta enplegurako behar dituzten oinarrizko konpetentziak lortzera bideratuko dute Hezkuntza Proiektua.

-Ikastola bakoitzak oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu, pertsonaren garapen osoa besarkatuz, beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan-mundurako sarbideak prestatuz, eragile ekintzaileak eta profesionalak, ekonomikoak eta sozialak izateko prestatuz, bere bizitza zentzuz bideratzeko prestatuz, eta bere etorkizuna arduraz hautatzeko prestatuz.

-Ikastolak, hezkuntzaren ikuspegi integralaren barnean ondo kokatuz, berrikuntzaren eragile indartsu diren zientziaren eta teknologiaren ezagutzari eta erabilerari eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiei garrantzi berezia emango diote.

#### **1.4.- Euskal Eskola**

-Komunitate guztien, herri guztien eginkizuna eta eskubidea da bere kulturaren dimentsio guztiak babestu, bizi, berregin eta garatzea, eta kultura korretako kideei transmititzea familiarren, eskolaren eta gainerako komunikazio moduen bidez. Ikastolen mugimenduaren sorrera eta ezaugarriak, euskara eta euskal kultura transmititzeko, garatzeko eta bultzatzeko konpromisoan oinarritzen da, beti ere irekita hurbileko eta hurruneko kulturetara.

-Ikastola bakoitzak euskararen eta euskal kulturaren inguruan batzen den identitate euskalduna proposatzen du, eta hizkuntzen eta kulturen arteko planteamendu integratzailea sustatzen, hizkuntzen eta kulturen arteko konpetentziak osagarritzat hartuz.

-Ikastola bakoitzak euskararen herrizat hartzen du **Euskal Herria**. Herri honek, era askotako ekarpenekin, bere historia eraiki du eta eraikitzen jarraitzen du Pirionetako bi



isurialdeetan, eta mugarik gabeko espazio unibertsalera irekita ditu ateak, aldaketa etengabeen dauden hizkuntza- eta kultura-ezaugarri berezi batzuk oinarri hartuta.

-Gainera, bere heziketa-lana garatzeko orduan, ikastola bakoitzak Euskaltzaindiak bezalaxe erabiltzen du **Euskal Herria** izena (2003), “Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoak osatzen duten multzoa”

### Proposamena:

Ikastola guztientzat proposatzen den Oinarrizko curriculum komunaren printzipioak baliagarriak dira gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko.

## 2.- OINARRIZKO HEZKUNTZAREN XEDEAK

Ikastola bakoitzak ahalik eta giza garapen handiena lortzen laguntzen die bere ikasleei.

**Norbanako** gisa, hau da, ikasle bakoitzak bere biografia besteekin batera eraikitzen duen subjektu autonomo gisa ikusi behar du bere burua.

**Gizartekide** gisa, hau da, ikasle bakoitzak bere burua euskaldun gisa ikusi behar du kultura arteko mundu batean.

**Naturakide** gisa, hau da, ikasle bakoitzak izaki bizi eta giza espezieko kide bezala ikusi behar du bere burua, kosmosaren eta lurraren barruan.



Hau da Euskal Curriculumean bizitza osorako proposatzen den hezkuntzaren xedea:

“Norberaren, gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide eta izadikide gisa ahalik gaitasun gehien gara dezaten”.



Oinarrizko hezkuntza bizitza osorako guztiontzako eta derrigorrezkoa den hezkuntza etapa da, eta pertsonaren garapen osoa lortzeko asmoz, hauek dira bere xedeak:

- a) Ikasleak helduarorako prestatzea, bai eta bizitza asebetea izateko prestatzea ere, gizabanako gisa, gizarteko herritar aktibo gisa eta natura zaintzearekin eta garapen iraunkorarekin arduratzen den pertsona gisa.
- b) Ikasleek euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarrizko elementuak ikas ditzaten lortzea eta geroko ikasketak egiteko eta lanean txertatzeko beharrezko bermeekin prestatzea.
- c) Bizi osoan etengabeko ikaskuntza garatzeko gai izateko ikasleak sentsibilizatzea eta gaitzea

**Proposamena:**

Ikastola guztientzat proposatzen diren Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak baliagarriak dira gure ikastolarentzat ere eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan jasotzeko.

**3.- OINARRIZKO KONPETENTZIAK ETA HEZKUNTZA-KONPETENTZIA OROKORRAK**


Europako Parlamentuak eta Kontseiluak (2006) etengabeko ikaskuntza eta prestakuntza bideratzeko asmoz zortzi oinarrizko kompetentzia edo kompetentzia-gako gomendatzen ditu. Espainiako LOE (2005) eta Frantziako Loi d'Orientation (2005) legeak Europako Parlamentuaren gomendioarekin bat datoz oinarrian.

Europar Batasuna	Espainia/LOE	Frantzia/Socle commun
1.- Ama-hizkuntzan komunikatzea 2.- Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea	1.- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia	1.- Frantsesa menderatzea 2.- Atzerriko hizkuntza bat praktikatzea
3.- Matematikarako kompetentzia eta zientzietarako eta teknologiarako oinarrizko kompetentzia	2.- Matematikarako kompetentzia 3.- Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin interakzioan aritzeko kompetentzia	3.- Oinarrizko kompetentziak matematikan eta kultura zientifikoan eta teknologikoan
4.- Kompetentzia digitala	4.- Informazioa lantzea eta kompetentzia digitala	4.- Informazioaren eta komunikazioaren ohiko teknikak menderatzea
5.- Ikasten ikastea	7.- Ikasten ikasteko kompetentzia	
6.- Pertsonarteko kompetentziak eta herritar kompetentzia	5.- Gizarte-kompetentzia eta herritar kompetentzia	6.- Gizarte-kompetentzia eta herritar kompetentzia
7.- Iniziatiba eta izaera ekintzailea	8.- Autonomia eta iniziatiba soziala	7.- Autonomia eta iniziatiba
8.- Kontzientzia eta adierazpen kulturala	6.- Kulturarako eta arterako kompetentzia	5.- Kultura humanistikoa



Oinarrizko Konpetentzia horien artean, horietako batzuek zeharkako izaera handiago dute eta ez daude ikas arlo jakin batekin uztartuta denekin baizik: konpetentzia digitala, ikasten ikastea, inizatiba eta izaera ekintzailea, pertsonarteko konpetentziak eta herritar konpetentziak eta bere neurrian hizkuntzarako eta komunikaziorako konpetentziak. Konpetentzia horiei “orokorrak edota metadiziplinarrak” deitzen zaie. Beste batzuk, gehiago lotzen zaizkie curriculumeko arloei edo ikasgai jakin batzuei: Matematikarako konpetentzia eta zientzietarako eta teknologiarako oinarrizko konpetentzia, Kulturarako eta arterako konpetentzia. Konpetentzia horiei “espezifikoak” deitzen zaie Oinarrizko konpetentzia guztiak garrantzitsuak eta beharrezkoak dira bizitzarako, baina ez dira era berean ikasten eta barneratzen. Zeharkako oinarrizko konpetentziak lortuko dira baldin eta ikas arlo guztietan uztartzen badira. Oinarrizko konpetentzia espezifikoak aldiz, ikas-arloaren bidez lortzen dira. Batzuk eta besteak bereiztea komeni da OCDEko DeSeCo/PISA, Unibertsitateko Tuning eta Euskal Curriculumean egiten den antzera.

“Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum”ren egitasmoan, Ikastoletan oso ondo baloratu diren ondorengo Hezkuntza Konpetentzia Orokorrak proposatzen dira:




<b>1.- Pentsatzen eta ikasten ikasi:</b>	1.1.- Informazioaren interpretazioa: ulermenean oinarritutako pentsamendua. 1.2.- Informazioa sortzea: pentsamendu sortzailea 1.3.- Informazioaren ebaluazioa: pentsamendu kritikoa 1.4.- Erabakiak hartzea 1.5.- Arazoak konpontzea 1.6.- Baliabide kognitiboaren erabilera
<b>2.- Komunikatzen ikasi:</b>	2.1.- Ahozko hizkuntza



	2.2.- Hizkuntza idatzia 2.3.- Beste hizkuntza batzuk 2.4.- Gizarte komunikabideen baliabideak 2.5.- Informazio eta Komunikazio Teknologiak 2.6.- Kontzientzia sozio-komunikatiboa
<b>3.- Elkarrekin bizitzen ikasi:</b>	3.1.- Pertsonarteko harremana 3.2.- Gatazkak konpondu 3.3.- Parte hartze demokratikoa 3.4.- Elkarlana eta talde lana 3.5.- Aniztasuna (generoa eta kultur aniztasuna)
<b>4.- Norbera izaten ikasi:</b>	4.1.- Gorpuztasuna 4.2.- Norberaren kontrola eta oreka emozionala 4.3.- Nork bere buruaren estimua 4.4.- Autonomia 4.6.- Sentsibiltate estetikoak 4.6.- Integrazio pertsonala
<b>5.- Egiten eta ekiten ikasi:</b>	5.1.- Analisia: informazioa hartzea eta gordetzea 5.2.- Sormena: ideia berriak eta konponbideak lantzea 5.3.- Berrikuntza: ideiak gauzatzeko 5.4.- Ebaluazioa 5.5.- Ekite prozesuaren aplikazioak

Euskal Curriculumean proposatzen diren bost Hezkuntza kompetentzia orokor hauek J. Delorsen zuzendaritzapean UNESCOri egindako txostenean oinarritzen dira eta ondo uztartzen dira aipatu ditugun OCDEko DeSeCo/PISA, Unibertsitateko Tuning eta Europako Parlamentuaren bidetik proposatzen diren oinarrizko kompetentziekin.

Bost Oinarrizko hezkuntza kompetentzia orokor horien bidez, irudian azaltzen den modura, hezkuntzaren xedeak lortzeko bidea egiten da eta, era berean, kompetentzia orokor horiek, prozedura eta jarrera metadiziplinarretan gauzatu, ikas arloetan uztartzen diren neurrian, Europar Batasunak gomendatzen dituen eta Espainiak eta Frantziak ezartzen dituzten zortzi oinarrizko kompetentziak lortzeko bidea egiten da.





## Proposamena:

Europako Parlamentuak eta Espaniako LOEk eta Frantziako Loi d'Orientation-ek proposatzen dituzten Oinarrizko konpetentziak eta Euskal Curriculumean proposatzen diren Hezkuntza konpetentzia orokorrak baliagarriak dira gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko.

## 4.- HIZKUNTZA PLANGINTZA

### Hautatutako hizkuntzari buruzko ikuspegia

Hizkuntzak konpetentzia orokorrak garatzeko duen garrantzia ikusita, arloaren helburua ikasleei hizkuntzak behar bezala erabiltzen erakustea da, gizarte bizitzaren eta bizitza pertsonalaren alor guztietan. Helburu horrek finkatu egiten du curriculumean jasotzen den hizkuntzari buruzko ikuspegia: hizkuntza hautazko zeinuz osatutako sistema da gizakiek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dute. Hizkuntza sistema bat dela esatean, hizkuntzen ikuspegi estrukturala azpimarratzen da; izan ere, hizkuntzen baitako osagaiak balioa eta esanahia izango dute baldin eta elkarren artean lotzen badira eta osotasunari buruzko erreferentzia egiten badute. Hala ere, sistema horien baitako osagaiak erabilpen zehatzen inguruan egituratzen dira, eta erabiltzen direnean dute esanahia. Sistema eta komunikazioa erabat lotuta daude, hizkuntzaren egitura diskurtsoan eguneratzen da eta horregatik, curriculum diseinu honen oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboa da.

Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumak hezkuntza konpetentzia orokorren arabera diseinatzen bada, hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboarekin lotzen da eta horrek ondorio zuzenak dakartza berekin, bai konpetentzien formulazioan, baita edukien aukeraketan. Arloaren helburua ikasleek duten komunikatzeko konpetentzien garapena izanik (komunikazioaren eta ekoizpenaren prozesu bikoitzean), konpetentzien eta edukien oinarria hizkuntzaren erabilpenaren ikaskuntza izango da, ezaguera eta esperientzia iruditatzeko. Ondorioz, eduki nagusiak testuen generoak izango dira, horietan gauzatzen baitira edozein eremutako gizarte erabilpenak. Halaber, hizkuntzaren sistema aztertzeko (testuinguru mailan, testu mailan, esaldien eta hitzen mailan) erabilpen horien hausnarketan oinarritu beharko da, baita horietatik sortutako testuekin egindako lanean ere.

Egungo gizartean geroz eta garrantzitsuagoak dira komunikabideak (irratia, prentsa, telebista...) eta gero eta gehiago erabiltzen dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT): horrelako gizarte batean berebizikoa da behar bezala komunikatzeko gaitasuna izatea eta, horregatik, Hizuntzak eta Literatur Arloak kontuan hartu beharko du teknologia horiek ondo erabiltzeko behar diren konpetentzien garapena ere



### **Eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta**

XXI. mendeko gizartea eleanitza da. Egungo gizartean, globalizazioaren mendean, komunikazio baliabideak gorantz doaz, bai eta pertsonen eta nazioarteko harremanen mugikortasuna ere. Gizarte eredu horretan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea –euskara– hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunen etorkizuna eleanitza da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan baina, horrekin batera, euskaldunek beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dute. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezela lortzea.

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalizazioarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko gai izan beharko dute. Azkenik, Estatuaren arteko mugaren bi aldetara dauden bi lurraldeen kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuaren hizkuntza nagusiari buruzko funtsezko ezaguerak izatea. Ikastolek hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko dute eta, ondorioz, ikaskuntza prozesua bideratu beharko da helburu hori ziurtatu ahal izateko.

### **Curriculum integratua**

Hizkuntza bakoitza ez da bere aldetik garatzen, beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Bada konpetentzia linguistiko orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Konpetentzia orokor horren sustapena funtsezkoa da konpetentzia eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko. Hala dio Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuak:

*“Ikuspegi horretatik, hizkuntz hezkuntzaren helburua erabat aldatzen da. Helburua ez da elkarrekin zerikusirik ez duten bizpahiru hizkuntza ikastea, jatorrizko hiztunen ereduari jarraituz. Aitzitik, helburua oinarritzko hizkuntza bilduma bat sortzea da, bertan hizkuntz konpetentzi guztiak agertuko direlarik”*






Alde horretatik, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruak esandakoaren arabera, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu euskararen, dagokion harremanetarako hizkuntzaren eta nazioarte mailako hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne hartzen dituen *curriculum integratuaren* diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntz alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoaren aplikazioa ere, beste hizkuntza batzuetan.

Ondorioz, arloaren konpetentzia orokorren eta blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Berariazko konpetentziak definitzean eta , bereziki, horiek ebaluazio irizpideen bidez definitzen direnean –betiere deskripzio esparru komuna erabiliz- hizkuntza bakoitzaren lorpen maila zehaztuko da.

Hizkuntzak mailakatzeko proposamena egiteko orduan, aipatutako Europako Hizkuntzen Erreferentzia Bateratuen Esparruan oinarritu gara. Nahitaezkoa izango da euskara eta harremanetarako hizkuntza (gaztelania edo frantsesa, kasuaren arabera) ondo menderatzea (bere kasako erabiltzailea B2 maila Europako Erreferentzia Esparruan); bestalde, hirugarren hizkuntzaren maila txikiagoa eskatuko da (bere kasako erabiltzailearen maila apalagoa: B1 maila) eta, azkenik, oinarrizko maila eskatuko da (oinarrizko erabiltzailea: A2 maila), Euskal Herriko harremanetarako beste hizkuntzan.



### Proposamena:

Ikastola guztientzat proposatzen den Hizkuntza plangintza baliagarria da gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko.



## **III. IKAS ARLOAK**

- 1. Hizkuntzak eta Literatura**
- 2. Teknologia**
- 3. Musika eta dantza**
- 4. Plastika eta Ikus adierazpena**
- 5. Gorputz heziketa**
- 6. Gizarte Zientziak**
- 7. Natur eta Osasun Zientziak**



## **1.- HIZKUNTZAK ETA LITERATURA**



## SARRERA

Hizkuntzak eta Literatura arloak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren konpetentzia guzti-guztiak lortzeko orduan; izan ere, hizkuntza da giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan. Hizkuntza da gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Arloaren diseinua konpetentzia orkorren garapenari egin beharreko ekarpenen arabera eginez gero, beharrezkoa zaigu hizkuntza irakaskuntzaren ikuspegi instrumentala oinarri hartzea: arloaren helburua ikasleak prestatzea da, inguruan dituzten hizkuntzak modu eraginkorrean erabiltzeko gai izan daitezen, bizitza pertsonalaren eta sozialaren esparru guztietan.

### ***Pentsatzen eta ikasten ikasi.***

Hizkuntza da garapen kognitiborako tresna nagusia, horri esker adimena egituratu eta errealitatea barneratzen dugulako. Informazioa interpretatzeko, sortzeko, ebaluatzeko edo komunikatzeko prozesu kognitiboak ahozko hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren bidez gauzatzen dira, gehien bat; beraz, konpetentzia kognitibo-linguistikoak funtsezkoak dira adimena eta ezaguera garatzeko eta, ondorioz, emaitza akademiko onak lortzeko. Arlo guztiek dute erantzukizuna konpetentzia horien garapenean; hala ere, hizkuntz arloa da eremurik pribilegiatuena konpetentzia horien baitako prozesuak erreflexiboki eta kontzienteki ikasteko. Beraz, eremu akademikoaren baitako diskurtso motek berebiziko eginkizuna izango dute arloaren curriculum diseinuan.

### ***Komunikatzen ikasi.***

Hizkuntzak eta Literatura arloa funtsezkoa da konpetentzia orokor hori garatzeko; izan ere, arlo horren helburu nagusia ikasleen komunikazio konpetentzia garatzea da, edozein gizarte eremutako ahozko mezuak eta mezu idatziak ulertzeko eta sortzeko gai izan daitezen. Hizkuntz ekintzetara gerturatzeko, gizartean gertatzen diren askotariko komunikazio erabileretan oinarrituko gara, eta masa komunikabideen hedapenaren ondorioz sortu diren komunikabide berrien erabilpena eta multimedia euskarri digital berrien erabilpena kontuan hartuko dugu, horiek hainbat hizkuntza mota integratzen baitituzte mezuak sortzeko. Beraz, ikuspegi integratu hori oinarri hartuta, arlo horrek bestelako hizkuntzen ulermena eta ekoizpena ere aztertuko du (paralinguistikoak, ikus entzunezkoak, ikonikoak, keinu bidezkoak, grafikoak, musikalak, etab.), ahozko hizkuntzarekin batera.



### ***Elkarrekin bizitzen ikasi.***

Hizkuntzak, bere dimentsio bikoitza kontuan harturik –pertsonek arteko komunikabidea eta mundua irudikatzeko tresna da, aldi berean–, berebiziko eginkizuna du ikasleen gizarteratze prozesuan. Komunikazioaren bidez, ikasleek ikasi egiten dute beste pertsonen nola pentsatzen duten eta errealitatea nola ulertzen duten; horrekin batera, gizartearen funtzionamenduari buruzko hainbat gauza ere ikasten dituzte: arauak, ohiturak, baloreak, etab. eta, beraz, zeinuek gordetzen dituzten kultur esanahiak ere bai. Pentsamendua eta ekintzak bideratzen ikasten dute, gizarte inguruaz jabetzen eta besteekiko komunikazio trukea ahalbidetzen duten elkarlan moduak gauzatzen; prozesu horretan, ezaguera komuna eraikitzen dute. Ondorioz, konpetentzia orokor hori garatu ahal izateko, funtsezkoa da informazioarekin, argumentuekin eta arauarekin lotutako diskurtsoak menderatzea –erakundeekiko nahiz jendarteko harremanen eremuetan ageri dira– eta elkarriketatzeko eta eztabaidatzeko konpetentziekin lotutako komunikazio konpetentzia orokorrak ezagutzea –jarrerak barne hartzen dituztenak: errespetua, bazterkeria ez onartzea, dibertsitatea baloratzea...–. Alde horretatik, ahozko komunikazioak garrantzi handia hartzen du arloaren curriculumean.

Bestalde, egungo gizarteetan, mundu fisikoa eta soziokulturala ulertzeko modua bideratzen duten informazioen atal nagusi bat masa komunikabideetatik eta publizitatetik dator. Beraz, gizartean kritikoki eta arduraz parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da haien kodeak eta generoak ezagutzea, baita komunikabide horien askotariko erabilera linguistikoak ere, horiekiko jarrera kritikoa garatu ahal izateko. Hori dela eta, hizkuntz arloaren bidez, ikasleek horiek guztiak erreflexiboki eta kontzienteki ezagutzen dituztela ziurtatuko da.

Halaber, eleaniztasuna –hau da, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeko gaitasuna– ezinbesteko baldintza bihurtu da egungo gizartean parte hartu ahal izateko: izan ere, eleaniztasunak erraztu egiten du egun hain hedatuta dagoen nazioarteko komunikazioa; gainera, kanpoko informazioa jasotzeko bide bat da, baita pertsonak elkar ezagutzeko bidea eta ideiak trukatzeko eta elkar ulertzeko bidea ere. Hizkuntzak eta Literatura arloak erantzun egin behar dio behar horri, egungo euskal gizartearen baitako eleaniztasun testuinguruan behar bezala parte hartzeko beharrezkoak diren hizkuntzen garapen integratua eta osagarria bermatzeko.

### ***Norbera izaten ikasi***

Hizkuntzak barruko prozesu emozionalak eta arrazionalak erregulatzeko tresna pribilegiatuak dira, baita norberaren nortasuna garatzeko beharrezkoa den komunikazioa trukatzeko ere. Hizkuntza behar bezala erabiltzen ikasteko, beharrezkoa da hainbat



konpetentzia izatea: nor bere burua kontrolatzea, oreka emozionala, autoestimua, autonomia... eta horiek guztiak konpetentzia orokor horren baitan daude.

Bestalde, arlo horrek lagundu egiten du nortasuna garatzen, literaturaren bidez. Nor bere burua hizkuntza eta kultura berbera duen giza talde bateko kideztat hartzea lagungarria da nortasuna finkatzeko, eta literaturak, gizartea eta kultura adierazteko bidea den aldetik, funtsezko eginkizuna du kultur eraikuntza horretan. Bestalde, literaturak gizakien gai unibertsalak irudikatzen ditu, denboraz eta berariazko kulturez haraindi dauden gaiak, hain zuzen. Horri esker, pertsona bakoitzak bere arazoak eta hausnarketak hurbileko edo urruneko pertsonen arazoekin eta hausnarketekin aldera ditzake, horiengandik ikasiz eta nor bere ondorioak atereaz. Azkenik, hizkuntzek dimentsio ludiko-estetikoa dute literatur arloan, eta hori funtsezkoa da sormena eta sentsibilitate estetikoa garatzeko. Hori guztia dela eta, arloaren planteamendua egiteko orduan, literaturaren eginkizuna sendotu nahi izan dugu, ikuspegi bikoitzetik: komunikatzeko modu desberdin modura eta kultur gertaera modura.

### ***Egiten eta ekiten ikasi.***

Hizkuntzak ikastea hizkuntzarekin “gauzak egitea” eskatzen du eta, alde horretatik, ekiteko gune bat da. “Gauzak egiteak” testuak ulertzeko eta sortzeko prozesu konplexuak dakartza berekin, eta hainbat fase bereiz daitezke: planifikatzea, egitea eta ebaluatzea. Fase horietan ekiteko prozesuaren faseak islatzen dira.



## ARLO OSOAREN IKUSPEGIA:

### 1. Hautatutako hizkuntzari buruzko ikuspegia

Aurretik azaldu dugunez, hizkuntzak konpetentzia orokorrak garatzeko duen garrantzia ikusita, arloaren helburua ikasleei hizkuntzak behar bezala erabiltzen erakustea da, gizarte bizitzaren eta bizitza pertsonalaren alor guztietan. Helburu horrek finkatu egiten du curriculumean jasotzen den hizkuntzari buruzko ikuspegia: hizkuntza hautazko zeinuz osatutako sistema da gizakiek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen dutena. Hizkuntza sistema bat dela esatean, hizkuntzen ikuspegi estrukturala azpimarratzen da; izan ere, hizkuntzen baitako osagaiak balioa eta esanahia izango dute baldin eta elkarren artean lotzen badira eta osotasunari buruzko erreferentzia egiten badute. Hala ere, sistema horien baitako osagaiak erabilpen zehatzen inguruan egituratzen dira, eta erabiltzen direnean hartzen dute esanahia. Sistema eta komunikazioa erabat lotuta daude, hizkuntzaren egitura diskurtsoan eguneratzen da eta beraz, diskurtsoa da irakaskuntzaren langai nagusia. Horregatik, curriculum diseinu honen oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboa da.

Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculumak hezkuntza konpetentzia orokorren arabera diseinatzeak, eta ondorioz, hizkuntza ikuspegi diskurtsiboarekin lotzeak ondorio zuzenak dakartza berekin, bai konpetentzien formulazioan, baita edukien aukeraketan edo eta hautu metodologikoan ere. Arloaren helburua ulertzeko eta adierazteko tresna den hizkuntza menperatzea da, komunikabide eraginkorra izan dadin bai eta tresna egokia pentsamendua eta apendizaiak garatzeko, zein inguru sozial eta kulturalaren ikuspegi aberatsa jasotzeko. Aldi berean, irakurzaletasuna garatu (literatur testuena bereziki) eta oinarrizko literatur kultura eraiki beharko dute ikasleek.

### 2. Eleaniztasuna, euskara ardatz hartuta

XXI. mendeko gizartea eleanitza da. Egungo gizartean, globalizazioaren mendean, komunikazio baliabideak gorantz doaz, bai eta pertsonen eta nazioarteko harremanen mugikortasuna ere. Gizarte eredu horretan ezinezkoa da hizkuntza gutxitu bati eustea eta suspertzea –euskara– hizkuntza hori gizarteko hizkuntza bakartzat hartzen bada. Euskaldunen etorkizuna eleanitza da. Euskarak iraun ahal izateko, hizkuntza horrek nagusi izan behar du bere hizkuntz eremuan baina, horrekin batera, euskaldunek beste hizkuntza batzuk hitz egiteko gai izan behar dute. Bestela, euskara bera arriskuan egongo litzateke. Ondorioz, helburu nagusia bi osagaiak elkartzea da: batetik, euskarak bere hizkuntz



eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, euskaldunak beste hizkuntzak hitz egiteko gai izan daitezela lortzea.

Beharrezkoa izango da Euskal Herrian bizi direnek euskararen normalizazioarekiko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusitzat hartzea. Gainera, hizkuntza sakonki ezagutu eta behar bezala erabiltzen jakin beharko dute. Horrekin batera, nazioarteko komunikazioaren baitako hizkuntza nagusietako bat menderatzeko gai izan beharko dute. Azkenik, Estatuen arteko mugaren bi aldetara dauden bi elkarten kultur batasuna lortzeko, beharrezkoa izango da herritarrek beste Estatuko hizkuntza nagusiari buruzko funtsezko ezaguerak izatea. Eskola sistemak hizkuntza horiek guztiak erabiltzeko eta ikasteko aukera bermatu beharko du eta, ondorioz, ikaskuntza prozesua arautu egin beharko da helburu hori ziurtatu ahal izateko.

### 3. Curriculum integratua

Hizkuntza bakoitza ez da bere aldetik garatzen, beste hizkuntzekin inolako harremanik gabe; aitzitik, hizkuntza bakoitza modu integratuan garatzen da. Bada konpetentzia linguistiko orokor bat, hizkuntzen arteko konparaketa, kontrastea eta horien arteko etengabeko elkarrekintza kudeatzen duena. Konpetentzia orokor horren sustapena funtsezkoa da konpetentzia eleaniztun integratua eta orekatua sortu ahal izateko. Hala dio *Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuak*<sup>9</sup>:

*“Ikuspegi horretatik, hizkuntz hezkuntzaren helburua erabat aldatzen da. Helburua ez da elkarrekin zerikusirik ez duten bizpahiru hizkuntza ikastea, jatorrizko hiztunen ereduari jarraituz. Aitzitik, helburua oinarrizko hizkuntza bilduma bat sortzea da, bertan hizkuntz konpetentzi guztiak agertuko direlarik”*

Alde horretatik, **Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuak** esandakoaren arabera, curriculum proposamen bakar batean bildu dugu euskararen, dagokion ukipen-hizkuntzaren eta nazioarte mailako hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza, ikasi beharreko hizkuntza guztiak barne hartzen dituen *curriculum integratuaren* diseinuaren bidez. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko

<sup>9</sup> Europako Batzordeak egindako dokumentua. Dokumentu horren euskarazko bertsioa HABEK argitaratu du. Erreferentzi marko europar bateratua : hizkuntzen ikaskuntzarako, irakaskuntzarako eta ebaluaziorako (ikusgai web-orrialde honetan: [http://www.habe.org/pdf/erreferentzi\\_markoa.pdf](http://www.habe.org/pdf/erreferentzi_markoa.pdf) ). **Gaztelaniazko bertsioa:** MEC-Anaya : Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación (ikusgai hemen: <http://cvc.cervantes.es/obref/marco/> ) **Bertsio frantsesa:** Editions Didier : Cadre européen commun de référence pour les langues: apprendre, enseigner, évaluer (ikusgai hemen: <http://culture2.coe.int/portfolio/documents/cadrecommun.pdf> ). **Ingeleseko bertsioa:** Cambridge University Press: Common European framework of reference for languages : learning, teaching, assessment. (ikusgai hemen: [http://www.culture2.coe.int/portfolio/documents\\_intro/common\\_framework.html](http://www.culture2.coe.int/portfolio/documents_intro/common_framework.html) )






hizkuntz alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoaren aplikazioa ere, beste hizkuntza batzuetan.

Ondorioz, arloaren konpetentzia orokorren definizioa, metodologia ikuspegia, blokeen definizioa eta oinarrizko edukiak aukeratzeko irizpideak berberak izango dira curriculumaren baitako hizkuntza guztientzat; horrela, horien garapen osagarria bermatuko da. Hizkuntza bakoitzaren edukien deskribapenean, berariazko edukiekin batera, eduki komunen multzoa eskainiko da, hizkuntza guztietan errepikatuko dena ikastetxe bakoitzak hizkuntzen artean bana ditzan bere Hizkuntza Proiektuari erantzunez.

Hizkuntza bakoitzaren lorpen mailari dagokionez, konpetentzia espezifikoak definitzean eta, bereziki, horiek ebaluazio irizpideen bidez definitzen direnean –betiere deskripzio esparru komuna erabiliz– zehaztuko da maila hori.

Hizkuntzak mailakatzeko proposamena egiteko orduan, aipatutako Hizkuntzen erreferentzi marko europar bateratuan oinarritu gara. Nahitaezkoa izango da euskara eta harremanetarako hizkuntza (gaztelania edo frantsesa, kasuaren arabera) ondo menderatzea (bere kasako erabiltzailea B2 maila Europako Erreferentzia Esparruan); bestalde, hirugarren hizkuntzaren maila txikiagoa eskatuko da (bere kasako erabiltzailearen maila apalagoa: B1 maila) eta, azkenik, oinarrizko maila eskatuko da (oinarrizko erabiltzailea: A2 maila), Euskal Herriko ukipeneko beste hizkuntza ofizialean.





#### 4. Metodologia ikuspegia

Arestian esan dugun moduan, Hizkuntzak eta Literatura arloaren curriculuma hezkuntza kompetentzia orokorren arabera diseinatzeak irakaskuntzan ikuspegi diskurtsiboa hartzea eskatzen du; horren bidez, hizkuntzen lanketa komunikaziotik eta erabileratik abiatuz planifika daiteke. Horrek zuzeneko eraginak ditu metodologia erreferentzi jakin batzuk aukeratzeko; metodologia horiek hizkuntzaren esanahi eta funtzio erabilerak eraikitzeaz arduratzen dira, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eraginkortasuna bermatzen dute definitutako komunikazio kompetentziak lortzeko. Ikuspegi horren arabera, ezaugarri hauek oinarritzkoak dira:

- Ikasleentzat esanguratsuak diren *komunikazio proiektuek* bideratutako ikaskuntza prozesua.
- *Testua* komunikazio unitatea da; testua *testu motetatik edo generoetatik* abiatuta lantzen da, eta horiek ikaskuntza espezifikokoak eskatzen dituzte komunikazio egoeren arabera.
- Ikaskuntza *sekuentzia didaktikoetan* egituratzea, jarduerak komunikazio lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatuz eta artikulatuz.
- *Prozedurak* eta *goi mailako estrategia kognitiboen* garapena nagusitzen dira; hizkuntza ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, *hitzeekin gauzak egiten jakitea* garatzea baita helburu nagusia.
- Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean barneratzea. *Gramatika hausnarketaren* abiapuntua landuko den testua da, eta ezin dira bereizi komunikazio ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi beharreko edukia eta horren arabera erabili beharreko hitzak eta moduak.
- Ikasleen artean eta irakaslearen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea, *ikasgela komunikazio testuinguru erreala* bihur dadin, eta bertan *lankidetzazko ikaskuntza* indar dadin.

#### 5. Arloaren helburua eta kompetentzia orokorrak

##### - Arloaren helburua

Hizkuntzak eta Literatura arloaren irakaskuntzaren helburu nagusia, Bigarren Hezkuntzan, ikasleen komunikazio kompetentzia garatzea da, hitz egiten dituzten hizkuntza guztietan, eta



ahozko mailan nahiz maila idatzian. Arlo honen helburua ikasleek hizkuntzaren oinarrizko lau trebeziak menderatzea da (entzutea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea), hizkuntzak behar bezala erabil ditzaten, baita horiekin lotuta gizarteko eremu guztietan dauden hitzik gabeko hainbat hizkuntza ere. Horretarako, ikasleek gizarteko eremu horietako hainbat testu ulertu eta sortu beharko dituzte; baita erabilera horri buruzko gogoeta sistematikoa egin ere. Halaber, arlo horren beste helburu bat literatur hezkuntzan aurrera egitea da, literatur testua hizkuntzaren dimentsio estetikoaren manifestazio modura eta testuinguru jakin batean kokatzen den gizarte eta kultur emaitza modura ulertuta. Helburu nagusi horiek elkarrekin eta modu osagarrian landuko dira, curriculumaren baitako hizkuntza guztiak landuz. Horrela, ikasleek konpetentzia eleanitz integratua eta orekatua lortuko dute.

### **- Konpetentzia orokorrak**

Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean (16 urte), Hizkuntzak eta Literatura arloaren helburua ikasleek konpetentzia hauek lortzea da:

**1. Hainbat erabilera-eremutako askotariko ahozko testuak eta testu idatziak eraginkortasunez eta era kritikoan ulertu, eta irakurketaren edota entzuketaren emaitza helburu pertsonalei, sozialei edo akademikoei erantzuteko erabili: euskaraz eta kontaktu-hizkuntza ofizialean, bere kasako erabiltzaile B2 mailan; Europako lingua franka batean (ingelesa), bere kasako erabiltzaile B1 mailan; eta Euskal Herriko beste kontaktuko hizkuntzaren kasuan, oinarrizko erabiltzaile A2 mailan.**

Konpetentzia orokor horren baitan, ikasleek behar dituzten konpetentzia espezifikoak sartzeko dira; ez testu jakin baten esanahia ulertzeko bakarrik, horren esanahia berregiteko baizik, testuaren laguntzaz (ahozkoa edo idatzia) eta ikasleek dituzten aurretiko ezagueren laguntzaz, irakurketa helburu bakoitzaren arabera.

Ikasleek giza komunikazioaren baitako hainbat eremutako testuak entzuten eta irakurtzen ikasi beharko dute. Testu genero bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta horietako bakoitza ulertzeko, berariazko ikaskuntza ezinbestekoa da. Gainera, ikasleek hainbat testu genero ezagutuko dituzte, helburu desberdinak oinarri hartuz; esaterako, informazio interesgarri jakin bat bilatzeko (entzuketa gidatua / hautazko irakurketa), edukiaren eta testua sortzeko testuinguruaren esanahia berregiteko (entzuketa arretatsua / irakurketa erreflexiboa) atsegin hartzeko (atseginerako entzuketa nahiz irakurketa), eta balorazio pertsonala emateko



(entzute edo irakurketa kritikoa). Entzuketa eta irakurketa mota bakoitzak estrategia jakin batzuk aplikatzea eskatzen du, eta ikasleek ikasi egin beharko dituzte estrategia horiek ere.

**2. Hainbat erabilera-eremutako askotariko ahozko testuak eta testu idatziak sortu egoki, argi, zuzen, koherentziaz eta jariotasunez helburu pertsonalei, sozialei eta akademikoari erantzuteko: euskaraz eta kontaktu-hizkuntza ofizialean, bere kasako erabilzaile B2 mailan; Europako lingua franka batean (ingeleza), bere kasako erabilzaile B1 mailan; eta Euskal Herriko beste kontaktuko hizkuntzaren kasuan (frantsesa hegoaldean eta gaztelania iparraldean), oinarrizko erabilzaile A2 mailan.**

Testuak sortzeko prozesu oro konplexua da, hainbat pauso eskatzen baititu: jarduera diskurtsiboa planifikatzea, testualizatzea, egitea eta berrikustea. Pauso horiek guztiak hierarkikoki lotuta daude elkarren artean, modu errekursiboan, eta igorlearen asmoak baldintzatzen ditu, gainera. Prozesu horrek modu integratuan kudeatuko ditu testuaren propietateak: komunikazio egoerara egokitzea, edukiaren koherentzia, testua osatzen duten atalen kohesioa, edo testuaren zuzentasuna. .. Horretarako, beharrezkoa da hainbat alderdi menderatzea: alderdi mekanikoak (fonetika eta kaligrafia); erregistroa, estiloa eta tonua aukeratzea, baita egoera jakin batean egokiak diren hitzik gabeko kodeak ere (prosodikoak, keinuzkoak, ikonikoak, grafikoak...); edo eta prozesu erreflexiboagoak: ideiak sortzeko, hautatzeko eta ordenan jartzeko prozesuak, komunikabide bakoitzaren (ahozkoa, idatzia, ikus-entzunezkoa, digitala) berezko estrategiak erabiliz.

**3. Hizkuntza sistematzat hartuta, hari buruzko hausnarketa egin (testuinguruaren, testuaren eta perpaus eta hitzaren eremuan), hizkuntzaren elementuak eta haien erabilera arautzen dituzten erregelak ezagutuz eta ezaguera horiek hizkuntza ezagunen artean transferituz, ulermenari eta ekoizpenari dagokionean erabilera hobetzeko eta hizkuntzaren ikaskuntza errazteko.**

Hizkuntzen ikaskuntza, horien gizarte erabilerak menderatzearen ikuspegitik proposatzen badugu, hizkuntzari buruzko hausnarketa hizkuntzak erabiltzen ikasteko osagai modura ulertu beharko da. Beraz, hausnarketa hori testuak ulertzeko eta sortzeko jardueren baitan sartu beharko da, eta hainbat alderdirekin lotu beharko da gainera: testuaren eta testuinguruaren arteko elkarmenpekotasuna (testuinguruaren eremua), enuntziatuen eta diskurtsoa osatzen duten atalen kohesioa (testuaren eremua), baita arau lexiko-morfosintaktikoak behar bezala erabiltzea, baita arau ortografikoak eta fonetikoak ere



(perpausen eta hitzen eremua). Halaber, ikasleek oinarrizko metahizkuntza ikasiko dute hizkuntza sistema modura ulertzeko. Hausnarketarako prozedurek eta garatutako ezaguerek curriculumaren baitako hizkuntzak ikasteko oinarri komuna osatuko dute.

**4. Inguruko errealitate soziolinguistikoa kritikoki interpretatu, hizkuntzen bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremanak ezagutuz, euskararen erabilpenaren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa garatzeko, beste hizkuntzekiko errespetu eta balorazio jarrerekin batera.**

Euskal gizartea gizarte eleanitza da gaur egun: bertako hizkuntza gutxituta dago eta harremanetarako bi hizkuntza dira nagusi. Horrekin batera, beste hizkuntza batzuk ere garrantzia hartzen ari dira: batetik, ingelesa (nazioarteko hizkuntza nagusi bihurtu da) eta, bestetik, inmigrazioak ekarritako hizkuntzak. Bistakoa da egoera linguistikoa oso konplexua dela eta, ondorioz, kontzientzia soziolinguistikoa garatzea oso garrantzitsua da (hau da, errealitate soziolinguistikoa aztertzeke, kritikoki interpretatzeko eta horri buruzko iritzia sortzeko konpetentziak), behar bezala komunikatzen ikasteko. Beraz, kontzientzia horren garapena hizkuntz arloaren helburu garrantzitsua da. Beharrezkoa da Euskal Herrian bizi diren pertsonen euskararen normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa hartzea eta euskara hizkuntza nagusizat hartzea; alabaina, eta horrekin batera, beharrezkoa da inguruko beste hizkuntzekiko eta hiztunekiko balorazioa, errespetua eta interesa ere agertzea. Norberaren eta besteen hizkuntzekiko estimua eta balioespenak bi oinarri izango ditu: batetik, hizkuntzen dimentsio sozialarekin lotutako ezaguera (arreta berezia jarri beharko zaio euskararen gizarte historiari eta egungo egoerari); eta, bestetik, ezaguera horiek errealitate soziolinguistikoaren azterketan aplikatzea.

**5. Literatur hizkuntzaren berezko ezaugarriak eta euskal kulturaren, inguruko kulturen eta kultur unibertsalaren oinarrizko erreferenteak ezagutu, obrak jatorrizko testuinguru historikoaren eta sozio-kulturalaren baitan irakurriz, entzunez nahiz ikusiz eta aztertuz, iraganeko, gaur egungo eta etorkizuneko gizarte errealitatea kritikoki interpretatzeko, norberaren kultur nortasuna eraikitzeke eta literatur lanak ulertzeko eta sortzeko, hizkuntzaren mugak eta aukerak aztertuz.**

Hizkuntzak dimentsio estetikoak du literatur eremuan. Eremu horretako testuak ulertzeko eta sortzeko beharrezkoa da adierazpide horren arauak eta baliabideak ezagutzea eta erabiltzea: literatur generoak eta horien ezaugarriak, baliabide estilistikoak eta erretorikoak



barietatea, etab. Arauak eta baliabideak ezagutzearen helburu nagusia ikasleei literatur testuak sakonago ulertzeko behar dituzten tresnak ematea da, baita norberaren bizipenak, sentimenduak eta hausnarketak sormenez eta sentsibilitate estetikoaz adierazteko ere.

Bestalde, ikasleek literatur lanak testuinguru historiko eta sozio-kultural jakin baten emaitza direla ulertu beharko dute, baita kultur tradizio jakin baten isla ere. Tradizio hori ezagutzea lagungarria da norberaren nortasun soziokulturala osatzeko. Horretarako, ikasleek literaturaren historiaren oinarrizko erreferenteak ezagutuko dituzte, bereziki beren hurbileko kulturarenak (euskaraz edo kasuan kasuko harremanetarako hizkuntzan), baina kultur unibertsalaren erreferente nagusiak ere bai. Hori guztia ezagutzeko, ikasleek haien ulermen gaitasunera eta interesetara egokitutako testuak irakurriko eta aztertuko dituzte, testuinguru kontuan hartuta.

**6. Literaturaz gozatu, erreferentziako testuak eta norberak aukeratutakoak irakurri eta ikus-entzunezko beste arte eremuetan sartuz (antzerkia, zinema, irratia, telebista...), norberaren esperientziari esanahia emateko, giza egoera hobeto ulertzeko eta sentsibilitate ludiko-estetikoa garatzeko, norberaren nortasun pertsonala eta soziala eraikitze helburuarekin.**

Konpetentzia orokor hori lantzeko, ikasleek literatur testuak irakurriko dituzte literatur esperientziaren eta bizitza esperientziaren arteko loturak ezartzeko, atsegin iturri modura eta aberaste pertsonala lortzeko bide gisa. Aukeratutako literatur lanen esanahia eskuratzeko eta barneratzeko prozesua azpimarratuko da bereziki, baita irakurketa esperientziaren transferentzia ere, taldeka egindako iruzkinen bidez.

Gazteen kulturen eragin handia duten beste literatur adierazpen batzuk ere kontuan hartuko dira: zinema, gizarte komunikabideak edo ingurune digitala.

## **6.- Ikaskuntza edukien marko komuna: Eduki multzoak**

Curriculumean, edukiak ikasleak behar dituen konpetentzien eta esperientzien arabera definitzen dira. Horregatik, eta hizkuntzen eta literaturaren irakaskuntzarako ikuspegi diskurtsiboa kontuan hartuz, arloko edukiak *hizkuntzaren erabileraren* ikaskuntzan oinarritzen dira, komunikatzeko eta ezagutzaren eta esperientziaren berri emateko. Beste modu batera esanda: arloko edukiek hizkuntzaren bidez gauzak “egiten jakitearekin” lotuta daude zuzenean edo zeharka. Horretarako, arloaren edukiak lau kontzeptu handiren



inguruan biltzen dira, eta kontzeptu horietatik ondorioztatzen dira eduki multzoak. Eduki multzo horiek bereizita aipatzen baditugu ere, ez dira multzo hermetikoak elkarrekiko.

**A. Komunikazio erabilera**, ulermenari eta ekoizpenari dagokionez, eta egoera, asmoa, erabiltzen diren kode eta komunikazio testuinguruak edo erabilera esparruak kontuan izanik. Eduki nagusiak edozein arloko gizarte erabileretan sortutako testu generoak izango dira, bai ahozkoak edo idatzizkoak, bai ikus-entzunezkoak. Gaur egungo gizartean komunikabideak (irratia, prentsa, telebista, etab.) eta informazio eta komunikazio teknologia berriak (IKT) garrantzia handikoak direnez, erabateko komunikazio kompetentzia garatzeak honako hau eskatzen dio Hizkuntzak eta Literatura arloari: ahozko eta idatzizko erabileren artean, horien erabilera eraginkorrarekin lotutako kompetentzien garapena ere sartzea.

Aipatutako kontzeptu horretatik, bi eduki multzo ondorioztatzen dira:

1. Ahozko komunikazioa: hainbat erabilera eremutako ahozko edo ikus-entzunezko testu generoei buruzko edukiak, baita horietan dauden hitzezko, hitzezko-ikonozko eta keinuzko hizkuntzei, hizkuntza proxemikoari eta abarri buruzko edukiak, edo eta ahozko ulermenaren eta ekoizpenaren prozedurei buruzkoak ere.
2. Idatzizko komunikazioa: hainbat erabilera eremutako idatzizko erabilerei eta ikus-entzunezko idatzizko testu generoei buruzko edukiak, baita horietan dauden hitzezko, hitzezko-ikonozko eta keinuzko hizkuntzei, hizkuntza proxemikoari eta abarri buruzko edukiak eta idatzizko ulermenaren eta ekoizpenaren prozedurei buruzkoak ere.

**B. Hizkuntzari buruzko hausnarketa**. Ulermen eta ekoizpen jarduerak ikasteko eta hobetzeko tresna bezala ulertua; hizkuntzaren sistemaren azterketa (testuinguru, testu, perpausa eta hitz mailan) komunikazio erabileren hausnarketatik abiatuko da, hau da, hortik sortutako testuen lanketan oinarrituko da.

3. Hizkuntzari buruzko hausnarketa: ikasleei “hizkuntzako eskoletan hizkuntzaz hitz egiteko” oinarrizko metahizkuntza emateaz gain, eduki horiek prozedurazko zenbait ezagutza jabetzen lagunduko diete ikasleei, egoki, koherentziaz, kohesioz eta zuzen hitz egiteko.

**C. Hizkuntzaren gizarte dimentsioa**. Egungo euskal gizarte eleanitzean, komunikazio kompetentzia garatzeko hizkuntzaren gizarte dimentsioa ezagutu behar da, bereziki: zer da hizkuntza bat, hizkuntzen sorrera eta bilakaera, eleaniztasuna, gehiengo eta gutxiengo hizkuntzak, etab. Eremu horretako ezagutzetan oinarritutako errealitate soziolinguistikoen hausnarketaren bidez, jarrera aldaketa sustatzen saiatuko gara, hizkuntzen aldeko jarrera positiboak garatzeko, eta, bereziki, euskal hizkuntzaren normalkuntza prozesuarekiko ardurak hartzeko jarrerak garatzeko.



4. Hizkuntzaren gizarte dimentsioa: hizkuntza zerbait bizia dela –eta hainbat faktorek baldintzatuta– etengabe bilakatzen dela ulertzeko edukiak; jarrera aldaketa sustatzera bideratutako edukiak, hizkuntzen aldeko jarrera positiboak garatzeko, eta, bereziki, euskal hizkuntzaren normalkuntza prozesuarekiko ardurak hartzeko jarrerak garatzeko.

**D. Literatura.** Komunikazio konpetenziaren alde osagarri bat literatur konpetentzia da. Literatur konpetentzia literatur testuak irakurtzeko, entzuteko, interpretatzeko eta ekoizteko konpetentzia da; literatur testuak, berriz, norbanakoaren, gizartearen eta kulturaren identitatea adierazteko modu pribilegiatuak dira. Literatur konpetentzia garatzeko, ulermen eta ekoizpen konpetentzia orokorrez gain, literatura komunikazio bide erabat desberdina bihurtzen duten konbentzioak eta teknikak jakin behar dira, baita norberaren kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko erreferente batzuk ere. Literatur konpetentzia, berez, honela defini dezakegu: literaturari dagokion komunikazio eta kultura konpetentziak biltzen dituen konpetentzia, literatur testuen potentzial semantiko ikaragarriaren ulermena lotuz irakurketaren gozamenaren eta idaztearen plazeraren estimuluarekin. Kultur erreferentziak igortzeko multimedia euskarriek garrantzia handia dute egun, eta, hori dela eta, literaturara beste euskarri batzuen bidez ere hurbilduko gara; esaterako: zinearen, gizarte komunikabideen eta ingurune digitalaren bidez.

5. Literatura: literatur konpetentzia garatzea, literatur testuak ulertzeko eta ekoizteko konpetentziatzat hartuta, eta, literaturari buruzko kultur jakintzaz jabetzea eta horrekin gozatzea. Euskal kulturaren elementu adierazgarria den neurrian, ahozko literaturak berezko lekua hartzen du eduki multzo honetan.

Ildo horretan, eduki multzo bakoitzak **edukien hiru dimentsio** adierazten ditu: *kontzeptuak*, hau da, jakintza arloekin lotutako gaiak ulertzeko eta adierazteko beharrezko hitzak edo terminoak; *prozedurak* edo ekintza bat aurrera eramateko jarraitu beharreko urratsak, gehiago edo gutxiago egituratuta. Azken horiek “egiten jakin” horrekin lotuta daude, eta arloaren xedea hizkuntza erabiltzen ikastea denez, *prozedurak* lehentasuna duten edukiak izango dira. Azkenik, *jarrerak*, jarduera bat modulatzeko duten elementutzat hartuta; arloaren izaerarekin zuzenean lotutakoak (*komunikatzen ikasi*) nahiz hezkuntza konpetentzia orokorrekin lotutakoak (*elkarrekin bizitzen ikasi*, *norbera izaten ikasi* eta *egiten eta ekiten ikasi*) aukeratuko dira.





## **ARLOKO HIZKUNTZAK**

- 1.- Euskara (B2, Hegoaldea eta Iparraldea)**
  - 2.A.- Gaztelania (B2, Hegoaldea)**
  - 2.B.- Frantsesa (B2, Iparraldea)**
- 3.- Ingelesa (B1, Hegoaldea eta Iparraldea)**
  - 4.A.- Frantsesa (A2, Hegoaldea)**
  - 4.B.- Gaztelania (A2, Iparraldea)**



## **1. EUSKARA**

### **(B2) Hegoaldea eta Iparraldea**



## 1.1. IKASKUNTZA EDUKIAK

### **Eduki multzo guztietarako jarrerazko edukiak:**

1. Ikaskuntzaz arduratzea, autonomia, ekimena eta ahalegina erakutsiz, hartutako erabakiek izan ditzaketen arriskuak onartuz eta, frustrazioen aurrean, gainditzeko espiritua eta iraunkortasuna agertuz.
2. Autonomia eta sormena ahozko nahiz idatzizko lanak planifikatzeko, egiteko eta aurkezteko, nor bere estimua garatzeko ezaugarriak eta mugak ezagutuz eta onartuz.
3. Jarrera kritikoa izatea ideologikoki konbentzitzera bideratutako hitzezko eta hitzik gabeko diskurtsoen aurrean (bereziki, komunikabideen diskurtsoen aurrean), baita gizarte, arraza, sexu, kultura... bazterketa adierazten duten edukien eta formen aurrean ere.
4. Partekatutako lanetan ekimenez eta arduraz aritzea lankidetzan: modu aktiboan parte hartzea eta besteen ideiekiko interesa, malgutasuna eta errespetua agertzea.
5. Besteak eta haien ideiak eta iritziak errespetatzea, eta emozioak kontrolatzea bizitzako egoera pertsonaleko eta sozialeko gatazken kudeaketan, pertsonen arteko komunikazio ona lortzeko.
6. Parte hartze aktiboa eta arduratsua izatea euskara normalizatzeko eta euskal kultura transmititzeko prozesuetan.
7. Inguruko eleaniztasuna eta kultur aniztasuna balioestea, eta horrekiko interesa eta errespetua adieraztea; norberaren eleaniztasuna intelektualki, kulturalki eta sozialki aberasteko bitartekoa dela onartzea.
8. Sormena eta imajinazioa lantzea literatur adierazpenean, baita lanak ulertzeko eta egiteko moduan ere; alternatiba berriak kontuan hartuz, eta ideia originalak eskainiz.
9. Sentsibiltate estetikoa norberaren eta besteen literatur ekoizpenekiko, horien sormen eta estilistika elementuak balioetsiz.



1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA	
Kontzeptuak	Prozedurak
<p><b>1. Ahozko komunikazioaren berezko ezaugarriak</b></p> <p><b>1.1. Testuinguruarekin lotutako ezaugarriak</b></p> <p><b>Informala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Unibertsaia, giza izaeraren osagarria.</li> <li>- Gizartearen berezko garapena.</li> <li>- Iragankorra, iheskorra</li> <li>- Hizketakideen presentzia: aldi bereko espazioa-denbora, partekatua.</li> <li>- Testuinguruari buruzko informazioa.</li> <li>- Sortu ahala egindako diskurtsoa, hartzearekin batera egina.</li> <li>- Euskalkien nahiz hizkuntza erregistroen presentzia komunikazio egoerako ezaugarri sozialen baitan.</li> </ul> <p><b>Formala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ez da unibertsaia eta eskolan ikasten da.</li> <li>- Iragankorra eta benetako denboran egina.</li> <li>- Egoerazko testuinguru partekatua, norabide bakarreko komunikazio hierarkiko samarra.</li> <li>- Igorle-hartzaile elkarrekintza: emoziozko harremana.</li> </ul> <p><b>1.2. Testuarekin lotutako ezaugarriak</b></p> <p><b>Informala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai orokorra eta askea</li> <li>- Erregistro arrunta, eskuarki.</li> <li>- Elkarriketan oinarritua</li> <li>- Pertsonen artekoa eta subjektiboa.</li> <li>- Berezkoa eta erredundantea.</li> <li>- Testu egitura askea (digresioak, gai aldaketak...)</li> <li>- Hitzik gabeko hizkuntzen funtsezko esku hartzea (keinuak, aurpegia, gorpua, hizkuntza proxemikoa...)</li> </ul> <p><b>Formala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai espezializatuak.</li> <li>- Erregistro formala.</li> <li>- Oro har, homologatua. Planifikazioaren eta berezotasunaren arteko konbinazioa.</li> <li>- Hizkuntza idatzia baino errendundanteagoa eta informazio dentsitate gutxiago ematen duena.</li> <li>- Hitzik gabeko hizkuntzen funtsezko esku hartzea (keinuak, aurpegia, gorpua, hizkuntza proxemikoa...)</li> <li>- Ikus-entzunezko eta hitzezko kodeen integrazioa.</li> </ul> <p><b>1.3. Hizkuntz ezaugarriak</b></p> <p><b>Informala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Intonazioaren, bokalizazioaren eta ahoskeraren funtsezko eginkizuna.</li> <li>- Lexikoaren gutxieneko hautaketa: errepikatzea.</li> <li>- Osagai deiktikoak.</li> </ul>	<p><b>1. Ahozko testuak ulertzeko jarraibideak.</b></p> <p><b>1.1. Entzun aurretiko fasea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Entzuteko helburuaren definizioa eta komunikazioan parte hartzen duten osagaien definizioa.</li> <li>- Entzuteko moduaren hautaketa, egoeraren arabera, entzutearen helburua eta testuen generoaren ezaugarriak.</li> <li>- Aurretiko ezaguerak aktibatzea.</li> <li>- Aurrerapenak egitea (hipotesiak, iragarpenak...), norberaren ezaguerak eta komunikazio testuingurua oinarri hartuta.</li> </ul> <p><b>1.2. Entzuketara fasea</b></p> <p><b>Testuaren edukiaren interpretazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren esanahi globala berregitea.</li> <li>- Funsezko informazioak bereiztea, helburuaren arabera.</li> <li>- Ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak bereiztea, aita tesiak eta argudioak eta informazio garrantzitsuak eta garrantzirik gabeko informazioak ere.</li> <li>- Informazioen arteko loturak egitea, beharrezko inferentziak eginez.</li> <li>- Testuaren baitako informazioak norberaren ezaguerarekin lotzea eta alderatzea.</li> <li>- Informazioa eta iritziak bereiztea, baita argudioak eta gezurrak ere, besteak beste.</li> <li>- Elementu implizituak interpretatzea, auresuposizioak, jakintzat hartzen direnak, esanahi bikoitzak, anbiguotasunak, elipsiak...</li> <li>- Igorleak komunikatu nahi duena identifikatzea/ondorioztatzea.</li> <li>- Norberaren ulermen prozesua kontrolatzea: aurrerapena, egiaztatzea...</li> </ul> <p><b>Testuaren formaren interpretazioa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren egitura eta testua markatzen duten osagaiak identifikatzea.</li> <li>- Hizkuntza eta erregistro barietatea identifikatzea eta ondorioztatzea.</li> <li>- Igorlearen jarrera ondorioztatzea, osagai akustikoen interpretazioaren bidez (intonazioa, bolumena), baita diskurtsoaren tonuaren bidez eta hitzik gabeko kodeen bidez, besteak beste.</li> </ul> <p><b>Testuaren informazioa gordetzea:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuan agertzen diren osagai batzuek pixka batean gogoratzea, ulermena lantzeko: ondoren datorrena ulertzen jarraitzea, testuaren beste zati batzuk interpretatzea...</li> <li>- Testuaren informazio garrantzitsuak gogoratzea,</li> </ul>



<p><b>4.Teknologia eta ingurunea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elhuyar anaiak. Wolframioa</li> <li>- Euskal Herriko esku-lanbide tradizionalak: otarregintza, saskigintza, ikazkin, hargin, uztargile, itzain, bale-arrantza, untzigile, errementari, gurdigile, gaztagile, joaregile, abarkagile, zahatogile, irule, ehule, erlezain, zurgin, ...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elhuyar anaiak Bergaran aurkitutako wolframioak bonbillen filamentuetan eta erremintak egiteko altzairu-aleazioetan dituen aplikazioak ezagutu.</li> <li>- Historian zehar Euskal Herrian egindako zientzia eta teknologiko ikerketak eta aurkikuntzak ezagutzeko jakin-mina izan.</li> <li>- Euskal Herriko hainbat esku-lanbide tradizioaletako (otarregintza, saskigintza, ikazkin, hargin, uztargile, itzain, bale-arrantza, untzigile, errementari, gurdigile, gaztagile, joaregile, abarkagile, zahatogile, irule, ehule, erlezain, zurgin, ...) baliabide eta ekoizpenei buruzko ikerketa egin eta zein alorretako arazo teknologikoei erantzuten zieten adierazi</li> <li>- Euskal Herrian zientzia eta teknologia gaiaren inguruan ditugun museoak, parke teknologikoak, aldizkariak, atari edo webguneak, etab. ezagutzeko eta bisitatzeko jakin-mina adierazi.</li> </ul>

## 2. ZIENTZIA ETA TEKNIKARAKO EUSKARAREN ERABILERA ARAUAK

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazioa irizpideak
<p><b>2.- Zientzia eta teknikarako euskararen erabilpen arauak zaindu eta euskarazko ofimatika-tresnak nahiz teknologia gaien dibulgaziorako euskarazko aldizkari eta web guneak ezagutu eta erabili informazioa bilatzeko eta aurkeztu behar diren dokumentuak osatzeko orduan.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zientzia eta teknikarako euskararen arauak zaintzen ditu eta lexiko egokia erabiltzen du ahozko eta idatzizko azalpenetan</li> <li>- Euskarazko baliabide ofimatikoak, zuzentzaile ortografikoak, interneteko euskarazko bilatzaileak eta informazio kontsulta prozedurak erositasunez menperatzen ditu.</li> <li>- Euskarazko hiztegi teknikoak, teknologia gaien dibulgaziorako aldizkariak eta web guneak ezagutzen eta erabiltzen ditu</li> </ul>
Kontzeptuak	Prozedurak, jarrerak, esperientziak
<p><b>1.Adierazpen eta komunikazio teknikak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarazko lexiko teknikoak eta testuinguru bakoitzerako sintaxi egokia.</li> <li>- Zientzia eta teknikarako euskararen erabilpena</li> <li>- Euskarazko ofimatika-tresnak.</li> <li>- Euskarazko dibulgazio tekno-zientifikoa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zientzia eta teknikarako euskararen ezaugarriak eta arauak ezagutu eta hizkuntzaren erabilera zuzena ziurtatu ahozko ekarpen zein idatzietan.</li> <li>- Euskarazko ofimatika-tresnak ezagutzea eta erabiltzea proiektuetako txostenak edo memoriak idazteko eta aurkezteko orduan.</li> <li>- Zientzia eta Teknologia gaien dibulgaziorako euskarazko aldizkariak eta web guneak ezagutzea eta erabiltzea</li> </ul>





### **3. MUSIKA ETA DANTZA**



## 1. SARRERA

Kanta eta dantza bizitzaren osagarriak dira. Herri batek bere jardunean, egunerokoan zein ospakuntza berezietan ere, integratu egiten ditu. Horregatik herri horren bizitzaren gora beherak ondo dastatu ahal izateko, laguntza paregabea dira. Gure helburua da eskola eta ikastoletatik ateratzen diren haur eta gazteek alor hau ere bereganatua izatea.

Euskal Herriko kulturaren ezaugarrietako bat musikak eta dantzak gure gizartean izandako garrantzia izan da. Herri kantek eta dantzek betidanik transmititu dituzte emozioak, sentimenduak eta gertakari pertsonalak eta sozialak. Hori dela eta, gure asmoa da kantak – alderdi bokal eta instrumentalean– eta dantzak ikaskuntzaren funtsezko atalak izaten jarraitzea. Teknika bokala edo instrumentala oinarritzkoa izango da konpetentzia hori garatzeko, horren erabilpen egokiak arazo muskularrak saihestu, ikaskuntza bokal eta instrumentala erraztu eta soinuaren edertasuna lortzeko aukera ematen baitu. Beste komunikazio era baten oinarria norberaren sormen lana izango da. Euskal dantzaren tradizio aberatsa ezagutzeak aukera emango du gorputz, musika eta dantza hezkuntza eta ezagutza sistema lantzeko; gainera, tradizio horrek eta molde akademikoko beste dantza tradizio batzuek –dantza klasikoak barne– zenbait eduki berdinak dituzte.

Horrez gain, oso kontuan izan behar dugu euskal konpositoreek musika kultuari egindako ekarpena; haien obrak emango ditugu aditzera grabaketen bidez, konposizioak aztertuz, egileei buruzko informazioa jasoz, garaiko gizarte eta artearekiko harremanak agerian jarriz eta musika mota honen entzuketaz gozatzen irakatsiz.

Euskal gizartearen ezaugarrietako bat herritarrek musika eta dantza elkarteetan parte hartzeko agertu duen beharra eta interesa izan da. Musikaren eta dantzaren irakaskuntzan ohitura horri eustea interesatzen zaigu; izan ere, jarduera horrek iraganarekiko edo orainarekiko loturari eusteaz gain, zenbait musika konpetentzia garatu eta, horri esker, norbera hazteko beste konpetentzia batzuk ere garatzen ditu. Talde lana eginez gero, gure musika trebetasunak entzun eta sustatu behar ditugu, melodiarekin harmonizatzeke, tinbre egokia sortzeko, erritmo zehatz bati jarraitzeko eta emankizunaren bizitasuna kontrolatzeko. Dantza ikaskuntza taldean lantzeko, talde horretan integratzeko gaitasuna behar da, eta gizabanakoak bere interpretazioa eta espazioaren erabilpena gainerako taldekideekin koordinatu behar ditu, bere izaera eta estiloa galdu gabe.

Halaber, talde lana egiteko, partaidetza koordinatua eta isiltasuna behar dira. Taldekako musika lanaren bidez, besteen lana errespetatzea eta taldekideen izaeretara egokitzea sustatzen da. Izan ere, norberaren ezaugarrietatik abiatuta, portaera solidario eta gogoetatsuak erakutsi behar dira, taldeak aurrera egin dezan, dela berariazko konpetentziari



dagokionez (kantuetan, musika tresnen interpretazioan eta dantzan parte hartzea), dela kompetentzia orokorrean (elkarrekin bizitzen ikastea).

## 2. KONPETENTZIA OROKORRAK

Oinarrizko Hezkuntza amaitzerakoan, ikasleek, Musika eta Dantza arlo osoaren bidez, ondorengo konpetentziak garatuko dituzte. Euskal musika eta dantzaren inguruko konpetentziak osotasun honen borneyan lekutzen dira.

- 1.- Musika lanak aztertzea eta musika kodea deszifratzeko moduko ezagutza eta trebetasun musikaleko maila bat lortzea, musika nolabaiteko autonomiaz eta ziurtasunez irakurtzeko eta entzuteko.
- 2.- Musika hizkuntzaren bereizgarriei buruz hausnartzea, ezagutza hori gure ezaugarrien bitartez nola eskura dezakegun ikasteko eta horren bidez emozio estetikoa eta norberaren integrazioa lortzeko.
- 3.- Dantzan egin eta dantzak ikusten eta egiten gozatu, musika eta gorputz adierazpena uztartzuz; hau da, gorputzaren mugimendua, espazioa eta denbora artikulatuz, norberaren nortasuna eta taldekidetasuna garatzeko.
- 4.- Dantzaren, ahotsaren eta musika tresnen bitartez komunikatzen ikastea, adierazpen baliabide bakoitzaren arauen arabera, sormenezko pentsaera garatzeko –prozesu kognitiboen eragilea–, eta komunikazio konpetentziak eskuratzeko –kultur ñabardura asko dituzte eta gizarte trebetasunak garatzeko suspergarri dira–.
- 5.- Musikaren eta dantzaren lanketak harmonia eta gozamen estetikoa eragiten dituela ulertzea (emozio sortzailea eta norbera hazteko lagungarria da, eta gizartean integratzeko balioak ditu), gizaki garen aldetik prestatzeko eta, hori eginez gero, gizartearen aurrerapenari eta ingurumenaren hobekuntzari laguntzeko.
- 6.- Entzuten, ikusten edota interpretatzen dugun edozein musika eta dantza adierazpen hobeto ulertzeko, historian zehar ematen eta eman diren musikaren eta dantzaren inguruko gertakari eta autoreei buruzko informazioa, modu kritiko eta aktibo batez, erabili.



### 3. EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. MUSIKA HIZKUNTZA	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1. Zortziko eta ezpata-dantza konpasak ezagutu, ulertu eta erabiltzen jakin, berauen azalpena jasoz, bakoitzaren ezaugarriak bereiztuz eta praktikan arituz, bi konpas horiek barneratu ahal izateko eta, ondorioz, musika irakurketan eta sorkuntza saioetan erabili ahal izateko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zortziko eta ezpata-dantza konpasak ezagutzen ditu.</li> <li>- Musika-irakurketaren hastapenak egoki erabiltzen ditu.</li> <li>- Abiadura egokia mantenduz irakurtzen du.</li> <li>- Konpas horietan idatzita dauden partituras irakurtzen ditu.</li> <li>- Erritmo bi horiek belarriz bereizten ditu.</li> <li>- Zortziko eta ezpata-dantza konpasak erabiliz inprobisazioak egiten ditu.</li> <li>- Behar bezala azentuatzen ditu konpasak.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zortzikoa</li> <li>- Ezpata- dantza</li> </ul>	
Prozedurak eta jarrerak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zortziko eta ezpata-dantza konpasak jasotzen dituzten partituren irakurketa.</li> <li>- Partituraren analisisa, interpretazioari ekin baino lehen.</li> <li>- Musika-zatien entzuketa eta diskriminazioa, zeinetan hauetako konpas bat erabiltzen den beste konpas mota batzuen aldean.</li> <li>- Estrategia desberdinen erabilpena kontzeptuak bereganatzeko.</li> <li>- Zortziko eta ezpata-dantza ikasteko eta erabiltzeko interesa sortzea.</li> <li>- Konpas horietan idatzitako partituren bilaketa.</li> <li>- Konpas horien ibilbide historikoari buruzko informazioaren bilaketa.</li> <li>- Musika Artxiboren batera joatea.</li> </ul>	

2. EUSKAL ABESTIAK	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2. Euskal herri-kantak abestu era egokian, ahots- teknikaz baliatuz, doitasunez afinatuz, erritmoa zehazki erabiliz eta abestiak transmititzen duen mezuarekiko arretaz, euskal kantutegia ezagutzearen eta honen ezagutzaz gozatzeko, Euskal Herriko musika eta giza sustraieiz jabetzeko, eta kanturako ahalmena, hala nola arretaren eta talde-lanaren baloreak garatzeko, musika-irizpide baten jabe eginez.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 100 euskal-kantutegiko abestiak, teknika egokia erabiliz interpretatzen ditu.</li> <li>- Afinazioa, une oro zaintzen du, erregistro komenigarriara egokituz behar denean.</li> <li>- Hitzetako ahozkerari eta erritmoa uztartzen ditu.</li> <li>- Abestiaren mezua ulertuz abesten du.</li> <li>- Kantuarekiko interesa erakusten du, kantua kultura-adierazpen den aldetik.</li> <li>- Abestean, intentsitate, karakter eta abiaduraren ñabardurak modu egoki batean erabiltzen ditu.</li> <li>- Akzioa eta gogoeta orekatzen ditu.</li> </ul>
Kontzeptuak	



- **Euskal kantutegiko abestiak:**

Antzinako abestietan, bizimodu tradizionalaren erakusgarri izatea hobetsi da. Beti ere oreka bat bilatu nahiz eskualdeen artean eta izan dituzten zabalpen eta arrakasta kontuan hartuz. Egile modernoagoak dituztenetan, kantagintza berrien ikur gertatu direnak jaso nahi izan dira, baita mugimendu horretan plazaratu diren gai eta ikuspuntu nagusiak ere. Bietan eguneko erabilgarritasuna ere kontuan hartuta: ahal den neurrian, gaurko pertsonen dibertimendurako eta adierazpen afektiborako egokiak direnei lehentasuna ematea alegia.

Haur abesti gutxi batzuk ere kokatu dira zerrendan, irizpide berberei kasu eginez.

1. Agur, jaunak (eta andreak)!
2. Agur, Xiberua!
3. Agur Euskal Herriari
4. Ai, zer plazerra!
5. Aita Jainkoak (Salamankara).
6. Aitormena.
7. Aitorren hizkuntz zaharra.
8. Aldapeko (Almute dantza).
9. Ama eta alaba.
10. Ameriketara joan nintzan.
11. Andre nobia.
12. Araban bagare.
13. Armen hartzera (Solferinoko itsua).
14. Astoa ikusi nuen.
15. Bakearen urzoa.
16. Begiztatua nuen (Euskaldun makila).
17. Behin edo behin.
18. Bizkaia maite.
19. Boga boga.
20. Donostiako hiru damatxo.
21. Egun da Santi Mamiña.
22. Eperra.
23. Erreginetan.
24. - Erribera
25. - Esaten dute (Nere senarra).
26. Euskal herriko mendiak.
27. Ez, ez dut nahi.
28. Furra furra.
29. Gazte gaztetatikan.
30. Gaztedi berria (Gu gira Euskadiko).
31. Gernikako Arbola.
32. Goizean argia hastean.
33. Goizean goizik.
34. Guk euskaraz.
35. Guretzat.
36. Haltzak ez du bihotzik.
37. Hara non diran!
38. Hator, hator.
39. Haurrak ikas zazue.



40. Haurtxo txikia negarrez dago.
41. Ia gureak egin du.
42. Ikusi mendizaleak.
43. Ikusten duzu goizean.
44. Iruten ari nuzu.
45. Isil isilik.
46. Itsasoa laino dago.
47. Itsatsontzi baten.
48. Iturengo arotza.
49. Itziarren semea.
50. Izotz ondoko eguzki.
51. Jaun baruak.
52. Kakagaleaz nator.
53. Kontrapas.
54. Lau teilatu.
55. Loa, loa, txuntxulun berde.
56. Loreak udan.
57. Maite bat (Kontxesiri).
58. Maitea, non zira?
59. Maiteak galdegin zautan
60. - Maria Solt eta Kastero
61. Maritxu, nora zoaz?
62. Mendien gora.
63. Mendizaleak.
64. Mutil koskor bat.
65. Nafarroa arragoa.
66. Nagusi jauna (Juana Bixenta Olabe).
67. Nere andrea.
68. Nere herriko neskatxa maite.
69. Neri deritzait Galtzaundi.
70. Nik baditut bortuetan (Oinazez).
71. Oi, Betleem!
72. Olentzero buru haundia.
73. Olentzero.
74. Ozaze Jaurgainean.
75. Paristik natorren.
76. Pasaiaiko herritik.
77. Pello Joxepe.
78. Pinto, Pinto.
79. Pipa hartuta.
80. Prima eijerra.
81. San Simon eta San Juda.
82. Santa Ageda.
83. Sarri sarri.
84. Triste bizi naiz eta.
85. Txantxibirin.



86. Txarmangarria.
87. Txori erresinola udan da kantari.
88. Txoria txori.
89. Txorietan buruzagi.
90. Txoriñoa kaiolan.
91. Txoriñoa, norat hoa?
92. Ume eder bat.
93. Uso zuria.
94. Xalbadorren heriotzean.
95. Xoxoak galdu moko.
96. Zazpi Euskal Herriek (Agur Euskal Herriari).
97. Zeruak eta lurak (Markesaren alaba).
98. Zezenak dira.
99. Ziibilak esan naute (Nere amak baleki).
100. Zugana Manuela.

#### Prozedurak eta jarrerak

- Estilo desberdineko euskal abestien interpretazioa.
- Abestiaren prestakuntza egokia, alderdi kontxtualeen (jatorrizko toki, garaia, gaia), teknikoen eta estetikoaren ardura izanez.
- Testuaren ulertze eta ahoskatze zuzena, kontuan izanik abestiak lehengo gertaerak, ohiturak, eta mintzamoldeak erabil ditzakeela.
- Euskal kantuen grabaketen entzuketa eta honi buruzko hausnarketa.
- Talde-kantua sustatzea helburu duten ekintzen antolaketa.
- Kontzertuetara joatea.
- Euskal musikaren estilo desberdinetara ohitzea.
- Euskal musikaren diskografia ezagutzea.

**Oharra:** Abesti hauek ez lirateke besterik gabe ikasi behar. Irakasleak ahalegina egin beharko luke beraiekin doan lurrina ere haur eta gazteek bereganatu dezaten. Bakoitza, ahal den neurrian, zein eskualderekin lotzen den, zein garaitan sortu, zein egokieratan erabiltzen zen ere irakatsi beharko litzateke.

### 3.EUSKAL MUSIKAREN HISTORIA ETA ENTZUKETA

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>3. Euskal Herriko musika-konposatzaileen obra ezagutu, herri-musika zein kultua, egilearen, estiloaren eta konposizioaren informazioak behinena lortuz, musika entzunez eta beronen egitura formala, dimentsio estetiko eta komunikatiboa aztertuz, musika-tresnak bereiztuz beren soinu eta formarengatik, Euskal kultura hobeto ezagutzearren eta, ondorioz, honen gozamena areagotzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Entzuketaren aurreazalpenean agertutako kontzeptuak bereganatzen eta erabiltzen ditu.</li> <li>- Obra baten oinarriko ideiak ezagutzen eta adierazten ditu.</li> <li>- Egilearen zein interpretatzaileari buruzko datuak azaltzen ditu.</li> <li>- Bai forma eta bai soinuarengatik musika-tresnak ezagutzen ditu.</li> <li>- Musika-tresnak, zein bere familiakoekin sailkatzeko gai da.</li> <li>- Musika-estilo desberdinen funtzioak jabetzen da eta honi buruz modu koherentean argudiatzen du.</li> <li>- Beharren arabera musika aukeratzeko eta erabiltzeko gai da.</li> </ul>
<b>Kontzeptuak</b>	



### 1. Musika adierazpenak:

- Euska musikaren lehenengo aztarnak: Isturitze, Atxeta
- Erdi Aroko musika adibideak.
- Berpizkunde garaiko musika adibideak
- Barroko garaiko musika adibideak
- XIX. mendeko musika eta musikariak
- XX. Mendeko musika eta musikariak
- XX. Mendeko herri antzerki musikalak: pastoralak, maskadarak, gabonetako eta inauterietako errepresentazioak
- XX. Mendeko euskal mugimendu musikalak: koralak, Ez dok hamairu, euskal rock erradikala, trikitixa berria, euskal pop, jazz. bandak, orkestrak...

### 2. Musika tresna tradizionalak:

- Perkusiozkoak, kolpatzekoak: txalaparta, tobera, atabala, danbolina, panderoa, musukitarra...
- Haizezkoak: txistua, xirula, trikitixa, akordeoia, alboka, dultzaina...
- Harizkoak: Ttun-Ttuna...

### Prozedurak eta jarrerak

- Entzundakoari, egileari, eta estiloari buruz informazioa jasotzea.
- Musika entzuketak.
- Entzuketaren azalpena, garaiko beste arteekiko harremanetan.
- Entzuketan oinarrituta, eskemak egitea.
- Musika-tresna familien sailkapena.
- Arreta eta kontzentrazio jarrerak.
- Euskal Herriko musika talde, abesbatza eta orkestrarik adierazgarrienen ezagutza.
- Euskal musikaren grabaketen entzuketa.
- Euskal musikaren grabaketen bilaketa.

## 4. MUSIKA-TRESNA

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>4. Euskal erreperorioaren obrak ezagutu eta jo, teknika, espresioa eta musika-tresnari egokitzapena zainduz, aldi berean soinu-iturri desberdinak esperimentatuz, musika-tresnen parte hartzea aztertu eta ondorioak atereaz, musika-tresnaren bat autonomiaz erabili ahal izateko, sormena eta interpretaziorako tresna erabilgarri batez jabetzeko, garapen pertsonala lantzeko eta talde lanaren onurak ahalbidetzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 20 obra instrumentalak interpretatzen ditu.</li> <li>- Jotzean, gorputz-jarrera egokia du.</li> <li>- Espresioa zaintzen du.</li> <li>- Jotzerakoan, musika-tresna egokia hautatzen du.</li> <li>- Taldearekin enpastatzen eta bere eskuhartze egoki neurtzen badaki.</li> <li>- Arreta gordetzen badaki eta itxaronaldiak joaldiekin behar bezala tartekatzen ditu.</li> <li>- Interpretazioa hobetzeko gogoia, ekinean adierazten du.</li> <li>- Bere iritzia egoki azaltzen du, errespetuz eta aurrera egiteko jarreraz.</li> </ul>

### Kontzeptuak

#### -Dantzarako obra instrumentalak:

- 1.Segura (goizeko kalejira).
- 2.Gora (biribilketa).
- 3.Elizondo (biribilketa).
- 4.Ultzama (fandangoa).
- 5.Itxaropena (fandangoa).
- 6.Andre Madalen (fandangoa).





7. Ai, Joxe! (arin arina).
8. Ai, mutilak! (arin arina).
9. Lantzeko zortzikoa (zortziko txikia).
10. Ai, Ixabel (zortziko txikia).
11. Zinta dantza/Gorulari dantzak (Gipuzkoa edo Bizkaiko eran).
12. Banangoa, binangoa, e.a.
13. Gabota/Godaleta (txirulaz aukeran).
14. Urdiain (jota).
15. Ingurutxo doinurik.
16. Erreberentzia edo kontrapasa.
17. Zurrume dantza.
18. Luzaideko lehen Bolant dantza eta Ostalerra muxikoa (txirulaz aukeran).
19. Zazpi jauzi (txirulaz aukeran).
20. Txulalai.

#### Prozedurak eta jarrerak

- Euskal Herriko ahots-musika erreperatorioko obren interpretazioa musika-tresna batez.
- Euskal Herriko musika instrumentalaren interpretazioa.
- Talde instrumentalak osatzea.
- Euskal Herriko musika-tresnen ezagutza eta erabilpena.
- Inprobisazio instrumentalaren bidez, erritmo eta melodiak sortzea.
- Musika-tresnaren arabera, sonoritatearen esperimentazioa.
- Jarrera irekia soinu-esperimentazioan.

### 5. DANTZAK

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<b>5. Euskal Herriko dantzak ezagutu eta dantzatu, informazioa jasoz, irizpide tekniko eta estetikoak erabiliz, tradizioa eta sorkuntza orekatuz, baliabideak egokituz, kultura, gozamina, garapen pertsonala eta soziala lortzarren.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 11 dantzak dantzatzen ditu.</li> <li>- Erritmoari eusten dio dantzatzean.</li> <li>- Arintasunez eta ziur mugitzen da.</li> <li>- Dantza egitean, teknika egokia erabiltzen du.</li> <li>- Dantza desberdinak bereizten ditu.</li> <li>- Dantzatzean, espazioa menperatzen du.</li> <li>- Dantzaren koreografiaz interesa adierazten du.</li> <li>- Hobetzeko proposamenak azaltzen eta argudiatzen ditu.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p>Herri dantzetan asko errito tankerakoak dira eta beste asko olgetarakoak (Batzuetan biak konbinatzen badira ere: <i>Zuberoako Maskarada</i> adibidez). Gehienak bigarren tankera honetakoak aukeratu dira Erritoen zentzua barneratzeko bakoitzak etxe ondokoa hobe duela iruditzen zaigu.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Biribilketa</li> <li>2. Jolas dantzak: Zapatain, Xan Petrike (Ipurdi dantza), Esku-dantza, Mahai-gaineko, Katadera dantza, Almute dantza...</li> <li>3. Txulalai.</li> <li>4. Zazpi jauzi.</li> <li>5. Arku dantza, makil-dantza, sagar-dantza, zinta-dantza, zahagi-dantza</li> <li>6. Suelto dantzak: fandango, arin arina, jota (trikitrixa),...</li> <li>7. Lantzeko inauteria (Baztango zortzikoa)</li> </ol>	



8. Muxikoak: Hegi, Ostalerrak...

9. Bals-a, habanera, kontradantza, polka (Herri dantzak diren heinean).

10. Pasodoblea (Herri dantza den heinean).

11. Soka dantza (Ingurutxoak, Giza dantza, Larrain dantza, nahi diren aldaerak aukeran): Ohorezko Kontrapasa edo zortzikoa.

#### **Prozedurak eta jarrerak**

- Euskal dantzak dantzatzea.
- Dantzaren koreografia-plangintza egitea.
- Espazioaren antolaketa.
- Dantzei, ohiturei eta jazkerei buruzko informazioaren ikerketa.
- Euskal dantzak jasotzen dituzten ikus-materialak begizatzea.
- Elkarlanaren eta hobekuntzaren aldeko jarrerak sustatzea.
- Dantza emanaldiren batera joatea.



## **4. PLASTIKA ETA IKUS ADIERAZPENA**



## 1. SARRERA

*“Maitatzeko eta zerbitzatzeko herririk ez duen artista, herri umezurtz den artista, osatu gabeko artista izango nahi eta nahi ez” (Jorge Oteiza)*

“Plastika eta Ikus adierazpena” alorrean, euskal curriculum espezifikorako konpetentziak proposatzerakoan, ikuspegi klasikoan oinarritutako arteak ( pintura, eskultura eta arkitektura), baina baita ere eskulangintza-arteak, herri kulturaren elkargune gisa, eta multimedia eta kultura digital berriko adierazpenak ere (zinea, argazkigintza, publizitatea) besarkatzen ditugu.

Arteaz ari garenean kontzeptu zabal honen barruan haurren eta nerabeen identitateak egituratzeko orduan unibertso bisualak duen garrantziaz ari gara. Irudiekin egindako lanak garrantzi handia du gizakiaren identitatea eraikitzerakoan duen eraginagatik, eta baita ere, munduaren (errealitatearen) ikuspegia eraikitzerakoan. Arteak mundua ulertzeko ohikoak ez diren errejistroak landuz eta ikasleei pentsamendu era desberdinak azalduz hezkuntzari bere ekarpena egiten dio. Era berean, unibertso bisualarekin egindako lana oinarritzeko da; irudietan, inplizitoki edo esplizitoki agertzen diren baloreak aztertuz, bizi garen gizarte eta kulturarekin lotuak dauden hainbait gaitaz aritzeko, hala nola bazterkeriaz, kulturantzatasunaz eta aniztasunaren errespetuaz.

Arte hezkuntzak, beraz, errealitatea kontzienteki (kritikotasuna) ulertu eta eraldatzeko baliabideak ematen ditu. Egungo errealitateaz gain, errealitate historikoaz eta etorkizunekoaz ere ari gara. Eta errealitate hori Euskal Herrian kokatzen dugunean, Euskal Herriko arteaz jardun behar dugu; identitate anitzez osatutako herriaren arteaz. Azken finean Euskal Herriko artearekiko definizioak edo mugak ezartzea ez da helburua gure herriaren artearekiko *sentsibilitate estetikoaren garapena bultzatzea baizik*.

“Artea” eta “Euskal” bi hitz hauek elkartzeak zentzurik ba ote du? Asko izan dira eta aspalditik galdera hori erantzuten saiatu direnak irizpide oso desberdinetan oinarrituz. Juan Plazaolaren irizpidea jarraituz<sup>10</sup>, Euskal Artearen esanahi baliokidea Euskal Herriko artea edo artea Euskal Herrian litzateke. Euskal Artea, gaur Euskal Herri deitzen diogunaren mugen barruan historikoki egiten edo kokatzen denari deitu diezaiokegu: Paleolito garaikoa, Erromatarren garaikoa, Erromanikoa, Gotikoa, Platereskoa... Euskal Herrian. Hala ere definizio horrek sortzen ditu zalantzak, izan ere, mendeetan zehar, lur hauetako mugak eta askok Euskal Herria deitzen diogun jende taldeak, beti berak ez direla izan kontuan hartzen bada.

<sup>10</sup> PLAZAOLA, J. (2002): *Euskal Artearen historia. (Tomoak I; II, III, IV)*. Euskal Herri enblematikoa. Etor-Ostoa, Donostia



Aurreko irizpide geografikoarekin batera baliagarria deritzo, aipatu adituak, Euskal kultura eta identitatea ere irizpide modura onartzea, baldin eta ez badira mitifikatzen. Adibidez, Errenazimendua Euskal Herrian aztertzerakoan, Chueca Goitia arte gaietan adituaren hitzak jasotzen ditu: *“Baskoniaren benetako estiloa sakona da, oinarrizkoa eta jatorrizkoa da: paisaia baten, arraza baten eta gizarte baten barruan idatzia dago. Florenzian bezala ez da jeinu buru batzuen oinarri gainetan finkatzen. Ez da historia, izaera baizik”*. Hau da aditu honen ustez euskaldunek Errenazimenduko artean uzten duten beraien izaeraren arrasto propioa. Baina Euskal kultura eta identitatearen irizpidea hobeto egokitzen zaio Euskal artisautzari. Euskaldunen sormen plastikoa tradizionalki eguneroko bizimoduari loturik dago. Euskaldunen eraginkortasun plastikoa tradizionalki eguneroko bizitzarekin (eta heriotzarekin) loturik egon da. Bere artea ateburuak, hilarriak, kutxak, uztarriak, katiluak, argizaiolak, aldabak, sarrailak, gurutzeak, lantze horretan gauzatu da. Lan horietan Euskal senak berariazko arrastoak utzi ditu. Artea ulertzeko modu hau oso moderno da, izan ere gaur egun asko dira arteak bizitzarekin uztartu behar duela diotenak. Ikuspegi honetatik bizitzaren eta artearen mugak lausotzen dira. Artea *“zerorrek egin dezakezun guztia da”* diote.

Aurreko irizpide horiek arte plastikoarekin bereziki (pintura, eskultura, arkitektura) pentsatauz finkatu dira, baina baliagarriak dira ikus-entzunezko eta euskarri digitaleko (zinema, argazkigintza, publizitate...) artegintzan ere.

Aurkezten dugun proposamena lau gai-multzotan antolatzen dugu:

### **Euskal Herriko artearen adierazpen eta autore nagusiak**

Arte-mintzaierek gizartearekin eta sortu zituen garaiarekin, bai eta artegileen baldintza berezi eta bizitzarekin lotuta daudela ulertzea, gizarte horren isla direla ulertzea. Euskal Herriko arte- sorkuntzak -artelanak- leku eta garai mugatu batean gizakiek zerbait komunikatzeko asmoz egindako jatorrizko emaitza gisa ulertu, aztertu, interpretatu, sistematizatu eta preziatzea nahi da.

Euskal Herriko arte paleolitikoa, klasikoa, Erdi Arokoa, XVetik XVIII. menderainoko artea eta, bereziki, azken mendeko arte garaikideak, eta bereziki inpresionismoaz geroztikoa sakontasun handiagoz jorratu beharko da, ikasleari bere garaiko artelanaren analisi, gogoeta, ulermen eta gozamenerako elementuak emateko.



### **Ikus-sistema berrien sorkuntza: zinea Euskal Herrian**

XX. mendearen 20ko hamarkadan hasi zen zinemaren komertzializazioa eta hor kultura berri bat sortu zen, gaur egun ezinbesteko bihurtu zaiguna. Euskal Herriko zinemagintza gure kulturaren ikus- entzunezko adierazpenaren zati bat den heinean ezagutzea beharrezkoa da. Konpetentzi espezifikoko hau bi norabidetan landu behar da: Alde batetik, behaketa jarrerak areagotuz, eta bestetik, irudien bidezko adierazpenerako sorkuntza bilakatzen lagunduz.

### **Artisautza: artearen eta herri kulturaren elkargune gisa**

Euskal Herriko historia oso aberatsa da artisautzaren tradizioari dagokionez; antzinako eta ez hain aspaldiko aztarna ugari gordetzen ditugu, eta horiei esker hurbil gaitzke artisautza-mundu horretara, garai haietan egin ziren objektu eta sistema praktiko haiek ezagutzera.

Artisautza-iharduerak, plastika hezkuntza-sisteman ikasleak bereganatzen dituen hainbat ezagutza lortzeko eta praktikan aplikatzeko bide bat dira. Nolanahi ere, aukeratuko diren teknikak errazak izango dira, hau da, berehalako aplikazioa eta emaitzak eskainiko dituzte, baina, bestalde, adierazpen-ahalmen handikoak izango dira, ikasleak ikerketarako eta sorkuntzarako sena gara dezan. Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesu tradizionalekin garatu eta aplikatzeko aukera irekiz.

### **Museoak eta erakusketak**

Artea eta gizartea lotzeko asmotan, XVIII. mendean garaiko botere publikoek museoak sortu zituzten, eta egun oraindik, museoen nortasuna asko aldatu bada ere, beraien hasierako eta lehenengo asmoa mantentzen dute. Artearen egoera orokorra neurtzeko orduan, adierazlerik hobenetakoa artearen eta gizartearen artean sortzen den harremana aztertzea bada, aukeretako bat museoen, arte zentroen, arte galerien eta erakusketa orokorren egoera aztertzea da. Ikuspegi honetatik Euskal Herriko arte eta artisten egoeraz, zeharka bada ere, aritzeko eta solasteko aukera ere emango digu



## 2. KONPETENTZIA OROKORRAK

Oinarrizko Hezkuntza amaitzerakoan, ikasleek ondorengo bost konpetentzia orokorrak garatuko dituzte. Konpetentzia orokor horiek guztiak badute Euskal curriculum espezifikoarekin lotura, baina bereziki 5. konpetentzia orokorrarekin.

- 1.- Errealitatean, naturan nahiz artelanetan ageri diren elementu formalak identifikatzeko eta aztertzeke gai izan behar dute, balio estetikodun irizpideak lortzeko, kritikoak izateko eta beren lanei nahiz besteenei buruzko iritziak emateko eta horiek ikusiz gozatzeko.
- 2.- Oinarrizko esku trebetasunak menderatzeko gai izan behar dute, teknika plastikoak erabiltzeko eta buruan dituzten irudiak lan plastiko burutu izateko behar den trebetasuna lortzeko.
- 3.- Egungo gure kulturaren zati handi bat osatzen duten irudiei (argazkia, bideoa, anagramak...) buruzko egungo hizkuntzak irakurtzeko, balioesteko, kritikatzeko eta erabiltzeko gai izan behar dute, horien edertasun formalaz jabetzeko eta mezuaren edukia ulertzeko.
- 4.- Hizkuntza plastikoak (marraztea, margotzea, modelatzea...) eta horiei dagozkien teknikak ezagutu behar dituzte horiek askatasunez erabiltzeko moduan, errealitateari buruz dituzten sentimenduak, ideiak edota sentrazioak adierazteko eta besteei horiek komunikatzeko.
- 5.- Artearen historiako eta gaur egungo artearen estilo, artista eta lan nagusiak – unibertsalak nahiz Euskal Herrikoak– ezagutzeko gai izan behar dute, egungo kultura ulertzeko eta bertan integratuta sentitzeko, baita adierazpen plastikoen balioa gehiago balioesteko ere.



### 3. EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. EUSKAL HERRIKO ARTEAREN ADIERAZPEN ETA AUTORE NAGUSIAK	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1.- Euskal Herriko Artearen estilo nagusietako arte adierazpen garrantzitsuenak bai eta artegile esanguratsuenak ere ezagutu, berezi eta azertu, denboran, espazioan eta testuinguru historikoan egokiro kokatuz, ondare kolektibo baten elementu gisa baloratuz</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koloreak hautematerakoan kulturak, oro har, eta euskal kulturaren ikuskerak duen eraginez (kolore hitzak, atsotitzak...) jabetzen da.</li> <li>- Badaki zein diren Euskal Herriko artearen eta arkitekturaren adierazpenik eta autorerik adierazgarrienak.</li> <li>- Obrarik eta autorerik adierazgarrienak dagokien garaiarekin lotzen ditu</li> <li>- Garai bakoitzeko artelan eta arte mugimenduen ezaugarri bereizgarri adierazgarrienak deskribatzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriko lanen eta autoreen ezaugarriak eta Mendebaldeko testuingurukoak lotzen ditu.</li> <li>- Euskal herriko arte adierazpenak balioesten ditu.</li> <li>- Euskal Herrian gaur egun sortzen den arte adierazpenarekiko interesa eta jakin mina azaltzen du eta bertze kulturetakoekin harremanzako gai da.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>Artearen eta arkitekturaren autorerik eta adierazpenik adierazgarrienak:</b></p> <p><b>1. Paleolito garaiko artea :</b> Haitzuloetako artea</p> <p><b>2. Metalaren Aroko megalitismoaren garapena:</b> Euskal Herriko geografia osoan zehar monumentu megalitiko ugari daude</p> <p><b>3. Burdin Aroa:</b> Kastroak eta gotorturiko herrixkak. Esanguratsuenak, La Hoya</p> <p><b>4. Erromatar aztarnak:</b> Veleia, Andelos, Oiasso, Banka, Baigorri eta Beskoitzeko meategiak...</p> <p><b>5. Arte Erromanikoa.</b> Santiago bidean zehar sakabanatua dago</p> <p><b>6. Gotikoa:</b>  <i>Arte erlijiosoa:</i> Orreagako Kolegio-eliza, Baionako eliza...  <i>Arkitektura zibila:</i> Iruñea eta Euskal Herriko Erdi Aroko hiriak eta gaztelu/gotorleku/dorre etxeak</p> <p><b>7. Errenazimentua</b>  <i>Arte erlijiosoa</i>  <i>Arkitektura zibila</i>  <i>Eskultura:</i> Juan Antxieta  <i>Baserriak:</i> Ainhua, Sara, Oharriz, Ipazter...</p> <p><b>8. Barrokoa:</b>  <i>Arte erlijiosoa</i>  <i>Arkitektura zibila:</i>  <i>Eskultura:</i> Luis Salvador de Carmona, Juan Pascual de Mena  <i>Pintura:</i> Ignacio de Iriarte, Martin Amigo</p> <p><b>9. Neoklasizismoa. Erromantizismoa.</b>  <i>Arkitektura (zibila eta erlijiosoa) eta hirigintza Euskal Herrian.</i></p> <p><b>10. XX. mendea Euskal pintura, eskultura eta arkitektura.</b>  <i>Eskultura:</i> Francisco Durrio, Nemesio Mogrobojo, Julio Beobide, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida, Nestor Basterretxea, Ricardo Ugarte, Remigio Mendiburu, Agustin Ibarrola, Andres Nagel, Txomin Badiola, Dora Salazar, Koldobika Jauregi...  <i>Pintura:</i> Dario de Regoyos, Igacio Zuloaga, Manuel Losada, Aurelio Arteta, Gustavo de Maeztu, Antonio de Guezalaren, Nicolas de Lecuona, Francisco Iturrino, Rafael Ruiz Balerdi, Jose Luis Zumeta, Agustin Ibarrola, Jose Antonio Sistiaga, Vicente Ameztoy, eta gaur egungo artista ospetsuak: Jesus Mari Lazkano, Xabier Morras, Xabier</p>	





Idoate...

**Arkitektura:** Bizkaiko zubia "Zubi Esekia", Deustuko Unibertsitatea, Miarritzeko Udal Kasinoa, Arantzazuko Andre Mariaren Baseliza, Gasteizko Foruen Plaza, Bilboko Guggenheim Museoa, Donostiako Kursaal Erakusketa eta Batzarretarako jauregia, Bilboko Euskalduna Jauregia, Iruñeako "El Baluarte" Jauregia eta Auditorioa.

#### Prozedurak eta jarrerak

- Euskal Herriko obren, artisten, estiloen ezaugarriak globalki esplika ditzaten kontzeptuzko mapak, ardatz kronologikoak, koadroak edo eskemak egitea.
- Artearen Historiaren oinarrizko terminoen glosategia egitea.
- Arteari buruzko ideien eta ikuskeren ahozko adierazpena, funtsezkoa eta begirunezkoa eztabaidetanedo elkarrizketetan egitea.
- Gure arte-ondarea ezagutu, gozatu eta baloratu; hori zaintzearen garrantziaz jabetu hurrengo belaunaldiei iristarazteko eta hondatu edo arriskuan jar dezaketen jokabideak baztertu.
- Euskal Herriko azken mendeko arte garaikideak, obra eta artista nabarmen batzuen azterketa-ekarpenik esanguratsuenak -obrei eta artistei dagokienez sakona egitea
- Bereziki, gaur egungo eta inguruko ikus sistema berrien adierazpenen analisi eta gogoeta egitea, hauen ulermen eta gozamenerako. Dagokion estilo, mugimendu edo nazioarteko korrontearen arabera sailkapena eta konparaketa, antzekotasunak eta eraginak nabarmenduz, bai eta ezaugarri bereizgarriak ere.
- Gaur egungo hizkuntza estetiko berriei, adierazpen-formei, materialei, esanahiei eta funtzioei buruzko argudiatze arrazoitua eta kritikoa egitea.
- Euskal Herriko artearekiko sentikortasun artistikoa, atsegin estetiko eta kritikarako sena garatzea, artelan baten aurrean adierazpenak egin ahal izateko.

## 2. IKUS-SISTEMA BERRIEN SORKUNTZA: ZINEA EUSKAL HERRIAN

Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2.- Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoa eta Euskal Herriari buruzkoaren adibideak ezagutu eta aztertu, gure ondare kulturalaren jakitun izateko eta ikus entzunezko adierazpenaren interpretazioan eta sorkuntzan lagungarri izateko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoa eta Euskal Herriari buruzko hainbat adibe ikuskatu eta aztertzeko dituzte.</li> <li>- Euskal Herrian sortu diren animazio filmerik ezagunenak ikuskatu dituzte eta genero honek duen garrantzia balioesten du.</li> <li>- Euskal Herrian ospatzen diren zinemaldi nagusien oinarrizko informazioa ezagutzen du.</li> <li>- Euskal filmategia zer den badaki.</li> <li>- Euskal Herriko zinemagintza interpretatzeko eta kritiko izateko baliabideak eskuratu ditu.</li> <li>- Euskal Herriko zinemagintza hizkuntzagatik, kulturagatik eta egungo irudiaren mundura hurbiltzeko gaitasuna ematen duelako balioesten du eta berarekin gozatu egiten du</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>Euskal Zinemagintzaren zenbait filme adierazgarri:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Amalur</i> (1968) dokumentala;</li> <li>- <i>La fuga de Segovia</i> (1981); Zine Politikoa</li> <li>- <i>La conquista de Albania</i> (1983);</li> <li>- <i>La muerte de Mikel</i> (1983);</li> <li>- <i>Tasio</i> (1984);</li> <li>- <i>Hamaseigarrean aidanez</i> (1985)</li> <li>- <i>27 horas</i> (1986);</li> </ul>	



- *Lauaxeta* (1987);
- *Tximeleta hegoak* (1991)
- *Behiak* (1992);
- *Piztiaren eguna* (1995)
- *Obaba* (2005)
- *Aupa Etxebeste*(2005)
- *La pelota vasca* (2006)
- *Kutsidazu bidea Ixabel*(2006)
- Euskarazko animazio filmak: euskal zinemaren adierazgarri
- Donostiako nazioarteko zinemaldia
- Biarritzeko nazioarteko zinemaldia
- Euskal Filmategia fundazioa

#### Prozedurak eta jarrerak

- Egin beharreko lanak, funtsean, bi motatako ardatzetan garatu beharra daude. Alde batetik, behaketa jarrerak ar-  
eagotzea, eta bestetik, irudien bidezko adierazpenerako sorkuntza bilakatzen laguntzea.
- Filmak ikusi eta aztertu
- Garaia, testuingurua, irudia, mezua, generoa, estiloa, teknika....kontutan hartuz
- Bideo bidezko irudi grabazioaren bitartez ikus-entzunezko lan bat sortu
- Zinemaldiei buruzko informazioa bildu
- Euskaraz egiten den zinea balioetsi.
- Euskal Filmategia fundazioaren Euskal Herriko ikus entzunezkoen memoria gordetzeko eginkizuna balioetsi

### 3. ARTISAUTZA: ARTEAREN ETA HERRI KULTURAREN ELKARGUNE GISA

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>3.- Euskal Herriko artisautza-lan tradizionalak -ezagutu eta aztertu, jatorria, materiala eta forma kontuan izanik, eta estetikaren eta erabilgarritasunaren aldagaiak barne hartuz, ezagutza horiek plastika sorkuntza lanetan erabili ahal izateko, aberastu eta osatzeko eta arte-sorkuntzaren izaera globala eta disziplinarterkoak baloratzeko bide gisa duten balioaz jabetu.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko artisautza tradizioa identifikatzen du eta artisautza-produktuak kultur ondare gisa balioesten ditu.</li> <li>- Artisautzarako erabilitako naturako materialen, formen, testuren eta koloreen aberastasuna eta aniztasuna behatu eta balioesten du</li> <li>- Artisautzan erabiltzen diren hainbat erreminta eta tresna ezagutzen ditu</li> <li>- Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesuan aplikatzen ditu.</li> <li>- Artisautza-objektuak eginez eskulanetarako trebetasunak erabili eta garatzen du</li> <li>- Erabakiak hartzean eta arazoei irtenbideak bilatzean autonomiaz, ekimenez eta konfiantzaz jokatzeko du.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>Euskal Herriko artisautza tradizionala:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Harria</b> artisautza: Hilarriak</li> <li>- <b>Zura</b> artisautza: Sukaldeko tresnak, kaiku, abatsa, taloaske, ezelaz egindakoak, egurrezko goilarak, argizaiola. Saskigintza (gaztaina, zumea..), altzari tradizionalak, kutxak</li> <li>- <b>Larrua</b> artisautza: abarkak, zagiak, zatoak</li> <li>- <b>Metal</b> artisautza: Forja artistikoa, damaskinatua</li> <li>- <b>Buztina</b> artisautza: zeramika</li> <li>- <b>Ehuna</b> artisautza</li> </ul> <p><b>Euskal Herriko musika tresnekin lotutako artisautza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirrikak, firringala, txalaparta, txistua....</li> </ul>	



<b>Prozedurak eta jarrerak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko artisautza-lanaren jatorria, aztertzea, artisautzei buruz dokumentuetan oinarritutako ikerlanak eginez eta ahozko, idatzizko eta irudizko informazioak aplikatuz.</li> <li>- Ikerketarako informazioa bilatu eta biltzea, liburutegi, museo, erakusketa eta beste zenbait zentrotan.</li> <li>- Herriko edo eskualdeko artisau bati buruzko ikerkuntza-lantxo baten ondorioak aurkeztea, euskarri desberdinak erabiliz (bideoa, diaporama, murala, hormirudia,...).</li> <li>- Gaur egun dauden ekipamendu didaktiko desberdinak ezagutzea, horien bidez Euskal Herriko historian zehar garatutako artisautza-ofizio eta iharduera batzuen errealitatera hurbildu ahal izango baikara (San Telmo Museoa, Untzi Museoa, Elosuko Buztingintza Museoa, etab.).</li> <li>- Euskal artisautzak sortu dituen hainbat objektu aztertzea: . Ezaugarri fisikoak(artisautza-objektua osatzen duten materialen egitura eta ezaugarriak, aplikazioaren arabera); . Ezaugarri funtzionalak(objektuak sortzera bultzatu zuten beharrak eta belaunaldietan zehar izan duten bilakaera); Objektu funtzionalen kalitate estetikoak, sinbolikoak eta sozialak.</li> <li>- Euskal Herriko artisautzan oinarrituz artisautza objektuak eraikitzea.</li> <li>- Gure ingurunekeo natur baliabideak aprobeztatuz eta errespetatuz, arte sorkuntzarako baliabide gisa balioestea</li> <li>- Euskal Herriko ondare kulturala, historiko eta artistikoa ezagutu eta errespetatzea.</li> <li>- Artisautza euskal kulturaren adierazgarri eta identitate gisa baloratzea</li> </ul>

<b>4.MUSEOAK ETA ERAKUSKETAK</b>	
<b>Konpetentzia espezifikoak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
<p><b>4.- Euskal Herriko interesik eta esanahirik handieneko museo eta erakusketak ezagutu, aztertu eta gozatu, ahal denean irtenaldi, bisitaldi eta ibilbide artistikoen bidez eta zuzeneko behaketaz baliatuz.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko museo nagusiak eta erakusketetako artelan nagusiak ikusi eta aztertu ditu.</li> <li>- Ikusi eta aztertutako artelanekeo zein kalitate estetiko duten eta horien aurrean sentimenduek adierazteko gai da.</li> <li>- Ondare artistikoekeo errespetuzko jarrera azaltzen du eta zaindu, babestu eta ondorengo belaunaldiei igorri behar den ondasuntzat hartzen ditu.</li> </ul>
<b>Kontzeptuak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bilboko Guggenheim eta Arte Ederretako Museoa</li> <li>- Vitoria-Gesteizko Artium</li> <li>- Donostiako San Telmo Museoa, Chillida-Leku</li> <li>- Nafarroako Museoa</li> <li>- Oteizaren Etxe Museoa (Altuza)</li> <li>- Baionako Euskal Museoa</li> <li>- Beste zenbait museo eta erakusketa-areto (Eskualdekoak, herrikoak...)</li> <li>- Galeriak</li> </ul>	
<b>Prozedurak eta jarrerak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Museo eta erakusketetara egindako irtenaldi planifikatuetan zenbait artelanekeo zuzeneko behaketak eta analisiak.</li> <li>- Museo eta erakusketeei buruzko informazio bilketa.</li> <li>- Bertako erakusketa eta galeriekeo Euskal Herriko artelanekeo eta artistak ezagutzeko ematen duten aukera balioestea</li> </ul>	



## 4. GORPUTZ HEZKUNTZA



## 1. SARRERA

Herri eta kultur-talde bakoitzak, beste herriekin eta kulturekin joan-etorrian, sortzen eta egokitzen dituzte jokoak, jolasak, kirolak, ariketak eta oro har «gorputz-teknikak». Kultura eta jolasa/jokoa uztarturik daude. Herri baten «gorputz-teknikak» gizartearen isla dira, eta horrela, sozializazioarako elementu baliagarriak ere dira. Euskaldunok, adibidez, besoen indarra baloratu dugu, horrek baserri eta itsasoko lanerako duen gorputz indarraren garrantzia azpimarratzen duelako. Inuitek, berriz, aurpegian oinazea jasotzeko gaitasuna dute irizpide, ipar poloaren haize hotz izugarri eta mingarriak onartzea beharrezkoa baitute euren bizimodu gogorra aurrera eramateko. Kultura bakoitzak biztanleen giharrak, prozesu metabolikoak, garapen psikologiko diferentek bultzatu ditu, gizarteak ariketari ematen dion zentzuen arabera. Ez dago bada, gorputz heziketa bakarra, egiteko modu egoki bakarra. Egungo gorputz-hezkuntzak ahaztu egin du hezkuntzak haurra bere kulturen murgilduta erdigunea duela. Heziketa fisikoa, hezkuntza orokorrean gertatzen den bezala, ezin da berbera izan balio ezberdinak dituzten gizarteetan.

Aurrekoarekin batera, ukalezina eta begibistakoa da gorputz heziketak, oro har, eta baita jolas/jokoak ere unibertsalak direla. Giza espezieko gorputzaren ezaugarriak eta gaitasun eta trebetasun fisikoak funtsean berdinak dira arraza eta kultura guztietan eta mundializazioaren eraginez badira leku guztietan eta gure artean oso ezagunak eta jolas/joku tradizionalak baino askoz ere gehiago praktikatzen diren jolas eta jokuak. Guztiak dira uztartzekoak, baina Euskal Curriculum Espezifikoaz ari garenez, gorputz-heziketako curriculum antolatzeke ikuspegia euskal kulturaren barnean topatzen saiatu beharko dugu. Garai bakoitzak bere joku eta jolasak ditu eta euskaldunok saiatu beharko gara egungo gizarteko baldintzetan gure joku eta jolasak egokitzen.

Euskarak badu bi termino gaztelaniaz «juego» eta frantsesez «jeu» adierazteko, jokoa eta jolasa. Joseba Zulaika antropologoaren ustez, bi kontzeptuak, jokoa eta jolasa, izaera ezberdinekoak dira. Jokoaren ezaugarriak hauek dira: lehia, bipolaritatea, neurtutako denbora eta toki zehatza, eta irabazlearen anbiguitasun gabeko definizio argia. Jokatzea benetan eta serioki egiten da. Irabazi ala galdu. Euskaraz «*bata ala bestea*» esaldiak adieraziko luke jokoaren zentzua. Jolasa kontzeptuak, ordea, apurtuko luke «*ala*» hitzaren bipolaritatea. Horren ordez, «*bata eta bestea*» kontzeptua eskaintzen du. Ondo pasatzeko jolasten gara. Ez dago irabazle argirik. Jolasten direnek, aldi berean, irabazi *eta* galdu egingo dute. Anbiguitasunez betetako ekintzak dira, «egiaz betetako gezur biribilak».

Horiek horrela, euskal kulturak aisiaren gorputz-teknikak aurkezterakoan bi kontzeptu bereiz daitezke: «kirol-jokoa» eta «kirol-jolasa», kirola motorraren sinonimoa eginez eta adjektibo gisa erabiliz betiere, gure hizkerak ohi duen moduan. Bi ikuskera horiek dira bada,



euskal gorputz heziketako curriculumaren irizpideak. Jokoak eta jolasak euskaldunak egiten gaitu, aho hizkuntza ez den gorputz komunikazioa barneratzen. Euskal kirol-aisia bitan banatua agertzen zaigu, batetik, jokoaren irabazteko gozamina eta bestetik, elkarrekin ondo pasatzeko jolasaren plazerra. Bi ikuskera horiek, bi sozializazioen bideak dira, gure kultura eta gizartearen bi alboak, ikasleek biak bereganatu beharrezko dituztenak. Gure curriculumak, bada, bi arlo nagusi horiek edukiko ditu, kirol-jokoa eta kirol-jolasa, sozializazioak bultzatzen dituzten jokoak eta jolasak. Jokabide motorraren «euskalduntze» prozesu hori euskal giza ardatzak barneratzerako prozesua da.

Esan daiteke Euskal joko-jolasak bi muturretan zabalduko ardatz edo “continuum” batean banatu daitezkeela. Horrela, erpin batean “jokoa” dago eta beste erpinean “jolasa”:

**Jolasen multzoa:** Ez dago ezer jokoan, jolasten da eta kito. Harreman soziomotorra nagusia da, garaile gabekoa, objektu gabekoa eta edozein eremutan eman daiteke, basoan, etxe inguruan, itsasoan, plazan...Araudia hurrek beraiek aldatzen eta onartzen dute. Aldaketak egitea arrunta da. Araudiak egoera ezberdinean ipintzen ditu jolaskideak: harrapatzaile iheslari... talde harremana aberatsa izan dadin. Laburbilduz, jolasaren filosofia «elkarganatzeko» denbora-pasa da.

**Jokoen multzoa:** Zerbait dago jokoan eta jarduerak espazio zurrean egiten dira. Araudia «inposatua» dago. Ezinezkoa da aldaketarik egitea, eta araudiak jokalaria guztiak egoera parekoan ipintzen ditu, gero nor den gehiago jakiteko. Laburbilduz, jokoaren filosofia «irabazteko» denbora-pasa da.

Herri kirolen bidez, beste edozein kiroletan bezala, indarra, abiadura eta erresistentzia, hau da, konpetentzia fisikoak garatzen dira eta horrekin batera norberaren garapen pertsonala eta emozionala eta elkarrekin bizitzeko jarrerak garatzen dira. Baina euskal joko-jolasak badituzte balio erantsiak, izan ere horien bidez euskal gizartearen bizitzeko erak, baloreak eta izaera ezagutzen dira. Bestetik, Euskal Herrian jatorri eta kultura askotariko jendea bizi gara eta joera hau areagotuko da. Euskal joko eta jolasak denok ezagutzea eta elkarrekin aritzea eta era berean gurekin bizi direnen beste joko eta jolasak ere ezagutzea eta horietan aritzea, kultur artekotasunerako eta elkarbizitzarako bide egokiak dira.

Euskal jolas eta jokoen artean hautatzeko, ondorengo irizpideetan oinarritzen gara: arauen ulermen erraza, materialaren erabilpen eroso, adin hauetarako atseginak, mutilak eta neskek lehiatzeko eta parte hartzeko modukoak, integratzaileak, eta jokabide motorraren bidez pertsona osoaren garapenerako aberatsak (garapen fisikoa, kognitiboa, soziala, afektiboa...)



## 2. KONPETENTZIA OROKORRAK

Gorputz Heziketa arloaren bidez, osotasunez hartuta, ondorengo zazpi konpetentzia orokorrak lortu nahi dira. Konpetentzia horiek beraien artean lotura dute eta guztiak dute zer ikusia Euskal Curriculum Espezifikoarekin, baina bereziki 3. konpetentzia orokorrak.

- 1.- Emozioek sorrarazten dizkiguten aldaketak identifikatzea. Halaber, izaten ditugun aldaketa fisiologikoak interpretatzea, eguneroko bizitzara horien transferentzia egitean, gure jokabide motorra ahalik eta orekatuena izan dadin.
- 2.- Elkarrekintza motorra komunikazioaren oinarria izatea, eta, beste pertsona batzuen eta nire arteko komunikazioaren barruan, besteek egiten dituzten adierazpen motorrak irakurtzea, adierazpen horien bidez lortu nahi diren helburuak bete ditzan harremanak.
- 3.- Jokabide motorra unibertso kulturalaren (etnomotrizitatea) ikuspegitik ulertzea. Halaber, jokabide motor orori sare sinboliko bat (espazioa, denbora, besteak, objektua) lotzen zaiola deskubritzea, eta, horretaz jabetuta, euskal kulturaren baloreak zein kanpoko kulturen baloreak errespetatzea eta balioestea.
- 4.- Ludikotasuna elkarrekintzaren ardatza izatea eta pertsonen arteko komunikazio ludikoaren indarra ulertzea, eguneroko bizitzako arazoan aurrean azterketa egokiak egiteko eta erabaki baikorrak hartzeko.
- 5.- Espazioaren ziurgabetasuna pedagogikoki erabiltzea, eta ziurgabetasun horrek sorrarazten dizkigun aldaketa emozionalak interpretatzea, eguneroko bizitzaren ziurgabetasunak sortzen dizkigun zalantzei ahalik eta erantzun zuzen eta neurritsuenak emateko.
- 6.- Osasuna bere osotasunean ulertzea eta lantzea, eta osotasun horrek dituen ezaugarriak (fisiologikoak, biologikoak, bioenergetikoak, emozionalak, higienikoak, dietetikoak eta abarrekoak) ezagutzea, bizitza orekatua izateko.
- 7.- Gaitasun eta trebetasun fisikoak jokabide motorraren lagungarri izatea. Halaber, konpetentzia eta trebetasun horiek haur eta gazteen bilakaera ebolutiboarekin batera garatzea eta suspertzea, gorputzaren plastizitateak pertsonaren natura primarioarekin bat egin dezan.



### 3. EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. EUSKAL JOLAS ETA JOKOAK	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1.- Euskal jolas eta jokoak ezagutu, horien gizarte eta kultur esanahiaz jabetu, egoki egiten saiatu, emozioak eta sentipenak ulertu eta adierazi, eta jolas eta joko horien artean batzuetan zaletu eta menderatu.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki euskal jolas eta jokoak zerrendatzen eta horien jatorria azaltzen eta kokatzen.</li> <li>- Badaki jolas eta joko bakoitzari dagokion lekua zein den, zein den bakoitzaren sare sinbolikoa, norekin, zein material behar den eta zein diren arauak.</li> <li>- Garaian garaiko euskal tradizio ludikoak ezagutzen ditu eta badaki horien esanahia eta parte hartzeko baldintzak.</li> <li>- Badaki zein diren euskal jolas eta joko batzuetako pertsona ospetsuenak.</li> <li>- Euskal jolas eta jokoetan parte hartzen du eta ezagutzen eta errespetatzen ditu jolas eta joku horien arauak.</li> <li>- Joku eta jolas bakoitzari dagokion jarrera egokia azaltzen du.</li> <li>- Badaki irabazten eta galtzen.</li> <li>- Saiatzen da jolas eta jokoetan ahal duen onena ematen eta hobetzeko ahaleginak egiten ditu.</li> <li>- Taldean egiten diren jolas eta jokoetan arduratsua da, iniziatiba hartzen du eta elkar lankidetzarako prest dago.</li> <li>- Joku eta jolasen bitartez, komunikazioaren hiru egoera hauetan ondo moldatzen daki: bakarka/kidearekin, aurkariarekin/gabe, ziurtasunarekin/gabe.</li> <li>- Badaki jolas eta jokoetan bizitzen dituen emozioak (pozak, frustrazioak...) hitzez eta gorputzaren keinuz adierazten eta behar denean kontrolatzen.</li> <li>- Norberaren ezaugarriekin hobeto egokitzen diren euskal jolas eta jokuak menderatzen ditu eta zaletasuna erakusten du.</li> </ul>
Kontzeptuak	Prozedurak eta, jarrerak
<p><b>1.- Berezko euskal jolasak</b></p> <p>Ez da bakoitzak nahi duena egitea; proposamen batetik edo gehiagotik sortzen da, harremanak eta giroa egokiak diren lekuan. Arauarenganako errespetuak orekatzen du harreman hori; hori ez baldin bada horrela gertatzen, jolasa erasokorra, pultsionala bilakatuko da. Ezagutu eta burutzekoak, esaterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Kooperatiboak</i>: eltzea, sagar jalea,..</li> <li>- <i>Ezkutaketakoak</i>:: ezkutaketan, kukua,altxor bila,..</li> <li>- <i>Erritmikoak</i>: soka-saltoak...</li> <li>- <i>Harrapaketakoak</i>: zaldia eta zalduna, marron...</li> <li>- <i>Eskuzkoak</i>: hatzak, esku kolpeak, txalopintxalo</li> <li>- <i>Apunteriakoak</i>: plotten, makila botatzea, kanikak, tiragoma...</li> <li>- <i>Orekazkoak</i>: txingotan, oilar borroka...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arauen erabilera jolasean taldekako egoerak antolatzeko. <i>Auzolanaren kontzeptua</i>.</li> <li>- Jolasen oinarrizko estrategiak erabili: kooperazioa, oposizioa, kooperazioa-oposizioa.</li> <li>- Jolasak ingurune naturalen burutzea.</li> <li>- Arau, aldagai desberdinenenganako errespetua, kontuan hartuz aniztasunaren barneraketak berarekin daraman aberastasuna.</li> <li>- Jardueretan parte hartzea eta laguntzarako eta kooperaziorako jarrera agertzea.</li> <li>- Gure jolasekiko konpromisoa eta atxikimendua jarduerak burutzeko orduan.</li> </ul>





<p><i>Jolas libreak: xiba, tortoloxetan...</i></p>	
<p><b>2.- Berezko euskal jokoak:</b> Aberastasun psikomotorra, zein soziomotorra eta kulturala duten jokoak dira eta gizarteratze prozesuak bideratzeko aproposak dira. - <i>Espazioaren antolaketa inguruan : ikurriñaren defentsa jokoak</i>, orientazio lasterketa, artzain jokoak... - <i>Dimentsio kognitiboa</i>: musa...</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal jokoak ezagutuz eta praktikaturaz euskal gizartearen izaeraz ohartzea.</li> <li>- Leinuen ondare ludikoa bilatu.</li> <li>- Herriko ohitura ezberdinak aurkitu eta praktikatu.</li> <li>- Inguru edo bailarakoekin konparatu</li> <li>- Ahantzitako jokoak/ak ikertu eta berreskuratu.</li> <li>- Ondare ludiko hauek ezaugarri kultural propio bezala baloratzea.</li> <li>- Taldean hartutako ardurarekin konprometitzea.</li> <li>- Denbora librerako ezaugarri gisa jokoak erabiltzea.</li> </ul>
<p><b>3.- Euskal jolas- joko arautuak:</b> Inguruko ondasun kulturala osatzen duten jolas-jokoaren azerbo amankomuna izatera dute helburu.</p> <p><b>3.1.- Lanbide bat dutela sorleku esan daiteke:</b> Nekazal-itsas giroan sortutakoak dira gehienak, eraikuntza lanetatik datozenak ere egon arren (palankariak). Aurrera begira bi ildo nagusi lantzea da dagokigun lana: batetik, euskal nortasunezko kirolak berrindartu eta batzuek berpiztu, gure herriaren berezko ohitura eta gizarte eredu baten bila abiatuz, historikoki eta demokratikoki dagokiguna berreskuratuz. Bestetik, gure antolaketa eta eredu propioak garatu eta bermatu behar ditugu, edozein lekutan aritzeko aukerak landu eta eskuratuz. Garapena zein hedapena honako ezaugarri hauek dituzten artean egingo da bereiziki: - <i>Tira</i>: sokatira, arrauna.. - <i>Korri</i>: zaku proba, orientazio lasterketa, lokotxak... - <i>Jauzi</i>: zaku lasterketa, saltari makila, urdanga... - <i>Altxa</i>: txingak... - <i>Jaurti</i>: palanka, boloak, toka...</p> <p><b>3.2.- Euskal pilota:</b> Euskal pilotaren barne sartzen diren joko motak ugariak izanik ere bi multzotan sailka daitezke: - <i>Joko zuzenak (aurrez-aurrekoak)</i>: boteluztea, laxoa eta errebotea. - <i>Zeharkako jokoak (horma bitarteko dela jokatzeko direnak)</i>: frontoi motzeko, luzeko eta trinketeko modalitateak Multzo bakoitzeko joko-mota bakoitzak erabiltzen dituen tresnen izenak, espazioa antolatzeak erak eta jokatzeko arauak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohizko nortasun homogeneousoa lortzeko aritzearen oinarriko mekanika ezagutu eta neurtu harrera piztuz.</li> <li>- Lankidetzak eta aurkakotasuna asetzeko jarduerak an-Ohizko nortasun homogeneousoa lortzeko aritzearen tolatu eta burutu talde mailako rol ezberdinetan."Auzolanean".</li> <li>- Harreman alderdiak hobetsiz, aliantza estrategikoaz baliatu.</li> <li>- Eskuartze aukerak areagotzeko, saiakera eta gaintze joerak azaldu.</li> <li>- Komunikatzeko eta elkar ulertzeko bitarteko gisa duen adierazpen aberastasuna aitortzea, balioestea eta erabiltzea.</li> <li>- Trebakuntza heziketa-tresna bezala erabili</li> <li>- Partaidetza baloratzea</li> <li>- Talde lanaren funtzioetan kooperazioa eta onarpena.</li> <li>- Arautegiari errespetua</li> <li>- Kapazitate ezberdinen dibertsitateari begirunea.</li> <li>- Beizkeria gaintzeko integrazioa, berdintasuna baloratu .</li> <li>- Taldean, norbanakoaren esfortzua kapazitatearen arabera baloratu</li> <li>- Modalitate ezberdinen arteko lotura eta harreman transferentzia modu erosoan egin, espezialitate anitzen bidez, arauak beharrezko arabera moldatuz eta aipatutako modalitateetan lankidetzak, kooperazioa eta aurkakotasunaren praktikaz baliatuz.</li> <li>- Euskal pilota espezialitate batzuen esperimintazioa.</li> <li>- Berriazko trebetasunen jabetze eta erabilpena (oinarri teknikoak)</li> <li>- Praktikaren berreraikuntza egokitzea.</li> <li>- Tresnak ondo erabiltzeko prozedurak.</li> <li>- Bakoitzak bere tresnak (esku-pilota...) egiteko prozedurak.</li> <li>- Aurkakorik ez dagoen tokira pilota bidaltzeko gaitasuna</li> </ul>



	<p>lortzeko teknikak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jokatzeko espazioan norbera ondo kolokatzeko eta aurkakoa lekuz kanpo uzteko gaitasuna lortzeko teknikak.</li> <li>- Norberaren mesedetan eta aurkakoaren kaltetan, espazioak handitu edo/eta txikitu, edota espazio berriak sortzeko gaitasuna lortzeko teknikak.</li> <li>- Norberaren eta aurkakoaren ezaugarriak ezagutu eta aztertu ondoren, partidua irabazteko, unean uneko egoeraren arabera, taktikak egokitzeko gaitasuna lortzeko teknikak.</li> <li>- Taldean jokatzenean, norberaren protagonismoa taldearen zerbitzuan jartzeko jarrera.</li> <li>- Taldean jokatzenean, inor baztertu gabe, denok jokatzeko ahaleginak egitearen aldeko jarrera.</li> <li>- Arauekiko jarrera errespetatzea</li> <li>- Espezialitate ezberdinen balorazioa, aberastasun kulturalaren alde garrantzitsu bezala.</li> <li>- Gaitasunen aniztasunaren onarpena, gauza aberats eta normal bezala.</li> <li>- Pilota espezialitate ezberdinen onarpena, planteamendu sexistarik gabe.</li> <li>- Oinarrizko ekintza estrategikoen aurrean jarrera arduratsua.</li> </ul>
--	---

## 2. NATUR JARDUERAREN BIDEZKO EZAGUTZA KULTURALA

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2.- Natur jardueretan oinarrituz, eskolaren inguruko zein Euskal Herriko inguruak eskaintzen dituen aukerak erabili, gorpuzaren garapenarekin batera ingurune fisikoa eta kulturala ezagutzeko eta maitatzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Inguru fisikoan ondo orientatzeaz gain, leku estrategikoak bilakatzeko gai da.</li> <li>- Gaitasun osoa du mapa baten arabera ibilaldi motz zein luze bat egiteko autonomia osoaz.</li> <li>- Parte zuzena hartzen du talde lanean zein kolaborazio lanetan</li> <li>- Ziurtasuna eta lege neurriak zorrotasunez betetzen ditu</li> <li>- Ezagutza kulturak handia lortu du bere herriaren ingurumenarekiko</li> <li>- Atsegin handiz parte hartzen du mendi eta natur jardueren inguruko kirol ekintzetan.</li> <li>- Parte hartzeaz gain eskua botatzen du ekintza desberdinen inguruko antolaketetan</li> </ul>
Kontzeptuak	Prozedurak eta, jarrerak
<p>Jarduera bideratzeko ondorengo irizpideetan oinarritzen gara: ingurua ezagutu jarduera berri batez, material errekurtsuak kontuan hartuz, arrisku posibleaz ohartuz eta inguru sozial, kulturalaz jabetuz.(Etnomotrizitatea, ludikotasuna).</p> <p>Espazio lehorreko zein itsasoko jarduerak ezagutuko dira:</p> <p><b>Lehorrean:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Natur guneekin familiarizazio lana:</i> orientazioaren oinarri basikoak: distantziak, eskalak, desnibelak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planoak eta mapen laguntzaz ezagutzaren praktikak burutu.</li> <li>- Ezaugarri edo sinbolo jakinen bidez bidea ezagutu.</li> <li>- Krosa edo maratoi txiki-ertainaren antolaketa eta praktikak burutu.</li> <li>- Norberaren konpromisoa kidearekin tartekatu/egokitu.</li> <li>- Behar-bezain besteko</li> <li>- Natur jardueren inguruko herri edo eskola olinpiada gauzatu.</li> </ul>



<p>Kartografia zein mapa topografikoaren inguruko nozioak barneratu ibilaldiak, korrikaldiak, maratoiak, ... eginaz.</p> <p>- <i>Horizontaltasunetik bertikaltasunarena pasa inguruaz baliatuz</i>. Oinarrizko garapenak landu: arriskua eta perila zer den gogoratu eremu natural batean: natura eta rokodromoko eskaladaren berezitasunak azpimarratu. Ziurgabetasuna, proxemika...</p> <p>- <i>Ezagutza kulturalaren praktika egin inguruaz eta materialaz baliaturik</i>: bizikleta BBT, ...</p> <p><b>Itsasoan:</b></p> <p>- <i>Euskal arraunaren inguruko praktika</i></p>	<p>- Ahalbide maila ezberdinak errespetatzea, ahalmenak eskuratzeko orduan aniztasunak eta lankidetzak duten balioa kontuan hartuz.</p> <p>- Taldeko zein bakarkako natur-jarduerek eskatzen duten ahalegin eta autoexijentzia beharra baloratzea, norberaren gorputzaren mugak errespetatuz.</p> <p>- Inguru naturalaren errespetua eta, kultur balioa ondarearen zati gisa baloratzea.</p>
--	--



## 6. GIZARTE ZIENTZIAK



## 1. SARRERA

Gizarte Zientzien arlorako curriculum espezifikoa proposamenaren **helburua** ikaskuntza arloetako xedeak lortzen eta konpetentzia orokorrak garatzen laguntzarekin batera Euskal Herrian bizitzeko beharrezkoak diren konpetentzia espezifikoa eta edukiak definitzea da.

Zehatzago esanda, helburuetako bat ikasleei euren burua hobeto ulertzen laguntzea da: pertsona bakarrak dira, baina beste batzuekin batera bizi dira gizartean, eta hainbat taldetan antolatzen dira, helburuen edo mailen arabera (familia, eskola, bizilagunak, udalerrria, nazioa, etab.). Helburua talde horiek hobeto ezagutzen laguntzea da, eta talde horietan modu aktiboan parte hartzen laguntzea. Talde horiek elkarrengileak dira, urte luzeetan berrantolatu dira eta hainbat jatorritako (politikoak, ekonomikoak, sozialak, etnikoak, kulturalak, etab.) bizikidetzak gatazkak eta tentsioak izan dituzte eta izaten ari dira. Beharrezkoa da gatazka horiei bake eta demokrazia prozesuen bidez aurre egitea guzti hau euskararen lurraldean kokaturik.

Gizarte Zientzien beste helburua, euskal gizartearen bilakaera historikoa eta bere gizarte-osagaiak aztertzea da, bere osotasunean hartuta aztertzea, egunez egun sortuz doazen gizarteko elkarrekintzen sarean, baina euskal errealitatea bere baitatik –barrutik- begiratuta, ikuspegi lokala abiapuntutzat hartuta.

Barandiarani jarraiki, zibilizazio ezaugarriak edo kultur elementuak honako hauek direla esan dezakegu: giza talde batek bizitzaren oinarriko arazoei ematen dizkien erantzunak edo irtenbideak. Hortik sortzen da gure herriaren berezitasunak ezagutzeko interesa, eta horri zor diogu, hein handi batean, gure heziketa. Gure euskal herriak oso aurrekari urrunak ditu, bere prozesu historikoaren fase askotan beste talde batzuen eragin sakonak izan ditu, eta bizi forma originalak garatu ditu, denak honako zazpi galderen bueltan kiribiltzen ditugularik:

### **Non bizi gara eta nola antolatzen dugu espazioa?**

Ezin dugu pentsatu isolaturik gaudenik munduan. Gure ingurunea planetaren funtzionamendu globalaren barruan dago, eta ezagutu beharreko zenbait lege eta printzipio orokorren mende geratzen da, adibidez eguratsaren zirkulazio orokorra ezagutu behar da, Euskal Herriko klima zuzen interpretatzeko.

Gure paisaia, gure kultura bezalaxe, milaka urtetan zehar moldatzen joan da gaur egungoa izatera iristeraino; hori ulertu nahi badugu, modelatze horretan eragin duten arau orokorrak aztertu eta ezagutu behar dira, eta beste erregela txiki batzuekin, tokian tokikoekin, osatu, hauek izan baitira ukitu berezi bat eman diotenak «gure» paisaia bihurtzeko.



Paisaia honek zenbait arazo ere planteatzen ditu, gizakiak izadiarekin duen elkarrekintzatik sortzen direnak, oro har. Gure ingurunea sakon ezagutzeak eta funtzionamendu-mekanismoak ulertzeak bakarrik ahalbidetuko digu sortutako arazoak konpontzeko neurriak planifikatu edo proposatzea, gizakiaren eta bere ingurunearen arteko oreka orokorra bilatuz.

### **Zein eta zenbat gara?**

Euskal Herriaren bilakaera sozio-politikoa ulertu nahi badugu ezinbestekoa dugu denboraren joan etorrian Euskal Herrian egon diren biztanleria aldaketak ezagutzea, demografiaren dinamikak kulturen, hizkuntzan, ekonomian duen eraginaz jabetzeko eta zuntz horiekin eraiki beharko dugulako etorkizuneko Euskal Herria.

Demografia zein migrazio mugimenduei dagokionez, bereziki, azken 125 urteak hartu ditugu mugarri bertan kokatzen baitira egungo euskal gizartea baldintzatu eta eraldatu dituen inflexio punturik garrantzitsuenak. XIX. mendean Euskal Herriak ia 900.000 biztanle bazituen XX. mende osoan biztanleriaren kopurua hirukoiztu egin zen. Garai horretan gertatu da *iraultza demografikoa* deitu izan dena: jaiotza eta heriotza asko dituen eredu batetik, jaiotza ugari baina heriotza gutxi dituen beste eredu batera igarotzea alegia, horrek dakarren hazkunde demografikoarekin. Iraultza horren azken eskenatokia egungo ereduak dugu: bai jaiotzak eta baita heriotzak ere apalak diren ereduak hain zuzen.

Migrazio mugimenduei dagokionez, **emigratzeko** joera eduki duen lurraldea izan da Euskal Herria ia gaur egun arte. Izan ere, XIX. mende amaieran hasitako industrializazio prozesua gertatu baino lehen, nekazaritzan oinarritutako ekonomiak biztanle guztientzako adina ez zuenez ematen, mendez mende ehunka mila euskal herritarrek kanpora jo behar izan zuten. Hauek guztiak osatzen dute gaur egun euskal diaspora gisa ezagutzen duguna.

**Inmigrazio** fenomenoek ere errotik baldintzatu dute Euskal Herriko errealitate demografiko, ekonomiko, sozial, linguistiko, kultural eta politikoa. XIX. mende amaieran hasi zen etorkinen etorrera hori, industrializazioarekin batera Bilbo inguruan kokatzen. Dena den, mugimendu handiena azken urteetan ematen ari da, Europa osoan bezala, munduko lurralde txirotuetatik. Atzeritarren etorrera honek aldaketa sakonak eragingo ditu Euskal Herrian; bai etorkinen integrazio prozesuan, baita euskararen eta Euskal Herriaren etorkizunean ere. Gauzak horrela, bertan jaiotakoen eta kanpotik etorritakoen arteko errespetuan eta elkar ulertzean oinarritutako bizikidetzaren antolatzea funtsezko erronka izango dugu XXI. mendeko euskal herritarrok.

### **Nondik gatoz?**

Edukia bezain garrantzizkoa da historiaren funtzioa zein den argi agertzea. Zertarako egin behar da historia eta nolakoa? Soilik nazio baten nortasuna lantzeko eta zein nazio? Herritar



komunitatearen kontzientzia lantzeko eta suspertzeko? Guztien ondare kulturala transmititzeko? Gaurko mundua ulertzeko iragana aztertuz? Galdera zerrenda luza eta osa dezake bakoitzak.

Euskal Herria ez da modu isolatuan bizi, garatu. Ez gara uharte herri bat. Historiaurrean zehar, eta noski geroagoko historian ere, askotariko eraginak iritsi zaizkigu hala iparraldetik nola hegoaldetik. Gure kulturaren sorrera, Europako beste hainbatetan bezala, beste herri, ekarpen, jendeen migrazio eta elementu kulturelekiko harremanetan gertatu zen.

Hemen proposatzen den edukia behin behineko proposamena da. Azaltzen den historia Euskal Herrikoa da, baina Europako historia orokor baten barruan kokaturik, artikulazio eta marko politiko guztien gainerik, euskaldunak gutxienez Europako herritarrak baitira.

Lana ez da erraza, ikusirik Euskal Herriko lurralde bakoitzak bere historia berezia duela, bere iragan bereziari, bere dinamika sozio-politiko bereziari loturik. Euskal Herria aurpegi anitzetako baita, lurralde bakoitzak egoera juridiko bereziak bizi izan ditu iraganean. Hala ere, desberdintasun guztien gainerik, hori dira ezin ukatzeko eragile komunak, euskaldun guztien ondare komuna osatzen dutena.

### **Zein dira mundu ikuskerak eta erlijioak?**

Euskal kultura tradizionalak bere kosmobisio edo *munduaren ikuskera* izan du, kosmobisio askoren ekarpenez osatua, bere mitologia, sineste, usadio eta ohituretan zertzen dena, bere aztarna euskaran utzi duena, hau aldi berean errealitateaz egin dugun interpretazioaren inbentario eta egungo errealitatearen azterketa-tresna izanik. Era dinamikoan integratu ditugun eta integratzen ari garen ekarpen askoren barruan, bereziki garrantzitsuak dira europar herentziarekin partekatzen ditugunak: heleniar, erromatar eta kristau herentzia. Greziar munduak, beste ekarpen batzuen artean, arrazionaltasunaren ondarea utzi digu, eta horregatik sartu dugu azterketa kritikoa gure eskema kognitiboaren barruan ezinbesteko elementutzat. Erromatar munduak, besteak beste, legearen eta egitura juridikoen ikuspegia utzi digu. Kristau-herentziak, eta zehatzago esanda gure kasuan herentzia katolikoak, Jainkoaren irudira egindako gizakiaren mundu-ikuskerak jakin baten eragina du gure eskema kognitiboetan. Noski, informazio-gizartearen eragina eta egungo mundializazioak badute zerikusirik XXI. mendeko euskaldunok kultur eskema eta ereduetan egindako (egin beharreko) birlantzearekin. Elementu horiek guztiak, neurri handiagoan edo txikiagoan, subjektu bakoitzaren eta bere zirkunstantzien arabera, banakoaren eta taldearen mundu-ikuskerak taxutuz doaz, banandu ezinezko eran dituztelarik neurri batean gizadi osoak partekaturiko elementuak, beste batzuk europarrek eta beste batzuk era espezifikagoan euskaldunek partekatuak.



### **Nola bizi gara elkarrekin eta nola konpontzen ditugu arazoak?**

Euskal Herriaz aritzean, indarkeria edo bortxakeria aipatzen da behin eta berriz. Bere iturburu, ingurumari eta konponbideei buruzko eztabaidak kontrajarrita eta zatituta dauka euskal gizartea. Kanpoko eta barneko gatazka politikoak harreman eta arau asko lausotu ditu. Eta XXI. mendeko erronkarik garrantzitsuena justizian oinarritutako bakea eta normalizazioa lortzea izanen da. Horretarako eta ezinbestean gatazkei elkarriketaren bidez irtenbidea bilatzeko gaitasuna indartu eta garatu beharrean gaude, denon artean partekatzen ditugun elementu komunen kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko eta bizikidetzarako arauak elkarren artean eraikitzeko.

Euskal gizartearen bilakaerak azken berrehun urteotan, aipatu baldintzen eraginez, herri egoera berezia ekarri du, kulturalki anitza eta politikoki asmo kontrajarriak biltzen dituen: XXI. mendeko aberastasuna eta erronka aldi berean!

### **Nolakoak dira eta nola funtzionatzen dute erakundeek?**

Beren burua antolatzeko gaitasuna handia erakutsi du historikoki Euskal Herriak zein euskal gizarteak. Joera nabaria izan du auzolanean aritzeko eta arazoei zein beharrei erantzuteko gaitasun kolektiboa erakutsi du. Horrela historian zehar hainbat alditan argi erakutsi du bere legedi eta erakunde propioak sortu eta eraldatzeko gaitasuna. Gure legediek ibilbide luzea izan dute mendeetan zehar eta gure legedi ahalmenak gorabehera handiak izan ditu, hau murrizteko kanpoko eraso ugari jasan baititu.

Gaur egun ere egoera berezi xamarra da: Bi estatu eta hiru egitura administratibotan banatua, maila ezberdinetan, estatu horien menekotasunean bizi gara. Etorkizunean Europako Batasunak garrantzi berezia izan dezake estaturik gabeko nazioen indartze eta batasun prozesuan.

### **Nola lortzen ditut beharrezkoak zaizkidan gauzak?**

Herrialde baten iraganean, orainean eta geroan ekonomiak duen garrantzia jakin beharreko gaia da. Izan ere, edozein herriren ibilbide historikoan bizibideak nola erdietsi dituzten bertako biztanleek ezagutu behar da, arbasoek egiten zutenak gaur egungo jarduera ekonomikoa, hein handi batean behintzat, determinatzen baitu, eta orain egiten dugunak etorkizunekoak. Beraz, Euskal Herriko historia ekonomikoaren zertzeladak eman behar lirateke geure herria hobekiago ezagutzeko eta geroa proiektatzeko.

Hor ditugu burdin meategien aztarnak eta berauekin lotuta burdin olak, itsasaldeko ontziolak, arma fabrikak, etab. Gerora, duela gutxira arte iraun duten altzairutegiak sortu ziren, baina hauek ere eraldatuz joan dira, gaur egungo enpresa modernoak iraganeko haien ondorengo bezala kontsideratu behar direlarik. Ezin ahaztu, guztiaren erdian nekazaritza





dugula, baserriaren inguruan sortzen diren harremanekin, ezta gaur egun hain esanguratsuak diren zerbitzuen nagusitasuna ere.

Honek guztiak markatu du gaurko euskaldunon bizitzeko era eta horretan oinarritu geure kultura, eta era berean hori guztia etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko oinarriak ezartzen ari da.

### **Zer ezaugarri nagusik definitzen du egungo gizartea eta nora goaz Euskal Herrian?**

Euskal Herria abiatu da dagoeneko Informazioaren Gizartearen barrena. Hedabideetatik eta kultura-industrietatik bideratutako komunikazioak inoiz ez bezalako indarra hartu du gure gizarte bizitzaren hainbat alderdiren egituraketan. Kultura, politika, identitatea, kontsumoa, ekonomia eta beste hainbat gizarte-arlo haien inguruan antolatzen dira neurri handi batean. Euskal Herria bera, dagoeneko, ez bakarrik zentzu kulturean edo politikoan, baizik eta geografikoan ere, hedabideen eta kultura-industrien bidez eraiki eta transmititzen den errealitate bat da.

Komunikazio hori guztia modu zehatz batzuetan sortzen eta hedatzen da. Eta horiek gaur egun gero eta industrialagoak dira, merkatuari makurtuagoak eta globalagoak. Globalizazio garai hauetan, izateko bi modu daude, zein baino zein garrantzitsuagoa gurea bezalako herri txiki batentzat, eta zer esanik ez euskararentzat edo zehazki baita norberarentzat ere. Bat komunikazioa eta kultura-produktuak produzitzen jakitean oinarritzen da, haiak sortu eta hedatzeko ezagutza, trebezia eta kapazidadeak bereganatzean; bestea, berriz, iturri anitzetatik heltzen zaigun informazioa jasotzen, interpretatzen edo dekodetzen jakitean. Bi modu horiek uztartu eta garatzea ezinbestekoa dugu etorkizuneko herritar alfabetatuak sortzeko eta era berean gure kultura eta hizkuntza mundu globalizatu honetan desagertu ez dadin.

Galdera hauetan sakonduz, gauden seguru iritsiko garela ezagutzera Euskal Herriaren nortasun historikoa, hau da, bere biziraupenerako garatu izan duen bere ekonomia, sortu eta antolatu izan dituen bere erakunde politikoak, sortu eta garatu izan dituen harreman komunitario eta sozietarioak -direla familiakoak eta auzokoak, berdin taldeetan eta lagunarteetan zehazten diren gizarte-bizitzakoak-, gizartetik baztertuak direnenganako agertu izan dituen bere solidaritatezko loturak, asimilaziozko zein zapalkuntzazko politiken aurrez aurre erakutsi izan dituen bere erresistentzi sentimenduak... Hala bedi!



## 2. KONPETENTZIA OROKORRAK

Derrigorrezko eskolaldiaren epea amaitzerako (16 urte), Gizarte Zientziak arloaren helburua ikasleek honako konpetentziak hauek lortzea da:

1. Autonomiaz eta zorrotzasunez egitea gizarte gaietarako buruzko monografia txikiak (historikoak, geografikoak, politikoak, ekonomikoak, etab.), prozedura induktiboak nahiz arrazonamendu hipotetiko-deduktiboa erabiliz, modu fidagarrian aurre egiteko etorkizuneko edozein gizarte arazoren edo gai garrantzitsuren azterketari.
2. Modu zorrotzean planifikatzea eta gauzatzea gai politikoei, ekonomikoei, sozialei eta kulturei buruzko dokumentu iturrien kontsulta (liburuak, aldizkariak, datu baseak, iturri estatistikoak, dokumentu ofiziala), baita kode desberdinak dituztenenak ere (hitzezkoak, pikturikoak, grafikoak, numerikoak, etab.), aurrez ezarritako eskema baten arabera alderdi garrantzitsuenak aukeratuz eta, beharrezkoa denean, testuinguru historiko edo/eta geografikoan kokatuz, bilaketaren helburuen araberako sintesi bat egiteko.
3. Argi eta zehatz idaztea gizarte ezagutza eraikitzeke prozesuari buruzko testu generoak (deskribapen geografikoak, inkesta soziopolitikoak, azalpen testuen txostenak, etab.), baita gizarte harremanetan ohikoak direnak ere (merkataritza gutunak, eskaerak, instantziak, kexak, etab.), bateragarri eginez adierazpenezko objektibotasuna ñabarduretarako gaitasunarekin eta kasu bakoitzean eskatutako erlatibizazioarekin, horren guztiaren bidez komunikazio hobea eta gizarte harremanetara eta komunikazio testuinguruetara hobeto egokituko dena lortzeko.
4. Ikaskideekin batera, interesgarriak diren gizarte gaietarako buruzko benetako talde lanak egitea, modu aktiboan, sormena erabiliz, arduraz eta elkartasunez parte hartuz, bai gizarte antolaketa eta funtzionamendua ezagutzeko (esparru geografikoetan, historikoetan, ekonomikoetan, politikoetan, kulturaletan eta abarretan), bai taldeko lanak egiteko teknikez jabetzeko eta elkarren arteko mendekotasun handiagoa duten pertsonak eta taldeak gizartean positiboki barneratzeko.
5. Interes komunekin gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzea, planteatzen diren gaiak zorrotzasunez aztertuz, interes edo ideia gatazkei prozedura demokratikoen bidez aurre eginez eta norberaren uste osoak defendatzeko sendotasuna eta adostasunetara iristeko gaitasuna bateratuz, bazterketarik ez gertatzeko eta modu berean pentsatzen edo sentitzen ez dutenekin bakean eta errespetuz bizi ahal izateko.
6. Ikaslea pertsona bakarra eta konplexua dela onartzea, eta besteekiko harremanetan dituen ezaugarriak eta akatsak onartzea, euskal gizarteko kide moduan identifikatzen duten kultur ezaugarriez jabetzea eta horiek balioestea, eta beste talde batekoa eta, oro



har, gizakien taldekoa izatearen sentimenduarekin bateragarri egitea, gizarte tolerantia eta ez-baztertzaila eraikitzen saiatzeko.

7. Ekintza irudimentsuak eta eraginkorrak sustatzea eta ekitea, gizarteko errealitateko maila eta esparru desberdinetan, errealitateak eta egoerak aztertuz eta ebaluatuz, ekintza alternatiboak asmatuz, lortu nahi diren helburuetara egokitutako estrategien plangintza eginez eta abian jarritz, eguneroko bizitzako egoeretan ekiteko moduak hobetzeko, bai besteeiko harremanei dagokienez, bai natura baliabideen erabilerari dagokienez.



### 3. EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. NON BIZI GARA ETA NOLA ANTOLATZEN DUGU ESPAZIOA? BIDEGURUTZE ETA HARREMAN LEKUA	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1.- Euskal Herriaren inguru fisikoaren oinarrizko ezaugarriak eta aniztasuna ezagutu, espazioan kokatu eta modu egokian interpretatu, aldaketak identifikatu eta bizilekuak giza-harremanetan, kulturen, ekonomian eta, oro har, herrien eta pertsonen izaeran eta jokamoldeetan duen eraginaz jabetzeko eta ekintzapide pertsonal arduratsuen bidez praktika koherenteak sustatzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gai da Euskal Herriko eskala ezberdinetako mapatan Bizkaiko Golkoa, eta erliebe unitate nagusiak (mendikateak, mendi nahiz ibai nagusiak ) egoki kokatzeko, koordinatu geografikoak erabiliz.</li> <li>- Gai da Euskal Herriko mapa mota ezberdinak (erliebe mapak, klima mapak) eta klimogramak irakurtzeko eta interpretatzeko, teknikak modu egokian erabiliz.</li> <li>- Klimaren elementu nagusiak eta hauetan eragina duten faktoreak identifikatu eta deskribatzen ditu eta Euskal Herriko klimen ezaugarriak adierazteko erabiltzen ditu, baita gizakiaren bizitzan nola eragiten dioten edo eragin diezaizketen adierazteko ere.</li> <li>- Euskal Herriko paisaia nagusien elementu fisiko nabarmenenak ( erliebe, klima, ur...) konparatu eta laburbiltzen ditu, espazioan kokatuz eta giza-taldee ematen dieten aukerekin erlazionatuz:</li> <li>- Euskal Herriko paisaia-unitateak behatzen ditu, bere elementuen ezaugarriak zehaztuaz, erlazionatu eta erkatzen ditu, mapatan kokatzen ditu eta giza taldeek paisaiatan duten eragina aztertzen du.</li> <li>- Ingurune naturaletan giza ekintzen eragina identifikatzen eta adierazten du, aldaketa prozesuak sistematikoki behatzeko jarraibideak modu egokian erabiliz, bere kausa eta ondorio ezezkorrak murrizteko hartu behar liratekeen neurriak eta jarrerak adieraziaz.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>1.- Euskal Herriaren kokaleku geografikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eremu epeleko leku bat: koordinatu geografikoak.</li> <li>- Bidegurutzea Arku Atlantikoan.</li> <li>- Harreman lekua Europan: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Iberiar penintsularen eta Europa kontinentalaren artean.</li> <li>• Europa mediterraneoaren eta atlantikoaren artean.</li> </ul> </li> <li>- Kontrastei bide ematen dien kokalekuak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aniztasuna Euskal Herriko erliebean.</li> <li>• Kostaldea: hondartzak eta itsas labarrak.</li> <li>• Mendi eremuak – lurralde irekiak.</li> <li>• Egoera klimatikoen aniztasuna.</li> <li>• Sare hidrografikoa: bi isurialde desberdin.</li> <li>• Paisaia anitzak. Elementu natural eta giza elementu bereizgarriak.</li> </ul> </li> </ul> <p><b>2.- Kokalekua, fluxuen eta trukeen faktore gisa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Donejakueko bidea eta Europarekiko kultur trukeak.</li> <li>- Itsasaldean egotea, eta portuen bidez izandako ohiko merkataritza trukeak. Bilboko portuaren garrantzi berezia. Bilboko kontsulatua.</li> </ul> <p><b>3.- Gizakiaren eragina espazio antolaketan</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kantauri ertzaren eta Ebroko korridorearen artean: kokaleku estrategikoa Europa barruan.</li> <li>- Komunikazio sarea: azken hamarkadetako garapena eta proiektu berriak.</li> </ul>	



- Autobide, autobia eta errepide-sarea.
  - Trenbideak, aireportuak, merkantzi portuak
  - Egungo egoera eta proiekturik garrantzitsuenak.
- Hiri eta landa-espazioak: hiri espazioen aldaketak eta eragin eremuen hedapena.
- Landa eremua eta hiri eremua. Baserrien esparrua; hiriguneak eta industrialdeak;
  - Tarteko unitateak (eskualdeak, eskualde-egiturak) indartzea, lurraldearen oreka handiagoa lortzeko
  - Komunikazio eta garraio egituren eragina nekazari munduan eta hiri-inguruan
  - Hiri-espazioen hazkundera
  - Hiritartze prozesuen azelerazioen ondorioz landa-eremuen berrantolaketa.
  - Biztanleria motak.
  - Bizimodua landa eta hiri-eremuan.

#### 4.- Euskal Herritik - Euskal Hirira

- Euskal hirigintza, sorrera, bilakaera historikoa.
- Hirien egitura, funtzioak eta espazioa.
- Euskal hiri-sistema poli-nuklearra.
  - Hiri-kontzentrazioa. Hiri-hierarkia.
  - Euskal Herriko lurraldeetako eta haren inguruko hiri-eremuaren zenbait eredu.

#### 5.- Etorrizuneko erronkak

- Hirugarren sektoreko hirietarantz.
- Hirietako biztanleen arazoak. Irtenbideen proposamenak.
- Giza taldeen eta ingurunearen arteko harremanak eta horren ondorioak.
- Gizakiak eragindako ingurumen arazoren azterketa ( landaredian, uraren arazoa, klima-aldaketa ) .
- Ingurunea babesteko abian jarritako politikak .

#### Prozedurak eta jarrerak

- Mapa batean puntu bat kokatzeko jarraibideak, koordenatu geografikoak erabiliz.
- Eskala eta ezaugarri desberdinak dituzten irudiak, planoak eta mapak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Mapa tematikoak (fisiko, klima, sestra-kurba, topografiko...) irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Espazioan orientatzeko eta kokatzeko teknika geografikoak.
- Paisaiak zuzenean edo zeharka behatzeko teknikak.
- Errealitate geografikoko paisaietan aldaketa prozesuak sistematikoki behatzeko jarraibideak.
- Gizarte esparruko argudio testuak zorrotz eraikitzeko jarraibideak.
- Paisaien eratzean, gertaera geografiko jakinetan eta ingurumena degradatzean islatzen diren ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertzeke jarraibideak.
- Inguruan dituen degradazio-arazoak aztertzeke jarraibideak.

## 2. ZEIN ETA ZENBAT GARA? DEMOGRAFIAREN EGITURA ETA DINAMIKA

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2.- Euskal Herrian azken bi gizaaldietan bereziki egon diren mugimendu demografikoak, aroak eta horien arazoak eta ondorioak ezagutu informazio egokia aukeratuz, adierazpen grafiko desberdinak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal gizarteko mugimendu demografikoei buruzko datuak eta estatistikak, egungoak zein iragan hurbilekoak, biltzeko gai da, eta horiek deskribatzen ditu demografia-kontzeptuak, grafikoak eta mapak zuzen erabilia, eta denboran alderatu ondoren izandako aldaketataz, bereziki emigrazioak eragindakoaz, jabetzen da.</li> <li>- Informazio bilatzeko estrategia ezberdinak egoki erabiliz, egungo euskal egoera demografikoaren joera nagusiak ondorioztatzeko gai da, horiek izan</li> </ul>



<p><b>interpretatuz eta ezagutza hori adierazpen bide ezberdinez komunikatu, demografiaren dinamikak kulturalan, hizkuntzan, ekonomian duen eraginaz jabetzeko eta elkarbizitzarako jarrerak lantzeko.</b></p>	<p>ditzaketen ondorio sozial, ekonomiko, kultural eta abarrekin erlazioztatzen ditu.</p> <p>- Euskaldunak historian munduan zehar nola zabaldu diren ezagutzen du, hauen kopurua, bizileku nagusiak eta migrazio mugimenduen dimentsio sozialari buruzko informazio bilatzeko teknologia berriak egoki erabiliz.</p>
<b>Kontzeptuak</b>	
<p><b>1.- Biztanleriaren egungo egitura Euskal Herrian eta lurralde historikoka:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herria mendebaldeko gizarte modernoa,</li> <li>- Guztiko biztanleria eta dentsitate demografikoa.</li> <li>- Adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera egitura.</li> <li>- Ikasketa maila, hizkuntza, jardura sektoreak, etab.</li> <li>- Euskal biztanleria ezaugarriak: biztanleria zahartua; Desberdintasun handiak okupazioan jardura sektoreen arabera.</li> </ul> <p><b>2.- Demografiaren dinamika Euskal Herrian eta lurralde historiko bakoitzean: iraganetik orainera:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hazkunde tradizionalaren eredua: hazkunde naturala eta migrazio joerak.</li> <li>- Trantsizio demografikoa, aldaketak hazkunde naturalean (heriotzak eta jaiotzak): noiz , zergatik.</li> <li>- Barne eta kanpoko migrazio-mugimenduak. (Azken 125 urteak).             <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaldunak historian, munduan zehar: Ternuako Arrantzaleak, Ameriketako konkistan, migrazio ekonomikoak Ameriketara bereziki.</li> <li>• Euskal Diaspora: EH kanpo dauden euskaldunen kopurua, bizileku nagusiak, egoera...</li> </ul> </li> </ul> <p><b>3.- Etorrizuneko aukerak Euskal Herriarentzat: inmigratio anitza eta kultur askotarikoan bizitzeko erronka:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inplikazio ekonomikoak eta sozialak.</li> <li>- Demografiaren etorkizuna.</li> <li>- Hezkuntza eta kultur beharrak.</li> <li>- Zibilizazioak eta kulturak integratu beharra.</li> <li>- Integrazio soziala eta kulturala.</li> <li>- Kultura askotariko pertsonak eta taldeen onarpen, errespetu eta elkartasuna.</li> </ul>	
<b>Prozedurak eta jarrerak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio iturrietatik ( estatistika, sarea...) demografiaren ezaugarri eta joerei buruzko informazioa esanguratsua biltzeko jarraibideak.</li> <li>- Informazioa interpretatzeko, lantzeko eta erregistratzeko teknikak.</li> <li>- Gai bati buruzko mapak irakurtzeko eta interpretatzeko teknikak.</li> <li>- Demografia-datuak eta grafikoak ( barra-diagramak, biztanleria piramideak....) irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.</li> <li>- Informazio estatistikoa grafikotara pasatzeko jarraibideak.</li> <li>- Demografiaren ezaugarriak eta joerei buruzko txostenak planifikatzeko eta egiteko jarraibideak.</li> <li>- Lortutako informazioa idazteko eta emaitzak ahoz komunikatzeko jarraibideak.</li> </ul>	

<b>3.NONDIK GATOZ? EUSKAL HERRIAREN BILAKAERA HISTORIKOA EUROPAN ETA MUNDUAN.</b>	
<b>Konpetentzia espezifikoak</b>	<b>Ebaluazio irizpideak</b>
<p><b>3.- Euskal Herriko gizateriaren sorrera, historiaurrea,</b></p>	<p>- Euskal Herrian bizi den gizateriaren sorrera eta historiaurreko gizartearen bizimoduak utzi dituen arrasto nagusiak ezagutzen ditu, idatzi gabeko</p>



<p><b>antzinatea eta erromatarkuntza garaitik gaur arte bizi izan den prozesu politikoaren, sozialaren, ekonomikoaren, eta ideologikoaren, arrasto nagusiak ezagutu, dokumentazio iturri desberdinez baliatzeko teknikak landuz, ikerketa historikoaren metodologia erabiliz, eta ibilbide horretan emandako gertaerak denboran eta espazioan egoki kokatuz, horiek gaur egungo errealitatea (politikoa, soziala, ekonomikoa...) nola baldintzatzen duten jabetzeko.</b></p>	<p>dokumentu historikoak interpretatzeko jarraibideak eta teknikak egoki garatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezagutzen du eta egoki deskribatzen ditu historiaurreko eta historiako gertakari esanguratsuenak, idatzizko eta ez idatzizko iturrietatik informazioa biltzeko jarraibideak egoki landuz.</li> <li>- Zenbait garaitako mapa historiko batzuetatik abiatuta, Euskal Herriaren lurraldeetako sorrera, bilakaera eta gertaera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.</li> <li>- Euskal herriko historiako aldi eta gertaera esanguratsuenak, denboran eta espazioan kokatzen ditu, historiako ohikoen diren konbentzioak eta kronologia-unitateak erabiliz. (ardatz kronologikoak, frisoak, etab. ) ezaguera historiko horiek gaur egungo arazo nabarmenak ulertzeko erabiliaz.</li> <li>- Informazio iturriak helburuaren arabera egoki aukeratzeko gai da, informazio esanguratsua bildu, eta euskarri egokietan erregistratzen du.</li> <li>- Gertakari jakinei buruzko ikuspegi desberdina duten dokumentu historikoak kritikoki aztertzen ditu.</li> <li>- Jasotako informazioa berrantolatzeke gai da sintesi prozedurak (laburpen, eskema, koadro, grafiko eta abar) erabiliz, egiten zaizkion buruzko galderen ondorioak era egokian aurkeztuz.</li> <li>- Dokumentu historikoak kritikoki interpretatu ondoren bertako informazioa idatziz eta ahoz komunikatzeko gai da hiztegi egokia erabiliz.</li> <li>- Euskal Herriko gertaera historiko esanguratsuen kausa eta ondorioak identifikatzeko gai da euren arteko loturak zehaztuz eta kausalitate anitza kontuan izanik.</li> </ul>
<b>Kontzeptuak</b>	
<p><b>I HISTORIAURREA</b></p> <p><b>1. Lehen biztanleak.Paleolitoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ustekabeko aurkikuntzak: horien kokapena</li> <li>- Euskal lurraldeetako lehen biztanleak.</li> <li>- Bizimoldeak haitzuloetatik kostaldera.</li> <li>- Aztarnategi nagusiak: Benta Laperra, Santimamiñe, Ekain, Altxerri, Isturitze...</li> </ul> <p><b>2. Neolitoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Neolitoaren ezaugarriak euskal lurraldetan.</li> <li>- Lehen herrixkak.</li> </ul> <p><b>3. Metalen aroa. Kobrearen eta brontzearen sarrera</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Iparraldeko eta hegoaldeko eraginak.</li> <li>- Tresneria berrien aztarnak.</li> <li>- Megalitismoaren garapena: trikuharriak eta tumuluak.</li> </ul> <p><b>4. Euskara</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskararen jatorria eta bilakaera.</li> <li>- Beste hizkuntzekiko harremanak.</li> </ul> <p><b>II. HISTORIA</b></p> <p><b>1. Antzinatea</b></p> <p><b>1.1. Zibilizazio zelto-iberikoaren azalpenak Araban eta Nafarroan</b></p> <p><b>1.2. Greko-erromatar idazleen iritziak euskaldunekiko.</b></p> <p><b>1.3. Erromatarkuntzaren ondorioak gizartea eta antolamendu politikoan. Latinaren eragina euskararengan.</b></p> <p><b>1.4. Mundu klasikoaren kultura ondoreak gure egungo zibilizazioari egindako ekarpenak.</b></p>	



### **1.5. Kristautasunaren hedapena eta eragina.**

## **2. Euskal herria erdi aroan**

### **2.1. Aldaketa geopolitikoak IV. mendetik aurrera**

- Baskonia-Akitania bisigodoen, frankoen eta Islamaren artean. Herrialde horien arteko bakezko harremanak eta haserreak. Al Andalus/Tutera.
- Nafarroako erresuma eta Pirinioetatik hegoaldera eta iparraldera dauden euskal lurraldeak:
- Lurralde-antolakuntzaren bilakaera estatu europarren eraketa-prozesuan.
- Euskal lurraldeen barne eta kanpo-harremanak.
- Ingalaterrako koroa Lapurdin eta Zuberoan.
- Ehun urteetako Gerrak Zuberoan eta Lapurdin izandako eragina.
- Nafarroako Erresuman izandako aldaketak. Gaztelaren gerra eta konkista.

### **2.2. Euskal herriko gizartea eta zibilizazioa Erdi Aroan:**

- Erdi Aroko gizartea: Jaunak, apaizak eta nekazariak.
- Behe Erdi Aroko hirien loraldia eta burgesiaren azalpena.
- Erlijioaren eragina: Monasterioak eta kristau-eliza.
- Mairuak/kristauak/juduak. Hiru erlijio eta kulturen arteko elkarbizitza.

### **2.3. Ekonomiaren ezaugarriak Erdi Aroan**

- Itsas nabigazioa. arrantza eta merkataritza. Bilboko portua eta kontsulatua. Bale-arrantza.
- Euskaldunak Amerikako konkista eta kolonizazioan. Artoaren sarreraren garrantzia nekazaritzan.
- Burdinolak eta ontziolak.
- Berant Erdi Aroko gatazka sozio-ekonomikoak: Gerra, gosete eta izurriteak
- Nekazarien oldarpenak eta emantzipazioak.
- Gremioen altxaketak.
- Ahaide Nagusien arteko borrokak .

### **2.4. Foru-sistemaren eraketa euskal lurraldeetan:**

- Foruen eta erakundeen sorrera eta hedapena.
- Egungo zenbait erakunderekiko dituzten harremanak.

## **III. EUSKAL HERRIA ARO MODERNOAN**

### **1. Kulturaren bilakaera XVI-XVIII mendeetan.**

- Kristau erreformak eta katolikoek kontrarreforma. Joana Albretekoa eta Joannes Leizarragaren Biblia.
- Ilustrazioa: Bergarako Errege Mintegia, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eta Elhuyar anaiak.

### **2. Lurraldeen bilakaera**

- Espainiar Borbondarren erreformismoa. Foralismoaren krisiak, Matxinadak.
- Frantziako Borbon etxearen gorakadaren ondorioak Ipar Euskal Herrian. Enrike III.a (Nafarroakoa)- IV.a (Frantziakoa). Luis XIV.a eta Utrecht-eko hitzarmenaren ondorioak.
- Euskal Herriko lurraldeen legedi eta erakundeen bilakaera.

### **3. Aldaketak euskal herriko gizartean eta ekonomian**

- Demografia-gorabeherak.
- Artoaren ekarpena eta nekazari krisiak.
- Itsas-merkataritza: artilea, burdina. Mundu kolonialaren eragina. Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra.
- Ternuako arrantza, balearen ehizatzea.





#### **IV. ARO GARAIKIDEA: 1789-1914**

##### **1. Antzinako Erregimenaren krisialdia.**

###### **1.1. Frantziako Iraultza eta Napoleonen Inperioaren ondorioak Euskal Herrian.**

- Frantziako Iraultza (1789-1799). Foruen deuseztatpena eta departamentuen sorrera Iparraldean
- Konbentzio gerra (1793-1795) Hego Euskal Herrian.
- Independentzia gerra eta bere ondorioak Hego Euskal Herrian.

###### **1.2. Euskal Herriko bilakaera historikoa XIX. mendean.**

- Espainiako estatu liberalaren eraketa. Tradizionalismoa eta liberalismoaren arteko gatazka. Lehen Gerra Karlistaren eragina eta ondorioak Euskal Herrian.
- Bigarren gerla karlista (1872-1876). Foruen abolizioa.
- Euskal nazionalismoaren sorrera.

##### **2. Europaren bilakaera ekonomikoa eta soziala**

###### **2.1. Iraultza industrialaren ezaugarriak Euskal Herrian. Sorrera, hedapena eta bilakaera**

###### **2.2. Industrializazioak eragindako aldaketa sozio-ekonomikoa.**

- Demografia igoera eta emigrazioa. Hirien hazkundea.
- Gizarte kultur-anitza.
- Langile-mugimenduak eta sozialismoa.

##### **3. XX. mendeko bilakaera politikoa**

###### **3.1. Lehen mundu gerra eta haren ondorioak Ipar Euskal Herrian .**

###### **3.2. Bigarren Mundu Gerra eta haren ondorioak Ipar Euskal Herrian bereziki.**

**3.3. Gerra arteko Espainiar krisi egoeraren ondorioak Hego Euskal Herrian.** Euskal estatutua garatzeko oztupoak Bigarren Errepublikan zehar. Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herrian izandako eragina. Francoren diktaduraren eraginak ekonomia eta gizartean. Eusko Jaurlaritza atzerrian. Frankismoaren aurkako oposizioa.

###### **3.4. Frantzia eta Ipar Euskal Herria, IV. eta V. Errepublika garaian.**

#### **V. EUSKAL HERRIA GAUR**

**1. Espainiar trantsizioa. 1978ko konstituzioa eta autonomi-estatuaren sorreran.** EAeko 1979ko autonomia estatutua. Nafarroako Foru Hobekuntza. Lehen Jaurlaritza.

**2. 1980. hamarkadako krisi ekonomikoaren eragina Euskal Herrian.**

**3. Espainia Europar Batasunean integratzeak Hego Euskal Herrian izandako ondorioak.**

#### **Prozedurak eta jarrerak**

- Hainbat motatako dokumentu historikoak (idatzizkoak eta ez-idatzizkoak) irakurtzeko, interpretatzeko eta depuratzeko teknikak.
- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.
- Ardatz kronologikoak, kronologia taulak, denbora lerroak eta friso historikoak interpretatzeko eta osatzeko teknikak.
- Gertaera historien kausalitate-aniztasuna aztertzeko jarraibideak: gertaera historikoen eta bilakaera- eta aldaketa-prozesuen kausak eta ondorioak aztertzeko jarraibideak
- Euskal Herriko eta Espainiako arkeologia aztarnei eta ondare-elementuei buruzko informazioa biltzeko jarraibideak.
- Gizarte historikoen eta egungo gizartearen arteko aldeak eta berdintasunak ezagutzeko, aztertzeko eta alderatzeko teknikak.
- Mapa historikoak interpretatzeko, konparatzeko eta eraikitzeko jarraibideak.
- Informazio esanguratsua hainbat iturrietatik (ikonografiko, arkeologiko, idatzizko, etab. ) lortzeko, interpretatzeko eta erregistratzeko jarraibideak.



- Lortutako informazioa sintesi prozedurak erabiliz erregistratzeko jarraibideak.
- Aldiak, gertaera historikoak eta datuak tokian, denboran eta espazioan kokatzeko jarraibideak.
- Ikerketa historiko txikiak planifikatzeko eta egiteko jarraibideak.
- Ikerketa eta lan monografikoen emaitzak ahoz, idatziz komunikatzeko jarraibideak.
- Bizi beharreko esperientziak: Aztarnategi esanguratsuenak ezagutu eta bisitatu ditu: Behe paleolitoa (Irikaitzeko aztarnategia Zestoan), Erdi paleolitoa (Murba, Axlor, Lezetxiki, Amalda, Isturitze...), Goi Paeleolitoa (Benta Laperra, Santimamiñe, Ekain, Altzerri, Isturitze...) Arte higigarria: (Isturitze, Torre, Ekain...) eta gainerakoetako pieza nagusiak

#### 4. ZEIN DIRA MUNDU IKUSKERAK ETA ERLIJOAK?

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>4.-Euskal Herriko historiaurreko eta historiako kultura, mitologia eta erlijioen elementuak identifikatu eta elkarrekin lotu, horien esanahia eta egun duten presentzia balioesteko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko historiaurreko eta historiako mitologia eta erlijioen elementuak ezagutzen ditu,</li> <li>- Atal eta biografia garrantzitsuak ikertzeko oinarriko urratsak egoki lantzen ditu, hauen bidez euskaldunon kosmobisioa ulertzeko eta garatzeko.</li> <li>- Euskal Herriko iraganeko sinbologia erlijiosoaren zenbait elementu identifikatzeko gai da.</li> <li>- Euskal mitologiako irudiek herriarentzako zuten balioa eta esanahiaz jabetzen da.</li> <li>- Kristautasunaren mezu nagusia eta Euskal Herrian utzitako ondarea ezagutzen eta baloratzen ditu.</li> <li>- Islamaren eta judaismoaren mezu nagusia eta Euskal Herrian utzitako ondarea ezagutzen eta baloratzen ditu.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>1. Gure kulturaren sustrai biziak</b></p> <p><b>1.1. Sorrera: gizakia eta natura.</b></p> <p>Natura eta euskal kontzeptu sistema.</p> <p><b>1.2. Euskal Herriaren historiaurreko eta historiako kultur eta erlijio zikloak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Denborari buruzko kultur eta kontzeptu erlijiosoa.</li> <li>- Egutegia eta sakraltasuna: neguko festak ,udaberriko festak, udako festak, udazkeneko festak.</li> <li>- Jainkoen garaia: denbora, mitologia eta kosmologia.</li> <li>- Denboraren eta erlijiosotasunaren arteko lotura: kristau kultura eta denborazkotasuna. Kristau denboraren urteko zikloa.</li> </ul> <p><b>1.3. Erlijio jarrerak adierazten dituzten euskal kultur ondareko narrazioak, kondairak eta mitoak.</b></p> <p><b>2. Erlijioaren gertakari berezia</b></p> <p><b>2.1. Erlijioaren gertakariaren testuingurua: ehiza errituak, ibaiak eta ugalkortasuna, jaiotza, hildakoak eta arbasoak gurtzea, garezurra gurtzea.</b></p> <p><b>2.2. Hierofaniak, sakratuaren bitartekotza gisa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Natura, goieneko kosmosa-mundua (Ortzi, ilargia, argia, euria, tximista, ortzadarra, etab.).</li> <li>- Animaliak.</li> <li>- Heriotza eta inguruak.</li> </ul> <p><b>2.3. Transzendentziaren zeinuak eta ikurrak.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Santutegia eta ikurrak.</li> <li>- Hilobi espazioak.</li> <li>- Monasterioak eta ermitak.</li> </ul> <p><b>2.4. Esperientzia estetikoak naturan</b></p>	



### 3. Egungo aztarnak

**3.1. Euskal lurralde ezberdinetako jai egutegia: errituak, pertsonaiak, tradizioak, etab.**

**3.2. Festa erlijiosoak Euskal Herrian: komunitate eta oroigarri balioa. Zaindariak eta herri gurtza.**

**3.3. Erlijio handien aztarnak Euskal Herrian.**

- Kristautasunaren historia:
  - Euskal Herrian sartzea.
  - Santiago bidea Euskal Herrian.
  - Monakotza eta eskeko ordenak.
  - Aro Modernoan errotzea: elizbarrutietako apaizak eta erlijio ordenak.
  - Euskal Herrian kristautasuna hedatu zuten pertsona ospetsuak.
  - Inkisizioaren auzitegia Zugarramurdin.
  - Absolutismoa: Euskal Herriko apaizak eta Jesuiten itzulera.
  - Karlismoa: Jainkoa, Aberria eta Erregea.
  - Nazionalismoa eta erlijioa.
  - Banu qasimtarak eta Iruñeko Erresuma.
- Islamaren agerpena eta garapena, arabismoak euskaran.
- Judaismoa. Bere aztarnak eta eragina euskal lurraldeetan, Nafarroa eta Lapurdin bereziki
- Erlijioen kultur adierazpenak: festak, ohiturak, idatziak, ikurrak, leku sakratuak.

#### Prozedurak eta jarrerak

- Euskal Herriko erlijio ondaretik hartutako lanak zehatz-mehatz deskribatzeko jarraibideak (arte, musika, ohiturak, literatura, etab.).
- Euskal kultur ondarean erreferentzia erlijiosoak dituzten elementuak identifikatzeko irizpideak: musika, arte adierazpenak, ikurrak, festak, ohiturak, mezuak, esaera zaharrak, lekuak, denborak, etab.
- Arte erlijiosoaren obrak behatzeko, ikurrak ulertzeko eta musika sakratua entzuteko orientabideak.
- Euskal Herriko kultur gai eta biografia garrantzitsuak ikertzeko oinarritzko urratsak.

## 5. NOLA BIZI GARA ELKARREKIN ETA NOLA KONPONTZEN DITUGU ARAZOAK? ARAUEN BEHARRA: ZUZENBIDEA

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>5.- Euskal Herriak bere ibilbide historikoan zehar ezagutu dituen gatazka soziopolitiko eta kulturalak ezagutu, denbora eta espazioan ondo kokatu eta horien funtsezko arrazoiak zorrotasunez eta sistematizazioaren bidez interpretatu, gure egungo gizartean ematen diren arazo eta gatazka pertsonal zein kolektiboak hobeto ulertzeko eta interes komunekoen gaien kudeaketan modu aktiboan eta arduratsuan parte hartzeko eta bizikidetzarako arauak elkarren artean eraikitzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka soziopolitikoak alderdi guztiei erreparatuta modu kritikoan aztertzen ditu, gatazkek aztertzeko eta elkarrizketaren bidez lantzeko protokoloak eta jarraibideak modu egokian landuz.</li> <li>- Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka sozial nagusiak modu kritikoan aztertzen ditu, gutxienezko zorrotasunaren eta sistematizazioaren bidez eta bibliografia nahiz lehen eskuko dokumentu iturriak egoki erabiliz eta egoera injustuen aurrean hauek orekatzeko ahalegina egiten du.</li> <li>- Bere inguru hurbilean dauden gatazkek identifikatu eta deskribatzen ditu, naturaltasunez bere izaera onartu eta hauei aurre egiteko prozedura bakezaleak erabiltzen ditu, arazo horiek elkarbizitza hobetzeko aukera bezala ikusiaz.</li> <li>- Elkarbizitzarako arau eta legeetara jotzen du gatazkaren bati konponbidea eman edota mota ezberdinetako gizarte-gatazkari aurre egiteko.</li> <li>- Elkarrizketa eta prozedura bakezaleak defendatzen ditu pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko gatazkek konpontzeko.</li> </ul>



## Kontzeptuak

### 1.- Eskubideen bilakaera historikoa:

- Euskal lurraldeetan. Ohiturazko zuzenbidetik idatzizko bildumetara.
- Pertsona.
- Familia, ahaidetasun mailak: etxeokak, senideak, ahaideak, familia izena (edo abizena), familiak arbasoekiko dituen betebeharrak, ahaideen arteko elkartasuna, familia festak urtean zehar (senitartea).
- Komunitatea
- Herriko auzo egituraketa (*Auzoa*).
- Batzarra: auzo bateko etheen batzarra; biltzeko ohiko lekua (Ermita).
- Auzokoen batzarretik eratorritako karguak (*Basalkatea, basazaina, etxezaina*). Karguen txandaketa.

### 2.- Euskal ondarean arakatzeko:

- Euskal Herri zaharrean gizabideak zuen garrantzia eta gaurko gizarte sekularatuan nagusitzen diren ideologiak
- Matriarkatuaren azterketa: oinarritzko printzipioak eta egituratzen duten erregelak.
- Patriarkatuaren azterketa: oinarritzko printzipioak eta egituratzen duten erregelak.
- Euskal Herrian jabetza eskuratzeko moduak: okupazioz, lanez, herentziaz...
- Euskal Herriko jabetza-mota espezifikoa: jabetza solidarioa (gizabanakoen interesen ginetik gizarte-interesak jartzen dira).
- Trukea: bere gizarte-esanahia.
- Bostekoa ematea, kontratua egiteko modua.
- Hitz-emate edo promesa, betebeharraren forma espezifikoa.
- Auzolana eta bere oinarria, lana ulertzeko forma espezifikoa gisa, eta bere garrantzia mentalitate kooperatiboan.
- Gizon/emakume ona» gatazka-konpontzaile gisa eta horren aldaerak (bitartekaritza egitea, adiskidetzea...).
- Euskal auzotasun zibila eta tokian tokiko auzotasuna

### 3.- Euskal Herriak ezagutu dituen gatazka soziopolitiko eta kulturalak:

- Erromatar kolonikuntzatik hasi eta oraingo egunak arte
- Nafarroako erresumaren konkista militarra
- Foruen abolizioa
- Gizarte-gatazkak forualdian
- Lan-gatazkak,
- Gatazka soziopolitikoak eta kulturalak aro moderno eta garaikidean:
- Gizarte eta genero indarkeria.
- Immigrazioa.
- Arrazakeria eta xenofobia.

### 4.- Konpontzeko dagoen gatazka bat: bakean eta demokrazian bizitzeko erredua bilatzea:

- Alderdi politikoak eta euren posizio ideologikoak, lehen eta orain.
  - Aukera soziopolitiko ideal tipikoak: (Neo)liberalak, sozialdemokratak, kooperatibistak eta (neo)komunistak.
  - Kulturaz eta herri atxikimenduaz lehentasun ezberdinak nahasian: euskal, nafar, espainol eta frantses. Horien aukera ezberdinetatik sortzen diren asmo politiko ezberdinak.
  - Euskal Herria, Espainia, Frantzia, Europa eta oraindik globalizazio berria epaitzerakoan nabarmentzen diren korrelazioak.
  - Euskal herrietako hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi politikoek eta koalizioek ordezkatzeko dituzten egitasmo politikoaren ezaugarriak
- Azken 30 urtetan gatazka politikoa konpontzeko xedearekin egin diren saiakerak garrantzitsuenak: Txiberta, Argel, Lizarra-Garazi.



- Gatazkaren ondorioak.
- Herriatik, gatazka konpontzeko xedearekin, sortutako ekimenak.
- Beste trantsizio baterantz?

#### Prozedurak eta jarrerak

- Gatazkak aztertzeke protokoloak.
- Gatazkak elkarrizketaren bidez lantzeko jarraibideak.
- Bizikidetzara arauak egiteko edo berrikusteko jarraibideak.
- Ikerketa lan txikiak egiteko jarraibideak.
- Euskal Herrian elkarrekin bizitzeko elementu positiboak (pertsonak, taldeak, proiektuak, erakundeak, legeak, etab.) behatzeko moduak, eta ekintzen eta helburuen balorazioa.
- Euskal Herriaren egungo arazoak identifikatzeko eta irtenbideak proposatzeko urratsak.
- Gizarte arazo bati buruzko ikuspegia arrazoi bidez justifikatzeko elementuak.
- Euskal gizarteko kezka nagusiak aukeratzeko eta lehentasunak ezartzeko irizpideak
- Planteatutako arazoaren gainean informazioa eskuratzea, jasotako materialean oinarrituz balorazio kritikoa egitea eta norberak beste ikuspegi pertsonala azaltzea.

### 6. NOLAKOAK DIRA ETA NOLA FUNTZIONATZEN DUTE ERAKUNDEEK? EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio irizpideak
<p><b>6.- Euskal Herriak historian zehar bere burua antolatzeko xedearekin osatu dituen legedi zein erakunde politikoaren funtsa eta egitura, sorrera eta garapena, baita gaurko gizartean erreferentzia-koak gertatzen zaizkigun taldeena ere (familia, eskola, herria ...) ezagutu eta hauek baldintzatzen dituzten kanpo nahiz barneko faktoreak zein antolakuntza egiturak eta ohiko funtzionamendua taldearen kritikoki aztertu, erakunde horietan jarrera arduratsuaz partehartzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen pertenezia eta erreferentzia taldeetan (familia, eskola, herria...) parte hartzen du modu eraikitzailean, arduratsuan eta solidarioan.</li> <li>- Euskal Herriak bere burua antolatzeko xedearekin osatu dituen legedi zein erakunde politikoaren sorrera, bilakaera historikoa ezagutzen ditu, hauek baldintzatzen dituzten kanpo nahiz barneko faktoreak zein antolakuntza egiturak eta funtzionamendua kritikoki aztertuz.</li> <li>- Ikasleak parte hartzen duen maila ezberdinetako erakundeetan ( familia, eskola, udalherria...) dauden balio demokratikoak identifikatzen /onartzen ditu, eta erakunde hauetako ezarritako arauak errespetatuaz, desadostasunei aurre egiteko tresnatzat hartzen ditu.</li> <li>- Parte hartzen duen demokrazia urriko erakunde eta taldeen funtzionamenduaren aurrean kritikoki agertzen da, hauek hobetzeko proposamen eta ekimenak aurrera eramanez.</li> <li>- Eskala desberdinetako mapatan Euskal Herriko banaketa politiko-administratibo nagusiak kokatzen ditu, Estatu espainiar eta frantsesaren barneko antolaketa politiko-administratiboaren barne, eta Europar Batasuneko kide, Euskal Herriko lurralde antolaketa identifikatuz,</li> <li>- Egungo euskal legedietan lehengo foruen arrastoak identifikatu eta aztertzen ditu.</li> </ul>

#### Kontzeptuak

##### 1.- Erakundearen ezberdinen ezaugarriak

##### 1.1. Erakunde primarioak: Familia eta eskola.

- Osaera eta egitura.
- Funtzioak eta funtzionamendua:
- Harremanak eta gatazkak erregulatzea.

##### 1.2. Herri erakunde espezializatuak (sindikatuak, auzo elkarteak, enpresa elkarteak, kontsumitzaileen elkarteak, gobernu kanpoko erakundeak...): helburuak eta funtzionamendua.



### **1.3. Erakunde politikoan antolaketa eta funtzionamendua, mailen arabera**

- Euskal udalerrietako antolaketa: iragana eta oraina:egitura,oinarrizko funtzioak eta funtzionamendua: arauak eta herritarren parte hartzea erakundeetan..
- Euskal lurralde historikoen antolaketa politikoa: egitura,oinarrizko funtzioak eta funtzionamendua: arauak eta herritarren parte hartzea.
- Euskal Herria bi estatutan, hiru administrazio.
  - Autonomiadun lurraldeen antolaketa Espainiako Estatuaren esparruan
  - Egitura. Oinarrizko funtzioak. Funtzionamendua: arauak eta parte hartzea.
  - Beste autonomia-erkidego batzuen enklabeak Euskal Herrian (Trebiño, Villaverde Turtzioz)
  - Iparraldeko lurraldeen egoera eta departamentuen funtzionamendua Frantziako Estatuan.
  - Erakunde estatalen egitura,oinarrizko funtzioak eta funtzionamendua: arauak eta parte hartzea.
- Euskal Herria Europar Batasunean.
  - Europako Batasuneko Erakunde Politikoak. Sorrera, bilakaera. Funtzioak. Xedeak eta zailtasunak.
  - Euskal lurraldeak Europar-Batasunaren esparruan. Harreman-eredu berria
  - Europar herritartasuna.
  - Europar Batasuna eta estatu gabeko nazioak: Euskal Herriaren kasua.

### **2.- Euskal erakunde eta legeen bilakaera historikoa**

- Foru idatzien sorrera. Lurraldeetako foru eta erakundeen sorrera eta ezaugarriak.
- Foruen aurkako jazarpenak espainiar eta frantziar borboindarren eskutik Aro Modernoan zehar
- Iraultza frantsesaren ondorioz Iparraldeko lurraldeetako egoera. Foruen deuseztapena eta departamenduen sorrera.
- 1839ko urriaren 25eko Legea. Foru baimenaren (gain-karta edo usadioa) balio eza.
- Nafarroan: Foruen Aldakuntzarako Legea edo "Lege itundua" (1841)
- Gamazada (1893-1894)
- 1876n Foruen deuseztapen legea. Kontzertu edo Itun ekonomikoak.
- Foruen deuseztapen legearen aurkako herri oposizioa: Liberal foruzaleen borroka. Arturo Campion. Euskal nazionalismoaren sorrera.
- Euskal estatutuaren ahalmenak. Lehen Eusko Jaurlaritza.
- Francoren diktadura garaiko egoera. Ahalmen eta eskubideen deuseztapena . "provincias traidoras.
- Euskotarren jatorrizko eskubideak eta beren aldi aldiko borondatearen errespetua 1978.eko Konstituzioan.
- 1979 Gernikako Estatutua eta Foru Hobekuntzen (1982)ezaugarriak. Kontzertu ekonomikoak.

### **3.- XXI. mendearen hasieran euskal herritarren joan-etorria baldintzatzen duten itun erakunde politikoak:**

- Herrien eskubideak defendatzen duten Nazioarteko Itunak.
- Erakunde eta Aliantza Militarrek, mundu guztiari erasaten diotenak.

### **Prozedurak eta jarrerak**

- Inkestak egiteko eta betetzeko jarraibideak.
- Nola landu bildutako informazioa.
- Nola egin txostenak, inkestetan bildutako datuetatik abiatuta.
- Famili zuhaitzak egiteko jarraibideak.
- Dokumentu ofizialak irakurtzeko eta interpretatzeko jarraibideak.
- Instantzia ofizialei zuzendutako dokumentuak egiteko edo betetzeko jarraibideak (eskaerak, erreklamazioak).
- Euskal gizartearen elementu soziokulturalak aukeratzeko eta deskribatzeko irizpideak, baita bertako erakundeak eta horiek antolatze eta bizitzeko modu bereziak aukeratzeko eta deskribatzekoak ere.



## 7. NOLA LORTZEN DITUT BEHARREZKOAK ZAIZKIDAN GAUZAK? ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU EKONOMIKOA

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>7.- Euskal Herriko zein berau osatzen duten lurralde historiko bakoitzeko ekonomi sektoreetako urrats nagusien historia, eta egungo gizartearen antolaketa eta funtzionamendu ekonomikoa ezagutu, hainbat iturriren bitartez lortutako informazioaz baliatuz eta ikerketa lan txikien bidez antolaketa ekonomiko horretan parte hartzen duten eragile desberdinen arteko korrelazio esanguratsueni buruzko norbere interpretazioa eta arrazoitzea komunikatuz.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lurraldeka zein eskualdeka, Euskal Herriko ekonomi sektoreen jatorria, garapena eta etorkizuneko aukerak, IKT, grafiko eta mapak erabiliaz deskribatzen ditu, ikerketa lan txikiak eginaz eta hainbat iturriren bitartez lortutako informazioaz egoki baliatuz.</li> <li>- Informazio ezberdinak interpretatuz, nekazaritza ustiapen sistema nagusien ezaugarriak lantzen ditu eta euskal nekazaritzaren egungo arazoak aztertzeke gai da.</li> <li>- Industria jardueretan gertatzen ari diren eraldaketak deskribatzen ditu, Euskal Herriko ekoizpengune nagusiak kokatuaz, eta sektore honen egungo errealitatea aztertzen du iturri ezberdinetatik deslokalizazio eta globalizazio ekonomikoen eragina ondorioztatuz.</li> <li>- Hirugarren sektoreak izandako bilakaera eta eraldaketak identifikatzen ditu, eta eraldaketa horien ondorioz Euskal Herrian harreman ekonomiko eta sozialetan gertatzen ari diren aldaketa aztertzen ditu.</li> <li>- Mota guztietako bitartekoak erabiltzen ditu ( IKT, estatistika..) jarduera ekonomikoei buruzko informazioa lortzeko. Jasotzen duen informazioaren zuzentasuna eta objetibotasuna egiaztatzeke gai da.</li> </ul>

### Kontzeptuak

#### 1.- Euskal Herriko ekonomiaren ezaugarriak:

##### 1.1. Tradiziozko artzaintza

- Euskal Herriko artzaintza motak eta eremu nagusiak:
- Artzainaren tresneria eta artisau lanak: *abatza, kaikua, malatxa*, etab.
- Ardi artzaintzaren produktuak: gaztagintza tradizionala; beste esneki batzuk.

##### 1.2. Nekazaritza eta abeltzaintza

- Nekazaritza motak klima eta lurren arabera.
- Landutako laboreak. Historian zehar sartutako landareak (artoa, patata, babarruna, tomatea, etab.).Gaur egungo espezializazioa.
- Nekazarien etxe motak: Baserria, Laborantza etxea, Eraikin osagarriak,
- Nekazaritza tresnak. Ohiko lanabesak, makina modernoak.
- Nekazaritzari lotutako usteak eta erritoak.
  - Nekazaritza babesten duten santuak (San Blas, San Isidro, San Fausto, San Marko, etab.).
  - Babes errituak: haziak bedeinkatzea; soroen babesa; lurra bedeinkatzea; ekaitzen aurkako konjuruak.
  - Ohitura magikoak eta erlijio ohiturak: solstizio suak (San Joan, San Anton); letaniak eta prozesioak; fruituen eskaintzak.
- Abeltzaintza ikuilatua.

##### 1.3. Arrantza

- Arrantzaren historia. Balearen harrapaketa Ternuan.
- Altura eta baxurako arrantzak. Ohiko modalitateak.Gune nagusiak. Ontzi motak. Harrapatzen diren espezieak.
- Arrainaren salmenta lonjetan. Arraina kontserbatzeko metodoak.
- Arrantzaleen kofradiak. Jatorria, funtzioak eta arauak.

##### 1.4. Artisautza eta industria tradizionalak

- Artisautza: oinarrizko bizimoduaren jarduera osagarri: lanabesak eta tresnak; Artisautza motak: Abarkagintza, artilea, lihozko jantzigintza, egurrezko eta hezurrezko tresnen ekoizpena (kaikua, abatza, etab.).
- Meatzaritza, eltzegintza, errementaritza, teilagintza, otarregintza, ikazkintza.



- Antzinako burdinolak, errota eta ontzigintza.
- Zenbait industria garaikide:
  - Labe garaiak; altzairugintza, burdin galdategiak.
  - Ontziolak: ontzigintza.
  - Makina tresnen eraikuntza.
  - Garraiobideak: trenak eta autobusak
- Ekonomia gorabeherak XX. mendeko 60ko hamarkada arte: lotura estatuko eta nazioarteko egoerekiko lotura.
- Kooperatibismoa: Jatorria eta bilakaera.
- 70eko hamarkadako industria krisia eta berregituraketa/birmoldaketa 80ko hamarkadan.
- Multinazionalak Euskal Herrian eta Euskal Herriko lantegiak munduan zehar.

### **1.5. Hirugarren sektoreko jarduerak: zerbitzuak**

- Azpiegituren kokapena eta honen ondorioak
  - Portuak, merkataritza-portuen garrantzia ekonomian. Bilbo eta Pasaia.
  - Merkataritza-aireportuak. Foronda.
- Administrazioa. Aurrekontuak. ..
- Finantza guneak.
  - Bankuak eta kutxak.
  - Euskal Herriko finantza egituren sorrera eta bilakaera
- Merkataritza.
  - Merkataritza handi eta txikien arteko erlazioa. Ondorioak ohiko herriko merkatal guneetan.
  - Nazioarteko merkataritzaren eragina euskal ekonomian.
- Turismoa.
  - Ezaugarriak eta ondorioak bereziki hirigune, landa-eremu eta Ipar Euskal-herrian.
  - Aisia eta espazio babestuak
  - Ondorio ekologikoak

### **2.- Gaur egungo egoera ekonomikoa:**

- Adierazle sozio-ekonomiko nagusiak.
- Ekonomia-jardueren zonalde eta gune nagusien kokapena.
- Sektoreen egoera:
  - Nekazaritza berria;
  - Arrantza: Gehiegizko ustiapenaren ondorioak, arrain haztegiak.
  - Industria: Gune berriak, Multinazionalak. Deslokalizazioa.
  - Zerbitzuen garapena azken hamarkadetan. Merkataritzaren garrantzia.
- Europar Batasunean integratzeak lehen eta bigarren sektorean eragindako ondorioak.
- Euskal Herriko ekonomia-jardueren joera orokorrak globalizazioaren barruan.

### **3.- Euskal ekonomiaren etorkizuna: ekonomia dinamikoa, aldatzeko gaitasuna duena:**

- Etorkizuneko arazoak, erronkak eta aukerak

#### **Prozedurak eta jarrerak**

- Hainbat iturritan ( estatistika, kartografia, bibliografia, IKTak...) ekonomiari buruzko informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Izaera ekonomikoa duen informazioa, esplizitua zein inplizitua bilatzeko, aztertze eta egiaztatze jarraibideak.
- Informazio hori hainbat helburukin erregistratzeko jarraibideak.
- Informazioa ekonomikoa grafikoetan ( barra diagrama, taula...) eta mapa tematikoetan irudikatzeko jarraibideak.
- Ekonomi jardueren ondorioz sorturiko paisaia geografikoen zuzeneko behatzeko eta aztertze jarraibideak.





- Hainbat motatako agiri ofizialak irakurtzeko, interpretatzeko eta betetzeko jarraibideak.
- Lortutako informazioa behar bezala eta argudiatuta ahoz zein idatziz komunikatzeko jarraibideak.

8. ZER EZAUGARRI NAGUSIK DEFINITZEN DU EGUNGO GIZARTEA ETA NORA GOAZ EUSKAL HERRIAN?	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>8.- XXI. mendeko Euskal Herria definitzen duten ezaugarri nagusienak identifikatu, informazio iturri desberdinak erabiliz eta modu kritiko eta eraikitzaile batez aztertu eta baloratu, etorkizuneko proiektu komunetan modu aktiboan parte hartzeko eta trebetasun sozialak eta elkarbizitzarako jarrerak lortzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- XXI.mendeko Euskal Herria definitzen duten ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu eta hauen garapena baloratzen du informazioa bilatzeko eta aukeratzeko jarraibideak egoki erabiliz.</li> <li>- Informazio iturri historikoetara, nahiz gaur egungo iturri ezberdinetara jotzen du, idatzizko zein ahozko materiala, komunikabideak (prentsa, telebista, zinea...) zein IKTk, gertaera jakin baten aurrean dauden interpretazio ezberdinak jaso, konparatu eta interpretatuaz, eta edozein informazio iturrik izan ditzakeen ikuspegiak diskriminatuzko gai da.</li> <li>- Gizarteko ekintza eta gertaeren azalpeni buruzko jakinmina garatu du komunikabide eta sareko informazio eta mezuen aurrean jarrera kritikoa adieraziaz.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>1.- Errealitate globalaren adierazpena Euskal Herritik ikusita:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Produktu trukea munduko edozein herrialderekin (ondasunak eta zerbitzuak).</li> <li>- Globalizazioa eta bere ondorioak.</li> <li>- Kultur-aniztasuna eta globalizazioa. Aniztasuna murrizteko arriskuak.</li> <li>- Hizkuntza minorizatuen erronka.</li> <li>- Nazioarteko migrazioen zabaltasuna eta orokortasuna.</li> <li>- Komunikazio industrien nagusitasuna.</li> <li>- Komunikabideak eta haien eragina. Komunikabideen ezaugarriak egungo gizartean.</li> </ul> <p><b>2.- Komunikazio industriak euskal herrian:</b></p> <p><b>2.1. Paper euskarrian egindako komunikabideak. Prentsa eta liburugintza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Argitaletxeen independentzia eta menekotasuna. Euskal argitaletxeak eta euskal prentsa.</li> <li>- Euskal literaturaren garrantzia, euskal kulturaren mantenurako.</li> <li>- Prentsa munduan informazio iturriak. Informazioaren manipulazioa eta erabilera. Objektibotasunaren auzia</li> <li>- Hauen eragina gizartean.</li> </ul> <p><b>2.2. Ikus-entzunezkoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal diskogintza eta mundu mailakoaren arteko lehia.</li> <li>- Diskogintza eta beste hedabideak: irrati, telebista eta internet.</li> <li>- Euskal zinemagintzaren ibilbidea gure kulturaren lekuko gisa.</li> <li>- Euskal irrati-gintza; irrati libreen garrantzia.</li> <li>- Telebistaren funtzioa, Bertako telebista, mundu globalizatuan. Euskal Telebistaren funtzioa.</li> <li>- Ikus-entzunezkoen eragina euskararen normalizazio eta hedapenean.</li> <li>- Informazioaren manipulazioa, erabilera. Objektibotasuna.</li> </ul> <p><b>2.3 Internet</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Internet Euskal Herrian. Euskara eta Internet. Informazio teknologia berrien garapena gure kultura eta izaera mantentze, ugaltzeko.</li> </ul>	



### **3.- Etokizuneko erronkak:**

- Mundu arina eta aldakorra.
- Globalizazioa eta elkarrekiko mendekotasuna: merkatuen mundializazioa.
- Kontzentratzeko eta homogeneizatzeko joera.
- Informazioaren kontrola enpresa handien eskuetan.
- Kultur aniztasuna eta kulturen arteko tentsioak.
- Lehiakortasunaren erronka: ikerketaren eta berrikuntzaren garrantzia.
- Prestakuntzaren erronka: kompetentzietan prestatzea.
- Teknologia berrien erronka.

### **Prozedurak eta jarrerak**

- Informazio bibliografikoa bilatzeko jarraibideak.
- Ohiko hemeroteketan informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Egunkari digitalen hemeroteketan informazioa bilatzeko jarraibideak.
- Hainbat estatistika iturritatik informazioa jasotzeko eta erregistratzeko jarraibideak.
- Merkatu dinamikak ulertu: salduenen zerrendak aztertu; fondoa eta berrikuntzen arteko dinamikak aztertu.



## **7.- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK**



## 1. SARRERA

Euskal Curriculum espezifiko oinarrizko eta komunean, derrigorrezko irakaskuntza (16 urte) bukatzean Euskal Herriko ikasle guztiek izan behar duten kulturaren osagaiak finkatzen dira. Beraz, ezagutza zientifikoak garrantzi handia izan behar du hor, ezinbesteko tresna baita hezkuntza helburuak lortzeko. Zientziak natura ezagutzen eta naturan gertatzen diren aldaketak ulertzen laguntzen digu, baita izaki bizidunak eta gizakiak garen aldetik eta lurrari eta kosmosari lotuta gauden aldetik dugun izaera fisiko-kimikoa ulertzen ere. Pentsamendu zientifikoa funtsezkoa da, halaber, ikasleek eguneroko bizitzako arazoei aurre egiteko, zientziak eta teknologiak erabat baldintzatzen duten euskal gizartean bizitzeko eta bizitzari eta osasunari, baliabideei eta ingurumenari lotutako alderdiei buruzko jarrera arduratsuak garatzeko.

Derrigorrezko irakaskuntzan, ikasleei oinarrizko prestakuntza zientifikoa ematea du helburu Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloak. **Alfabetatze zientifiko** horrek hiru motatako lorpenak barne hartu behar ditu, gutxienez:

**Kulturala:** ikasleek modu globalean ulertu eta interpretatu behar dute aztertu beharreko errealitate naturala, baita errealitate horretan duten lekua ere. Horretarako, pentsamendu zientifikoaren kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko oinarrizko tresnak bereganatu behar dituzte. Horrez gain, lorpen horrek zientziaren eta jarduera zientifikoaren izaera ulertzen lagundu behar die ikasleei, baita horrek teknologiarekin eta gizartearekin dituen harreman konplexuak ere. Azken finean, ez da nahikoa ikasleek zientzia ikastea (horren produktuak); aitzitik, zientziari buruz ere ikasi behar dute, eta gizakion kultur produktu gisa ikusi behar dute zientzia.

**Praktikoa:** ikasleek eguneroko bizitzan erabili behar dituzte ezagutza zientifikoa eta ezagutza teknologikoa; nor bere burua hobeto ezagutzeko, bizi baldintzak hobetzeko eta ohiko arazoak konpontzeko. Ikasleek zientzia egiten ikasi behar dute, arazoak konponduz eta ikerketa txikiak garatuz (zientziaren metodoa).

**Gizalegezkoa:** ikasleek erabaki pertsonalak hartu behar dituzte. Horrez gain, modu kritikoan eta arduraz parte hartu behar dute gizarte gaietan eta gai politikoetan; batez ere, gure gizartean ezagutza zientifikoa erabiltzearekin lotuta dauden gaietan. Parte hartze hori oso garrantzitsua da gizartea erabat teknifikatuta badago eta ingurumen arazo larriak baditu; adibidez, euskal gizartea. Kontzientziazioa handitzeaz gain, zientziarekiko eta horrek giza garapenean egiten dituen ekarpenekiko jarrera positiboa garatzen lagundu behar du alfabetatze zientifikoak; halaber, ikasleen giza prestakuntza sustatu behar du, ohitura eta balio egokiak garatuz.



Aipatu alfabetizazio zientifikoa lortzeko natur zientzietako arloan fisika, kimika, biologia eta geologia gisako ohiko ikasgaien edukiak, txertatu beharko ditugu ekologia, bioteknologia, astronomia, medizina, dietetika etb. aherentzi gabe. Jakintzagai hauen eduki kontzeptual gehienak unibertsalak dira hala eta gutiz ere ikasle bat egungo Euskal Herrian kompetente izan dadin ezinbestean Euskal Herrian sortutako edo Euskal Herriarekin zerikusia duten (erliebe, klima, fauna eta flora, ekosistemak...) ezaugarri espezifikoak barneratu beharko ditu eta bereziki eduki zientifikoak aplikatuak (osasun ohiturak, baliabide energetiko eta naturalak, ingurugiro arazoak, espezie eta espazio babestuak, instituzio zientifiko-teknologikoak...) izan behar duten testuinguru sozionaturala. Horrela soilik egin ahal izango diote aurre eguneroko bizitzako arazoei eta garapen zientifiko eta teknologikoen baldintzatutako euskal gizartean ere.

Prozedurazko eta jarrerazko edukiei dagokionez, eduki kontzeptualak baino izaera unibertsalagoak dira, baina aplikazio eremuaren arabera batzuk espezifikoagoak izan daitezke. Hori dela eta arlo honetan modu berezitu batean kontutuan hartu behar dira eduki zientifikoaren harremana euren aplikazio teknikoekin eta hauen gizarte eta ingurumen ondorioak ( ZTGI ikuspegia: zientzia-teknologia-gizartea eta ingurumena) bereziki, osasun eta ingurumenari eragiten dietenak. Era berean, bizitza eta osasunari, baliabide eta ingurumenari loturiko alderdienganako jarrera arduratsuak indartu behar dira beti ikaskuntza esanguratsuagoa eta funtzionalagoa izan dadin maila pertsonal eta lekuan lekuko inguruetik gizarte planteamendu eta inguru globaletara gero eta gehiago hurbiltzen joateko.



## 2. KOMPETENTZIA OROKORRAK

Derrigorrezko irakaskuntza (16 urte) bukatzean, ikasleek hauek egiteko gai izan behar dute Natur Zientziak eta Osasun Zientziak arloan.

1. Errealitatearen azalpen eskemak eraikitzekeo gai izan behar dute kontzeptu, printzipio, balio eta jarrera zientifikoak erabiliz; bai fenomeno natural nagusiak interpretatzeko, bai gure gizarteko garapen eta aplikazio zientifiko-teknologikorik garrantzitsuenak modu kritikoa aztertzekeo.
2. Arazoak konpontzekeo eta ikerketa txikiak egitekeo gai izan behar dute, bakarka nahiz elkarlanean, arrazoibide eta argudiaketa zientifikoak eta zientziaren beste prozedura batzuk erabiliz, gutako bakoitzarentzat edo gizartearentzat interesa duten benetako egoerei heltzekeo testuingurua kontuan hartuta eta erabakiak arduraz hartu ahal izatekeo.
3. Zientziei buruzko informazioa duten iturri desberdinetako mezuak era aktiboan eta kritikoki interpretatzeko eta mezu zientifikoak sortzekeo gai izan behar dute, ahozko eta idatzizko hizkuntzak behar bezala erabiliz, baita beste notazio eta irudikapen sistema batzuk ere, zehaztasunez komunikatzeko eta gizartean, ikasketetan eta lanbidean moldatu ahal izatekeo.
4. Giza organismoari buruzko ezagutza zientifikoak erabiltzekeo gai izan behar dute, gure gorputzak nola funtzionatzen duen eta osasuna nola zaindu behar dugun azalduz, zainketa eta arreta ohiturak garatzeko eta ongizate pertsonala handitzekeo.
5. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoak erabiltzea, zer elkarreagin sortzen diren eta oreka zer den eta zer faktorek eteten duten azalduz, natura balioesteko, naturaz gozatzeko eta hori zaintzen eta hobetzen parte hartzekeo, eta garapen iraunkorra lortzekeo ekintzetan era arduratsuan parte hartuz, bereziki Euskal Herriko esparruan.



### 3. EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA

1. EUSKAL HERRIKO BIODIBERTSITATEA.	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>1.Zientzien oinarritzko kontzeptuak eta mundu naturaleko objektuak eta prozesuak erlazionatu, propioki Euskal Herrikoak direnak, eta, horretarako, oinarritzko kontzeptu horiek zentzua hartzen duten legeetan, erduetan eta teoretan artikulatu.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontzeptu orokorrak Euskal Herriko adibide espezifikoen bidez osatzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriak propioki sortutako kontzeptu zientifikoak sistema materialen portaerekin eta propietateekin erlazionatzen ditu.</li> <li>- Materia eta materiaren aldaketak sailkatu eta ordenatu egiten ditu, ezaugarrien eta propietateen arabera.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>1. Lurra</b> Euskal Herriko harkaitz eta mineral ugariak: - Harkaitzak:sedimentuak,basaltoa , granitozko mendilerroa... - Mineralak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ustiatutako esplotazioak: Arditurri (beruna eta zilarra), Karrantza(/beruna), Arrazola eta Aralar (kobrea), Bizkaiko ezkerrekoa (burdina), Iruñako inguruetan (potasa).</li> <li>• Indarrean: Eugi (magnesioa),Legorreta(zink eta burdina).</li> </ul> <p><b>2. Lurraren dinamika</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko klima.Klima aldaketak.</li> <li>- Erliebe motak Euskal Herrian: Pirinioak, iparraldeko mendi lerroak eta Ebroko Depresioa.</li> <li>- Euskal Herriko fosilak: Urbasa,Aralar,Karrantza eta noski Zumaiako "flyph".a.</li> </ul> <p><b>3. Izaki Bizidunak</b></p> <p><b>3.1. Batasuna eta aniztasuna.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Biodibertsitatea. Euskal Herriko espezie bereizgarriak.</li> <li>- Euskal Herriko espezie babestuak.</li> <li>- Euskal Herriko biztanleriaren jatorri eta ezaugarri genetikoak.</li> </ul> <p><b>3.2. Izaki bizidunak eta ingurua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko ekosistema adierazgarriak</li> <li>- Euskal Herriko eremu babestuak.</li> </ul>	
Prozedurak etajarrerak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aztertu beharreko problemak eta gaiak identifikatzeko eta zehazteko jarraibideak</li> <li>- Harriak, landareak, animaliak, substantziak, zelulak eta abar sailkatzeko eta segidak osatzeko irizpideak eta gakoak.</li> <li>- Deskribapenak egiteko, azalpenak emateko eta argudiaketak egiteko arauak.</li> <li>- Aldagai metereologiakoak neurtzeko tresnak erabiliz Euskal Herriko ezagutza klimatologikoa ezagutu.</li> <li>- Euskal usadioan eguraldia iragartzeko metodo desberdinak kritikoki aztertu.</li> <li>- Euskal herriko fosilen berri izan irteerak eginez.</li> <li>- Euskal herriko fauna eta floraren gune garrantzitsueak ezagutzea eta konparaketak eginez aztertu.</li> <li>- Babestutako eremuak ezagutu,bisitatu, eta aktiboki zaindu.</li> </ul>	



2. EUSKAL HERRIKO ZIENTZIA ERAKUNDE ETA ZIENTIFIKOAK.	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>2. Euskal Herriko zientziaren irudi nagusiak eta horien ekarpenak deskribatu, ekarpen horiek zer testuingurutan egin zituzten aztertuz eta zientziaren giza eraikuntzaren izaera balioetsiz.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Teoria zientifikoei eta horien protagonistei buruzko informazio historikoa aurkitu eta lan monografikoak egiten ditu.</li> <li>- Aurkikuntza zientifiko gehienak talde lanaren emaitza direla ulertzen du.</li> <li>- Euskal Herrian gaurkotasuna duten gai zientifikoei buruzko informazio biltzen du.</li> <li>- Euskal Herriko erakunde zientifiko-teknologiko garrantzitsuenetako batzuk identifikatzen ditu</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>1. Zientziaren izaera</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko erakunde tekniko- zientifikoak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Unibertsitateak.</li> <li>• Gune teknologikoak.</li> <li>• Parke teknologikoak.</li> <li>• Museoak.</li> <li>• Elkarte zientifikoak</li> </ul> </li> </ul> <p><b>2. Zientziaren ikuspegi historikoa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Historian zehar eta gaur egungo Euskal Herriko zientifikorik garantzitsuenak.</li> </ul>	
Prozedurak eta jarrerak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laburpen txostenak egiteko orientabideak; bai deskribapen txostenak egiteko –bizi izandako esperientziez eta prozesuez–, bai argudio txostenak egiteko –behaketetatik edota esperientzietatik ondorioak ateratzeko–</li> <li>- Datuak, ideiak, ereduak, erlazioak eta abar bilatzean informazio iturri bat baino gehiago erabiltzeko irizpideak</li> <li>- Taldean lan egiteko, eztabaidak antolatzeke eta aukeratutako gaien gainean sor daitezkeen eztabaidetan parte hartzeko arauak.</li> <li>- Erakunde tekniko-zientifiko nagusiak bisitatzea.</li> </ul>	

3. OSASUNA, HIGIENA ETA ELIKADURA EUSKAL HERRIAN	
Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<p><b>3. Euskal Herrian lehen eta orain, elikadura, higiena eta osasun ohiturak zein izan diren eta diren ezagutu eta ohitura horiek barneratu eta eguneroko bizitzan erabiltzen jakin.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasunaren inguruan Euskal Herrian dagoen herri-usadioak eta tradizioa (sendabelarrak...) azaltzen daki eta tradizioko usadio horien artean mesedegarriak diren batzuk erabiltzen daki.</li> <li>- Bizi-portaera osasungarriak zein diren eta osasunarentzat kaltegarriak diren bizi-azturak ezagutzen ditu eta horien aurrean jarrera arduratsua eta kritikoa dauka.</li> <li>- Bizi-portaera osasungarriak estimatzen eta praktikatzten ditu.</li> <li>- Higiena eta garbitasun ohiturak zaintzen ditu.</li> <li>- Euskal Herriko osasun egoera ezagutzen du.</li> <li>- Osasuna zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzten prestazioak ezagutzen eta erabiltzen daki.</li> <li>- Badaki zer den dieta orekatua. Dieta hori berearekin alderatzen du, eta ondorioak ateratzen ditu, elikadura ohiturak hobetzeko.</li> <li>- Euskal sukaldaritzaren hamar jaki prestatzen ditu.</li> <li>- Euskal sukaldaritzaren ezaugarri nagusiak egoki azaltzen ditu eta euskal sukaldari nagusiak ezagutzen ditu.</li> </ul>
Kontzeptuak	
<p><b>1. Osasuna Euskal Herrian</b></p>	





- Egoera eta osasun maila: bizi itxaropena, hilkortasuna, heriotza arrazoiak, ezgaitasuna fisikoak, ezgaitasun mentalak...
- Osasunaren gaineko herri usadioak: berbenak, sendabelarrak.
- Bizi-portaera osasungarriak eta kaltegarriak: drogak, alkohola, tabakoa, obesitatea, sedentarismoa, etab.
- Euskal Herriko osasun-zerbitzuak eta horien prestazioak.

## 2. Elikadura eta gastronomia Euskal Herrian

- Elikadura eta gastronomia Euskal Herrian: ezaugarriak eta historia.
- Dieta orekatuaren osagaiak eta ezaugarriak
- Euskal sukadaritzako jaki esanguratsuen errezetak

### Prozedurak eta jarrerak

- Giza gorputzaren eta osasunaren zainketarekin lotutako oinarriko teknikak.
- Osasunaren gaineko ohiturak ezagutu eta gaixotasunen aurka hauek erabiltzeko trebezia.
- Euskal Herriko gastronomiaren jakirik esanguratsuenak prestatzeko jarraibideak

## 4. EUSKAL HERRIKO INGURUMEN ARAZOAK

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<b>4. Euskal Herriaren ikuspegitik, giza jardueraren eraginez ingurumenean sortutako arazo nagusiak deskribatu, horien zergatiak edota ondorioak kontuan hartuz.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Herriko airearen, uraren eta lurzorua kutsadura mota nagusiak beren jatorriarekin eta ondorioekin lotzen ditu.</li> <li>- Inguruko paisaian ikus daitezkeen zenbait inpaktu aztertzen ditu.</li> <li>- Etxeko eta ikastetxeko energia balantze orokorrak egiteko gai da (baliabideen sarrera, erabilera eta irteera eta guzti).</li> </ul>

### Kontzeptuak

- Ura baliabide gisa Euskal Herrian: erabilpen eta aurrezte neurriak.
- Lur zoruaren garrantzia Euskal Herrian: erabilpena baliabide bezala.
- Energia kontsumoa eta iturriak: Euskal Herriko energia egitura, energia tradizionalak eta alternatiboak. Energiaren aurrezpena.

### Prozedurak eta jarrerak

- Uraren erabilpen egokiarentzako irizpideak ezagutu eta praktikara eraman.
- Deskribapenak egiteko, azalpenak emateko eta argudiaketak egiteko arauak
- Datu esperimentalak tauletan, grafikoetan eta mapetan biltzeko, antolatzeko eta interpretatzeko jarraibideak.

## 5. EUSKAL HERRIA GARAPEN IRAUNKORRARUNTZ

Konpetentzia espezifikoa	Ebaluazio irizpideak
<b>5. Euskal Herrian garapen iraunkorrerako dauden estrategien berri izan, eta ikastetxean helburu horrekin garatzen diren jardueretan jarrera positiboz parte hartu eta lagundu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Badaki Euskal Herrian zer espezie (fauna eta flora) dauden desagertzeko arriskuan, baita zer eremu babestu dauden ere.</li> <li>- Parke naturaletan eta ibilbide ekologikoetan antolatutako jarduerak egiten ditu.</li> <li>- Inguruaren kudeaketa iraunkorra lortzeko ikastetxeak parte hartzen duen jardueretan laguntzen du (hondakinak gaika bildu eta uzten ditu, birziklatutako gauzak erabiltzen ditu, energia aurrezten ahalegintzen da,... Ikastetxeetako Agenda 21).</li> </ul>

### Kontzeptuak

- Ingurumenaren problematika eta garapen iraunkorra: Euskal Herriko ingurumen arazo nagusiak. Ingurumena zaintzea, kontserbatzea, leheneratzea eta hobetzea, kontsumo arduratsua eta garapen iraunkorra eta aztarna ekologikoa.



#### Prozedurak eta jarrerak

- Ingurumena zaintzeko xedearekin egiten diren ekimenatn modu aktiboan parte hartu.
- Deskribapenak egiteko, azalpenak emateko eta argudiaketak egiteko arauak.
- Inguruko errealitatearekin lotutako gai zientifikoei buruzko monografiak egiteko orientabideak.
- Taldean lan egiteko, eztabaidak antolatzeke eta aukeratutako gaien gainean sor daitezkeen eztabaidetan parte hartzeko arauak



# **INKESTA**

## **BALORATZEKO ETA HOBETZEKO PROPOSAMENA**



### I.- IKASTOLEN CURRICULUM KOMUNAREN ARDATZAK

Kodea	Proposamena	Balorazioa					Hobetzeko proposamenak
		1	2	3	4	5	
	1.- Ikastola guztientzat proposatzen den Oinarrizko curriculum komunaren printzipioak baliagarriak dira gure ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan horiek jasotzeko.						
	2.- Ikastola guztientzat proposatzen diren Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak baliagarriak dira gure ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan jasotzeko.						
	3.- Europako Parlamentuak eta Espainiako LOEK eta Frantziako Loi d'Orientation-ek proposatzen dituzten Oinarrizko kompetentziak eta Euskal Curriculumean proposatzen diren Hezkuntza kompetentzia orokorrak baliagarriak dira gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko.						
	4.- Ikastola guztientzat proposatzen den Hizkuntza plangintza baliagarria da gure Ikastolarentzat eta prest gaude gure Ikastolaren Hezkuntza eta Curriculum proiektuan jasotzeko						

Seinala ezazu (X baten bidez) item bakoitzari buruzko zure iritzia, ondorengo eskalaren arabera: 1=Erabat desados; 2=Desados;3=Ez alde eta ez aurka;4=Ados;5=Erabat ados

### II.- EUSKAL CURRICULUM ESPEZIFIKOA: IKAS ARLOAK

Kodea	Proposamena	Balorazioa					Hobetzeko proposamenak
		1	2	3	4	5	
	1.- Hizkuntzak eta Literatura						
	2.- Teknologia						
	3.- Musika eta Dantza						
	4.- Plastika eta Ikus adierazpena						
	5.- Gorputz hezkuntza						
	6.- Gizarte Zientziak						
	7.- Natur eta Osasun Zientziak						

**Oharra:** Oharra: "Matematika" eta "Tutoretza-Orientazio" arloek ez dute Euskal Curriculum espezifikoa begira berariazko oinarrizko edukirik. "Mundu ikuskerak eta Erljiioak" gaiaren berariazko edukia "Gizarte Zientzien" arloan uztartu dira.

### III.- INKESTA ERANTZUTEN ERABILITAKO BIDEA

Nork parte hartu du? Titularra, Guraso, Zuzendaritza, Irakasle (HH, LH, DBH, DOBH), Beste Zenbat pertsona? Erantzunak emateko eta adosteko erabilitako bidea:

Data:

*Ikastolako Lehendakariaren sinadura*

*Ikastolaren zigilua*

